

Zu hemen zaude.

goiena



IRITSI DIRA ARATUSTEAK!

Urteko jai zirikatzaileenak dira eta askotariko tradizioak eta protagonistak dituzte; hasita daude Debagoieneko kaleak hartzen. / IKUS HERRIAK

ARGAZKIAK:
XABIER URTZELAI,
LARRAITZ ZEBERIO,
JOKIN BEREZIARTUA
ETA IMANOL BELOKI



Elgetako koko-batzea, zapatuan.



Aretxabaletako Txapel Txin, zapatuan.



Urdelardero Eguna, atzo, Eskoriatzan.

"Industria babesteko erabakiak hartu behar ditu Europak" / 04

PELLO RODRIGUEZ ZABALETA
MONDRAGONEKO PRESIDENTEA



GOIENA TELEBISTAREN
GAINEKO GEHIGARRIA / 19

SINADURAK

 MIKEL ZUMALDE / 6	 MAMADOU SARR / 26
 ITSASO ERRETOLATZA / 9	 MIKEL ABERASTURI / 29
 PILAR ETXANIZ / 18	 AINTZANE OIARBIDE / 40



Ordenagailuak
Arrasatetik
Saharara

Elkarrizketa
NEIKER-eko Aitor
Cevidanesi

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Tokiko agintaldiaren erdialdean, udalerrien erronkei aurre egiteko ekintza-ildoan proposamena aurkeztu zuen Euskal Udalen Elkarteak (Eudel) joan den astean, Agurainen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako alkateak bildu ziren.

Debagoieneko herrietako alkateak ere izan ziren han; tartean, Oñatiko alkate eta Eudeleko Batzorde Betearazleko kide Iza-ro Elortza. Haren hitzetan, udalen interesen alde lan egiteko eginkizun garrantzitsua du Eudelek euskal gizartean: "Aniztasuna dago Eudel osatzen dugun udalen artean, baina elkartearen helburua da udalen interesak defendatzea, eta horretan gabil-tza. Pauso batzuk jada eman ditugu".

Ekitaldian, udalek gaur egun dituzten erronkei aurre egiteko lan-ildoak aurkeztu zituzten. Izan ere, Elortzak azaldu du "ziurgabetasun handiko" nazioarteko agertokiaren aurrean udal politika beharrezkoa dela: "Udalak dira herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa, eta horrek badauka garrantzia.



Eudeleko zuzendaritzako kideak –tartean, Iza-ro Elortza–, Agurainen. EUDEL

Udalerrien erronkei batera aurre eginez

Eudelen 57. batzar orokorrak EAEko alkateak batu ditu Agurainen, eta "ezberdinen arteko batasunera" dei egin dute. Eudeleko Batzorde Eragileko bokala da Oñatiko alkate Iza-ro Elortza eta beharrezko ikusten du "elkarrekin lan egitea"

Eskumen batzuk mugatuta izanda ere, badaukagu eragiteko gaitasuna; batez ere, gure artean batuz gero. Baina administrazioan eta beste erakunde batzuetan eragiteko, elkarrekin lan egin behar dugu".

Bide horretatik, joan den asteko ekitaldian "desberdinen arteko batasunera eta akordiora" heltzeko dei egin zuten, eta modu horretan elkartearen bi ardatzak bultzatzeko: udal-entzako zerbitzuak eskaini

eta erakundeen arteko lankidetzeta sustatzea. Ardatz horiei jarraituta, hamar lan-ildo proposatu dituzte urte honetarako. Besteak beste, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrien erronkak aztertuko

dira, 20.000 udal langilerentzako baino gehiagorentzako hitzarmena eguneratzeko konpromisoa hartu da eta toki autonomia zein finantza nahikotasuna bultzatuko da.

Horrez gain, gizarte politikei begirako hainbat erronka aurkeztu dituzte: gorroto delituetarako tokiko jardura gida bat egitea, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko tokiko protokoloak eguneratzea, zaintza feministen eta erantzunkideen tokiko sistemak diseinatzeko eredia egitea, eta udal-politikan andreak parte hartzeko Behatokia sortzea.

Hirigintza eta etxebizitzara begira ere, etxebizitza turistikoaren erabilera arautzeko oinarri komunak sortu nahi ditu elkarteak, eta etxebizitzaren erronkari aurre egiteko udal irtenbideen sare gisa aurkeztu du bere burua. Jasangarritasunari dagokionez, energia-autokontsumoaren arloan pausoak eman nahi ditu, eta, euskararen arloan, haren erabilera aisialdian sustatzeko jardunbide egokien dekalogoia egin nahi du.



LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.

laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxoa ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.

LABORAL
kutxa



Bi olagizon, Mirandaolako Burdinolan lanean. IOSU ALTZELAI - LENBUR FUNDAZIOA



Mirandaolako Burdinola, goitik ikusita. IOSU ALTZELAI - LENBUR FUNDAZIOA

Ekintza ugari Legazpiko Burdin Haranean

Burdin gintzaren eta Euskal Herriko tradizioen ikuspegi paregabea eskaintzen du Lenbur Fundazioak, hainbat ekintza-motaren bidez. Besteak beste, Mirandaolako Burdinola martxan ikusteko aukera dago, eta iragana gaur egunera ekartzeko

Askotariko ekintzak eskaintzen ditu Lenbur Fundazioak; bereziki, Legazpiren tradizio burdingilea oinarri hartuta: "Burdin Arotik gaur arte, gure gizartea, gure ohiturak, gure bizimodua eta abar, nola edo hala, burdinarekin lotuta daude. Legazpi historia horren eredu da, bertan aztarnak ditugulako".

Gure gizartearen iragana eta oraina ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du Lenburrek, publiko guztiei egokituta.

Burdinaren mila aurpegiak

Burdina euskal tradizioari lotutako elementua da, eta Mirandaolako Burdinola da horren froga. Lenburrek iragan hura gaur egunera ekarri du, esperientzia paregabea bizi izateko: "Gure altxorrik preziatuena Mirandaolako Burdinola martxan ikustea da. Bizi-bizirik mantentzen dugu, bi metroko sutegia, hauspoak eta mailuak dinbilidanbala burdina gori-goria jotzen. Horrek egiten duen soi-

nua –akaso, musika–, kolorea eta usaina ahaztu ez den zerbait da, esperientzia bat da".

Hala ere, burdinak, tradizioaz gain, modernitatea eta artea ere islatu dezake. Horretarako, Chillida Lantoki bisitatzeke aukera ematen du Lenburrek: "Gaur egun mundu osoko plazetan eta museoetan dauden burdinazko eskultura asko Legazpin egin ziren, eta Chillida Lantoki espazioan istorio liluragarri hori erakutsiko dizuegu".

Hori guztia gutxi balitz, entretenimendua oinarri hartuta esperientzia paregabe bat eskaintzen du Lenburrek Mirandaola parkeko Euskal Burdinaren Museoan: ihes gela bat. Enigmak ebatziz eta probak gaindituz, ikasteko eta ondo pasatzeko berebiziko aukera.

Pasatu eguna familian

Familiatzako tailerrak ere eskaintzen ditu Lenburrek; tartean, Aitona-Amonen Garaiko Eskola eta Langileen Etxebizitza. Ekin-tza hauekin denboran atzera egin nahi da, 1950eko hamarkadako Euskal Herriaren errealtatea bertatik bertara ikusteko.

Ezpata magikoaren misterioari esker, hurrei bideratutako jokoak ere badira Euskal Burdinaren Museoan. Haurrek, jolasean, burdinaren prozesu osoa ezagutuko dute, Olentzerok ekarritako ikatsetik Mirandaolako burdinolan egindako ezpata bereziaren sorrerara arte.

Ikastetxe, familia eta elkarteak

Askotariko publikoetara egokitzen dira Lenburreko kideak. Hezkuntzara bideratutako planek garrantzi berezia dute: "Oso garrantzitsua da guretzat, hezitzaileak gara eta 20 urte baino gehiago daramatzagu ikastetxeentzako plan bikainak proposatzen". Bestelako taldeentzat ere plan pertsonalizatuak diseinatzeko dituzte: "Taldeen arabera bisita egokituak egiten ditugu, eta ez dira beti berdinak; hau da, ez da berdina jubilatubati bisita egitea edota familiei. Hori kontuan izanda, gune desberdinak gomendatzen ditugu eta bakoitzari zuzendutako diskurtsoa prestatzen da".

EUSKAL HERRIAREN TRADIZIOAK BERTATIK BERTARA IKUSI DAITEZKE LENBUR FUNDAZIOARI ESKER

MIRANDAOLAKO BURDINOLA MARTXAN

Martxotik aurrera, burdinola bi igandetan behin ikusi ahal izango duzue.

GOIZ OSOKO PLAN BIKAINA

Eguna boroblitzeko, bisita hauek egiteko aukera izango duzue:

- Chillida Lantoki
- Langileen etxebizitza
- Fabrika
- 1950eko hamarkadako eskola

Erreserbatzea beharrezkoa da:

mirandaola@lenbur.com edo 943 73 04 28



LENBUR
FUNDAZIOA

Goiatz Arana Begiristain BILBO

2024ko abuztuan ekin zion Pello Rodriguezek (Urretxu, 1975) Mondragon gidatzeko erronkari, ordura arteko presidente Iñigo Uzini erreleboa hartuta. Goi Mailako Industria Ingeniaritzan lizentziatua –Mekanikako espezialitatean–, 2000. urtean hasi zuen ibilbide profesionala, Danobat kooperatiban. Hedabideekin batu zen martitzenean, Bilbon, eta bertan esandako galdera-erantzunak jaso ditu GOIENAK orrialdeotan.

Zer moduz joan da 2024. urtea?

Urte oso on bat izatetik gatoz. 11.200 milioi euroko salmentak izan ditugu, eta hazkundera: industria dibisioan, %2,2koa; eta banaketan, %2,8koa. Finantza arloan, Laboral Kutxak %23ko igoera izan du, eta Lagun Arok 7.400 milioi euro pasatzoko patrimonioa dauka.

Datozen urteetara begira, zeintzuk dira 2025-2028ko Politika Sozioenpresarialaren ardatz nagusiak?

Lau ardatz ditu. Lehena da konpromisoa eta nortasun kooperatiboa. Baliadun enpresa gara, taldekako kulturaduna, baina bilakaera izaten jarraitzea ezinbestekoa izango da. Ekintza-plan bat diseinatu behar dugu, aldaketa demografikoak, kooperatiba batzuetan izango ditugun erretiratze masiboak eta gazteen integrazioa kontuan izanik. Bigarren ardatza dira etorkizuna duten negozioak, eta, kasu horretan, batetik dago negozioen eraldatzea; hori barik ez dute iraungo automobilgintzak eta lerro zuriak, esaterako. Hortaz, produktu mekaniko batzuetan digitalizazio elektronikoa sartu beharko dugu, adibidez; edo marka zuriaren kasuan, agian, irekiera bat izan behar dugu fabrikatzaile korearrentzat –bezero gehienak europarrak eta amerikarrak dira, gaur egun–. Eta, bestetik, negozio berrien sorrera dago, oraindik ez gauden sektoreetan. Hirugarren ardatza da irekitasuna eta eragin soziala: gizartera eta erakundeetara zabaltzea, ez hainbeste negozio berriak sustatzeko, eragin soziala handitzeko baizik; ONCE eta Gureak taldeekin ari gara lanean, adibidez. Eta laugarrena da interkooperazioa: gure arteko sinergiak bilatu behar ditugu, mundu globalizatu honetan tamainan irabazteko. Txinan, adibidez, 2.500 pertsona gara, Kunshanen gure poligono propioa



Pello Rodriguez, martitzenean, gosari informatiboa hasi aurretik. GOIATZ ARANA BEGIRISTAIN

"Europari neurriak hartzeko eskatzen diogu, azkar"

PELLO RODRIGUEZ ZABALETA MONDRAGONEKO PRESIDENTEA

Gosari informatiboa egin du astean, Bilbon, kazetariekin. Bere burua aurkeztu, 2024ko balantzea egin, eta datorrenari begira ipini da

daukagu, baina kooperatiba asko elkarrekin joanda lortu dugu hori.

Sektore berrietan sartzen ari zaretela diozu; zeinetan?

Adibidez, osasungintzan, nekazaritzan eta energiaren sektorean, hazten joango direlako eta guk horietan inplementatu daitekeen teknologia daukagulako.

Zenbat eta zer-nolako negozioak sortzeko asmoa duzue 2025ean?

Lau, gutxienez, eta jada sortuta daude bi: Orbik –zibersegurtasunaren arloan– eta Innkia –adimen artifizialarenean–. Negozio berriak sortu nahi ditugu

enplegua sortzeko, kalitatezko enplegua, eta, ahal dela, izaera kooperatiboduna.

Ze funts bideratuko dituzue?

Alde batetik, *start-up*-etan 15 milioi euroko funts bat agortu dugu eta kantitate bertsuko beste berri batean ere parte hartzeak gara; lanketan ari gara 15 milioi euro inguruko beste funts batean; eta, azkenik, gure negozioak sortzeko Mondragon Inversiones-eko interes estrategiko korporatiboko proiektuetan ere –PIEC deitzen ditugunetan– 15 milioi euro ditugu esleituta aurtan.

Ez duzue bestelako finantzaketa beharrik aurreikusten negozio berriak sortu ahal izateko?

Gure Plan estrategikoan ikusten dugu ditugun errekurtsuekin nahikoa izango dugula datozen lau urteetarako; 2028ra bitarte, ez dugu gure gaitasunaz gaindiko beharrik aurreikusten. Zuhurtziaz inbertitzen dugu.

Baduzue herrialderen bat begiz jota?

Bai, Mexiko. Txinako adibidea jarraituz, 2025ean gure posizioa indartu nahi dugu Mexikon. 19 kooperatiba ditugu bertan, 3.000 langile, eta unibertsitatea Que-

retaron. Ideia da bertako ikasleei masterra hemen egiteko aukera ematea eta, formakuntza dualaren bitartez, ea gure kooperatibetan geratzen diren. Aurtan hasi gara proiektu horrekin. Eta bada beste aldagai bat: 800 milioi euro gainditzen dituzten salmentak ditugu NAFTA-n –Ipar Amerikako Merkararitzza Libreko Ituna; Mexikok, AEBk eta Kanadak osatzen dutena–. Beraz, osagai guztiak ditugu interkooperazioaren bitartez hango kooperatibak eta, zeharka, hemengoak ere indartzeko.

Nora esportatzen duzue gehien?

Gehien-gehien, Europara. Industria sektoreko esportazioak 3.500 milioi euroren bueltan dabilta: Kanadara, Mexikora eta, batez ere, AEBetara (%90) egindako esportazioek 800 milioi euro gainditzen dituzte; Txinako kasuan, ez dira 300 milioi eurora ailegatzen; eta gainontzekoa Europako esportazioei dagokie.

Nola eragin dezakete muga-zergek?

Ez dakigu zer gertatuko den. Badirudi bultzatu nahi dutela enpresak AEBetan jartzea, baina han ez dago ez jenderik eta ez gaitasunik. AEBetan ez dago makina-erremintako fabrikarik, ezta automobilgintzarako guk hemen egiten ditugun osagaiak fabrikatzen dituzten lantegi asko ere. Hori ziurtasun bat da eta lasaitasun puntu bat ematen digu, baina kezka badago, nola ez, eta muga-zerga teoriko horiek praktikan nola mugituko diren ikusteko zain gaude.

AEBak ixten badira, Europak ere gauza bera egin beharko luke?

Eskatzen dugu ekintzaren bat egotea. Bai Imanol Pradales lehendakariak deitutako Industriaren Defentsa Foroan bai Ekonomia eta Industria ministerioekin egon izan garenetan, Europa mailako erabakiak hartzeko beharra helarazi diegu. Eta uste dugu eraso puntu bat ere egon behar dela, ezin garelazain geratu Donald Trumpek eta Txinak zer egingo. Adibide bat emango dizuet: txinatarrek enpresa pila bat jartzen ari dira Marokon, eta min ikaragarria ari zaie egiten automotzioiko Europako fabrikatzaileei. Horrela ezin gara geratu. Hortaz, eskatzen dugu industria babes-teko erabakiak hartzea, eta azkar hartzea; baita protekzionismoa ere.

Protekzionismoa, ze zentzutan?



DATUETATIK TIRAKA: BASOAK

Debagoieneko zuhaitzen %63,6 koniferoak dira

Zuhaitz hostozabalekiko aldea Gipuzkoan eta EAEn baino nabarmen handiagoa da gurean. Baso-azalera ere handia da bailaran, portzentajea (%79,7) Gipuzkoakoaren eta Erkidegokoaren zazpi eta hamabi puntu gainetik dago

Protektionismoa ez da atekak ixtea, elkarrekin sortzea ere izan daiteke, baina arauak justuek izan behar dute guztiontzat. Zergatik duela 20 urte Txinan kokatzen hasi ginenean araudiak ez zuen baimentzen jabetzaren gehiengo atzeritarra izatea eta, aldiz, txinatarrek muntatu dituzte European jabetzaren ehuneko ehun txinatarrak duten bateria-fabrikak?

Armagingintza inbertituko duzue?

Armamentu, munizio, balistika... Horietan ez gara egongo.

Automobilgintza ukituta dago, makina-erremintaren sektoreak eskabide-zorroan jaitsiera iragarri du... Industrian badago non babesa hartu?

Lana kooperatiba topera dago, Orbean fakturazioa hirukoiztu egin dute COVIDaz geroztik, eta Onnera Group-en ere asko ari da igotzen, ostalaritza sektorearen bitartez. Horrek guztiak laguntzen du hain arrakastatsu ez dauden beste sektore batzuk orekatzen. Eta automobilgintzan ere baditugu oso ondo doazen kooperatibak; horregatik, ez nuke orokortuko eta automobilgintza gaizki doala esango. Edozein kasutan, automobilgintzak urteak daramatza krisian eta horrek lagundu dio egoera berriara egokitzen.

Zeintzuk izan dira ondoen eta okerrren joan diren dibisioak 2024an?

Ahulen ibili direnak izan dira automobilgintzarekin eta marka zuriarekin erlazionatuta daudenak. Gainontzekoek gora egin dute salmentetan edo eutsi egin diote hazkundeari: makina-erremintak, ingeniari-tzak eta zerbitzuek, edota erakuntzak.

Nola erakarriko duzue talentua?

Mondragonen bereizgarri den Ezagutza Dibisioaren bitartez. Enpresen beharretatik oso hur-

bil dauden unibertsitate propioa eta teknologia zentroak ditugu. Ideia da horiek guztiak batu eta harago joango den ekosistema bat sortzea, proiektu berriak garatzeko bide emango duena eta ikasleentzako ere erakargarri izango dena. Teknologia digitalak izango dira ardatz; izan ere, gero eta gehiago behar ditugu merkatuan ez dauden profil digitalak. Proiektu honi garrantzi handia emango diogu aurten eta diru asko inbertituko dugu Ezagutzaren Dibisioan.

Profil digitala duten profesionalak beharko dituzue gehien, beraz.

Bai, profilaren arabera ditugun beharrak ezberdinak dira. Teknologia digitalei dagokienez, kalkulaturik daukagu datozen lau urteetan beharko dugula EAEn unibertsitateetako graduatuen %50: Ingeniaritza Elektronikoa, Elektrikoa eta Informatikoa ikasitakoak eta automatismoetatik datozenak batu eta erdiak beharko genituzke. Badakigu hori ezinezkoa dela; horregatik daukagu teknologia digitalen ekosistema sortzeko proiektua, ikasle eta graduatu gehiago izateko. Lanbide Heziketari dagokienez, berriz, dauden ikasleekin nahikoa daukagu ditugun beharrak asetzeko. Eta gero bada beste proiektu bat, immigrazioaren inklusioarena; GSR adinekoen egoitzan, adibidez, jende asko ari gara gizarteratzen, ez formakuntzatik datorrena, etorkina dena baizik.

Eta nola bermatuko duzue ezaugarritzen zaituzten kooperatibismoa-erikiko konpromisoa?

Nire ustez, kooperatibista ez da jaiotzen, egin egiten da. Korporazioan sartzen diren langileak kultura kooperatiboaz blaitzen ditugu. Eta orain daukagun erroka zera da: aurreikusten dugun erretiratze kopuru altuaren aurrean, kooperatibei laguntzea sartzen diren langile berriei gureak diren balioak transmititzen.

Orduan, 2025era begira zaudete...

Indartsu eta gogotsu. Egia da ziurtasun gutxi dagoela eta kezka badela, baina malgutasuna dugu: bai produktu, bai sektore, bai geografian oso dibertsifikatuta gaude, eta horrek laguntzen digu negozio bat ondo ez doanean beste batekin konpentsatzen. Poliki, baina hazten jarraitzea da asmoa.


Goiatz Arana Begiristain

DEBAGOIENA

Lurraren izaeraren edo erabileraren arabera, baso, nekazaritza, hiri eta ur azalera ezberdintzen dira. Eustatek emandako 2023ko datuen arabera –eta baso moduan mendiak, larreak, sastrakak, harkaitzak edota zuhaitziak aintzat hartuta–, baso-azalera handia da Debagoienean (%79,7), Gipuzkoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegorekin alderatuta; kasu horietan, batez bestekoak %72,4 eta %67,7 dira, hurrenez hurren.

Gauza bera gertatzen da zuhaitzietatik hartzen duten azalerari erreparatuz gero ere: Debagoieneko azaleraren bi heren baino gehiago zuhaitzez estalita daude (%69,31). Portzentajea %61,66 da Gipuzkoan; eta %54,8 EAEn. Herrien artetik, Leintz Gatzagak du zuhaitzu gehien (%83,06); %70eko langa gainditzen dute Elgetak (%79,85), Aramaiok (%78,82) Antzuolak (%75,1) eta Oñatik (%73,42); Bergarak (%67,12), Arrasatek (%64,11) eta Eskoriatzak (%62,33) jarraitzen diete zerrendan; eta Aretxabaleta dago azkena (%55,53).

Are gehiago aldentzen da bailarako egoera Gipuzkoatik eta erkidegokotik, zuhaitz motari erreparatuz gero. EAEn, hostozabalak dira nagusi (%57,6); hostozabalen eta koniferoen kopuruak nahiko parekatuta daude Gipuzkoan –%50,7 eta %49,3–; baina Debagoieneko argazkia oso bestelakoa da: koniferoen kopuruak (%63,6) ia bikoiztu egiten du hostozabalena (%36,4). Espezieen artetik Intsignis pinua da ugariena (%39,1); %17,8 pago arrunta da; eta Larizio pinua, %7,5. Azken urteotan toki batzuetan hainbeste zeresan eman duen eukaliptorik, berriz, ez dago ia gurean.



Pinu ilara luzeak, basoan. 'PEXELS.COM'

Jabetza pribatua

Jabetza publikoko azalera ez da erdira ailegatzen, ez EAEn, ez Gipuzkoan, ez Debagoienean. Baina bereziki baxua da bailaran (%12,11). Herrien artetik badira, gainera, batez besteko horren azpitik daudenak ere: Elgetan ez dago batere ia, eta Bergaran, Arrasaten eta Aretxabaletan ez da ailegatzen %5era. Guztiz bestelakoa da egoera Leintz Gatzagan: bertan dagoen baso azaleraren %69,78 publikoa da.

Ekologian doktore Julen Astigarraga oñatiarraren esanetan, "basoak multifuntzionalak dira, baina XX. mendean zehar egur ekoizpena lehenetsi da, bioaniztasunaren babesa edota uraren eta klimaren erregulazioa alde batera utzita. Horregatik dira nagusi koniferoak gure inguruan, egur ekoizpenerako egokiagoak direlako. Baina gaur egun, klima aldaketaren testuinguruan, agian, apustu hori arriskutsua izan daiteke".

"11.200 MILIOI EUROKO SALMENTAK IZAN DITUGU 2024AN"

"PROFIL DIGITALEN PREMIA HANDIA DAUKAGU"

"2025EAN GURE POSIZIOA INDARTU NAHI DUGU MEXIKON"

Baso-azalera eta zuhaitziak

		DEBAGOIENA	GIPUZKOA	EAE
BASO-LURRAK	Publikoak	%12,1	%21,4	%42,0
	Pribatuak	%87,8	%78,5	%57,9
ZUHAITZ MOTAK	Hostozabalak	%36,4	%50,7	%57,6
	Koniferoak	%63,6	%49,3	%42,4

ITURRIA: EUSTAT



ZABALIK

MIKEL ZUMALDE

Herri txiki baten sortu nintzen

Aspalditxoan, gure herrietan fenomeno bitxi bat gertatzen ari da, bizitzeko dugun moduarekin erabateko zerikusia duena. Egunerokotasuneko atzaparretik ihes egitea lortzen dugunean, larunbatetan eta igandeetan, hustu dira gure herri eta kaleak. Aretxabaletan, eta suposatzen dut beste herri batzuetan berdintsu izango dela, deigarria da oso egubakoitzetan kalean ibiltzen den jendetza eta, ordea, ze jende gutxi dabilen larunbatetan eta igandeetan. Salbuespenak salbuespen, zeharo aldatzen da panorama egun batetik bestera, eta kontsumo infiniturantz bultzatzen gaituen gizarte honetan mesedegarria izaten da burua altxatu eta gure denbora zertan eta zertarako baliatzen dugun ikustea.

Zenbat eta plan potoloagoa, orduan eta zoriontsuagoa da jendea, bat-bateko dopamina artifizialaren ondorioz. Egiten ditugun planak ugariak eta ezberdinak izaten dira, eta,

BILDU, ANTOLATU ETA HERRIETAKO BIZITZA DUINEN ALDEKO ALDARRIA EGIN DUTE ARAMAIOARREK

normalean, guztiek dute amankomunean ezaugarri bera: herritik kanpo izaten direla. Zorionez, ez da gizarte guztiaren isla, baina bai zati handi batena. Txikitasunean zoriontsu bizi daitekeela egiaztatuta dagoen arren, aste amaiera iritsi eta gure bizitza

bizkortu egiten da. Herritik irten eta han-hemenka ibiltzen gara, noraezean, entretenituko gaituen zerbaiten bila. Konprenitu dezaket, neurri batean, egokia izan daitekeela noizean behin arnas pixka bat hartzea eta asteburu alternatibo bat egitea, baina, konturatu garenerako, normalizatu egin dugu.

Ildo horretan, eredugarria iruditu zait joan den larunbatean Aramaixo Bizirik taldeak aurrera eramandako eguna. *Herriaren eta mendien defentsan* lelopean, egun osoko egitaraua prestatu zuten, jende guztia hirietara eta ekitaldi handietara doan honetan, Aramaioko larreetan aske bizi nahi dutela argi esanez. Ekitaldi aldarrikatzaile horrekin, aitzindari bihurtu dira aramaioarrak herri guztiak pairatzen ari diren problematikaren aurrean, bildu, antolatu eta herrietako bizitza duinen aldeko aldarria egin dutelako. Bakoitzari berea, eta, kasu honetan, aramaioarrak erakutsi dute badagoela non bizi kaosaren eta etengabeko kontsumora bultzatzen zaituzten hirien aurrean. Biba zuek!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Belaunaldi bat

ANDONI EGAÑA

'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/VM2PG](https://labur.eus/vm2pg)

Berrogei urtez iraun zuen Alemaniako Errepublika Demokratikoak.

Ekialdeko Alemania hartan sozialismoa izan zen nagusi 1949tik 1989ra bitartean.

Mendebaldeko edo kapitalista itsuenak ere onartu beharreko aurrepausoak eman zituzten naziek erretako Alemania zati hartan bestelako mundu bat eraikitze asmotan.

Esaterako, 1972tik aurrera, pilua antisorgailuak legezatu zituzten eta doan jarri.

Abortatzeko eskubidea onartu zuten.

Adibidez, etxetik kanpo ere lan egiten zuten emakumeen kopurua inon baino handiago zen Ekialdeko Alemanian, haurtzaindegi, haur-eskola eta udaleku sare ongi hedatu bati esker.

Proportzioan, munduko beste edozein tokitan baino antzoki, zinema areto, orkestra, gazteentzako klub, kirol talde, musika eskola, liburutegi, museo... gehiago zituzten berrogei urteren buruan.

1989an, Berlingo harresia eraitsi, eta bi Alemaniak bat egin zuten.

Ia beste berrogei urte pasatu dira ordutik.

Eta joan zen igandeko hauteskundeen emaitzei begiratu gero, mapa salagarri bihurtzen da.

Ultraeskuinak egurra eman du, non eta han, ekialdean, bestelako mundu bat bazitekeela sinesten zuten lekuan.

Nik ez dut datua azpimarratzeko baino haragoko gaitasunik.

Gehiago dakitenek emango dute azalpenen bat.

Niri, harrigarri gertatzen zait belaunaldi bakarrean hainbesteko belaunikaldia eman izana...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
 Goiena Komunikazio Taldea
 Kooperatiba Elkarte
 Otarora Lizentziaduna 31
 20500 ARRASATE

Lehendakaria
 Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
 Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
 Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
 Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
 Monika Belastegi, Mirari Altube,
 Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
 Mireia Larrañaga.
Administratzaile zuzendaria
 Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
 Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
 Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
 Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
 Xabier Urzelai (Kirola),
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
 Imanol Soriano,
 Aitor Lagoma,
 Amaia Martínez de Arenaza.
Publikitate
 Mireia Larrañaga, Naroa Inza,
 Olatz Alberdi, Amaia Mundiñano.

Administrazioa
 Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
 Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
 Arrasate 20500
 Otarora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKITATEA
 Arrasate 20500
 Otarora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
 Arrasate 20500
 Otarora Lizentziaduna 31
 132 posta-kutxa
 Tel.: 943 25 05 05
 Telegram eta WhatsApp:
 688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
 Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

HANDIK HONA



Ziahan Tariq, Antzuolako Zurrategi plazan. JONE ARRUABARRENA

"18 urte arte ez nuen gaztelania ikasi; euskaraz aritzen nintzen"

ZIAHAN TARIQ PAKISTANDAR JATORRIKO ANTZUOLARRA

Jone Arruabarrena ANTZUOLA Pakistango nekazaritza-eremuan jaio zen Ziahan Tariq (1993, Lahore, Pakistan), eta umea zela etorri zen Antzuolara. Euskara hutsean bizi izan da, 18 urte bete eta gaztelera ikasi zuen arte, eta Alardean mairuaren pertsonaia egiten du duela urte batzuetatik hona.

Nola gogoratzen duzu haurtzarora Pakistanen?

Nekazaritza-eremuan bizi nintzen, nire familiakoak nekazariak zirelako. Han beti ezagutu dut nekazaritza; hemengo baserrietan moduan bizitzen ginen. Ni amonaren etxean hazi nintzen; ama irakaslea zen, eta beste herri batean zegoen, eta nire anai-arrebetako batzuk Lahore hirian, izeba baten etxean, han ikasten zutelako. Zortzi anai-arreba gara: bat hemen jaiotakoa eta besteak

Pakistanen. Aita, berriz, Espainiara joan zen, ni txikia nintzela.

Mantentzen duzu kultura pakistandarra?

Etxean izan dugu Pakistango kultura, baina denok ikasi genuen hemengo hizkuntza etorri ginenean, eta etxean beti euskaraz edo erdaraz aritzen ginen. Beraz, Pakistango hizkuntzak, panyabia eta urdua, ez ditugu asko ikasi. Orain, helduaroan, hasi naiz batzuetan Pakistanera joaten, bi edo hiru urterik behin, eta horrela ikasi ditut hizkuntza horiek.

"ANTZUOLAKO JUAN JOSEK ASKO LAGUNDU ZIDAN; SEMETZAKOTZAT HARTU NINDUEN"

Zergatik etorri zinen Euskal Herrira?

Aita hemen bizi zen. Hasieran, oporretan etorri zen, baina gero, geratzea erabaki zuen. Lehenengo, Toledon egon zen, han nekazaritza-lanak egiten zituzten ezagunak zituelako. Gero, Euskal Herrira etorri zen, Antzuolara, lagun batzuekin. 2000. urte inguruan izan zen hori, eta orduan erraza zen paperak egitea; beraz, paperak lortu zituen. Urteak pasatu ziren, eta, semeak handi egiten ari ginela ikusita, aitak

"GARAI HARTAN EZ GENUEN IZAN ARAZORIK PAPEREGIN; GAUZAK HOBETO ZEUDEN"

erabaki zuen familia osoa hona ekartzea, 2005. urtean; nik 12 urte nituen.

Nola gogoratzen dituzu hona iritsi zineneko lehenengo egunak?

Gogorrak izan ziren. Hona etorri ginenean, aitak esan zigun mendi batean bizi ginela, herritik urrun. Baina Antzuolako auzo batean bizi ginen, erdialdetik hurbil. Hiru hilabete egon ginen auzotik atera gabe, herria oso urrun zegoela pentsatuta.

Nola egokitu zinen hemengo bizitzara?

Ondo. Juan Jose izeneko antzuolar batek asko lagundu zidan; etxean asko ginenez, semekotzat hartu ninduen, eta harekin bizi izan naiz. Bizitza osoan zehar lagundu dit, eta oraindik ere asko laguntzen dit; bigarren aita bat da niretzat. Hizkuntza ikasten lagundu zidan, bizitza aurrera ateratzen...

Euskara ikastea erraza egin zitzaizun orduan?

Eskolan hasi nintzenean, lagunak egin nituen, eta horrek ere erraztu zidan hizkuntza azkar ikastea; 3-4 hilabetean ikasi nuen euskara. 18 urte bete arte ez nuen gaztelania ikasi, euskararekin nahikoa nuen. Orduan, mekanikari lanak ikasten hasi nintzen Zumarragan, eta, ikasketak gaztelaniaz zirenez, ikasi egin behar izan nuen. Antzuolan eta Bergaran oso euskaldunak dira, eta denek egiten zidaten euskaraz.

Paperekin arazorik izan zenuen garai hartan?

Ez. Garai hartan ez genuen arazo askorik izan; gauzak hobeto zeuden. Hemengo jendeak etorkinei lagundu egiten zien. Baina geroz eta jende gehiago etorri ahala, gauzak aldatu egin dira. Orain, oso zaila da. Nire emaztea orain Pakistandik etorri da, eta lau urte daramagu paperekin bueltaka. Ezinezkoa da, oso zaila. Ez da legearengatik bakarrik; edozein tramitazio egiteko ere denbora asko ematen dute, urte bat edo bi.

Trabarik ekarri dizue horrek?

Bai. Emazteak osasun-larrialdi bat izan zuen, eta ospitalean arreta emateagatik

500 euroko faktura bidali ziguten, paperak oraindik tramitatu gabe zeuzkalako. Nik ordaintzen ditut zergak, eta hura nire emaztea da; hala ere, aparte ordaindu behar du.

Antzuolako Alardean ere parte hartu izan duzu, mairu papera egiten; zer-nolako esperientzia izan da?

Eskaini zidaten eta pozik onartu nuen. Oso esperientzia ona izan da.

Zein asmo daukazu etorkizunean?

Etxea Antzuolan erosi dut, lagunak hemen dauzkatz, baita lana ere. Gurasoak eta anai-arreba batzuk Ingalaterrara joan dira bizitzera, baina nik hemen jarraituko dut.

Euskal Herriko gizartera egokitzea, lehen errazago

"Erraza" egin zitzaion Tariqi umea zela Antzuolara egokitzea. Eskolan eta futboleko laster egin zituen lagunak, eta harrera ona egin ziotela dio. Hala ere, uste du gauzak asko aldatu direla azken urteetan: "Ni etorri nintzenean, oso jende kanpotar gutxi zeuden, eta errazagoa zen hemengo jendearen lagun egitea. Orain, kanpotar asko dago, eta euren artean batzen dira, hemengo jendearekin konektatzea kostatu egiten zaielako". Uste du zaila den arren badaudela aukerak Euskal Herrian jaiotako herritarren lagun izateko. Garrantzi handia ematen dio euskara ikasteari, edo herriko giroan parte hartzeari: "Uste dut kanpotik datorren jendea euskaltegira joaten bada euskara ikastera, edo taberna bertakoekin elkartzeko, lagunak egiteko aukera dagoela". Errazagoa egin zaio Antzuolara egokitzea, "herri txikia" dela iritzita.

Soluzio kolektiboak eman guran arazo sistemikoari

Udal Gobernuak kezka azaldu du herriko haurren eta nerabeen ongizate emozionala baldintzatzen duten arazoien inguruan. Hala, arlo horretan egindako diagnosiaren ondorioak eta "komunitatearekin egiteko hausnarketa-saioak" aurkeztu dituzte asteon

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko 6 eta 18 urte arteko herritarren egoera "bereziki zaurgarria" da gaur egun, Udal Gobernuaren arabera. "Haiei laguntzeko borondatea dugu, eta, horretarako, Elhuyarrek lankidetzaz bideratu dugu", adierazi du Jasone Giraldo, Ongizate zinegotziak. Hala, Elhuyar-ko teknikari Taxio Arrizabalagak eman ditu ikerketa-prozesuaren xehetasunak. "Datu kuantitatibo eta kualitatiboak bildu ditugu, Arrasateko haurren, gazteen eta nerabeen osasun mentalaren argazki ahalik eta errealea izateko", azaldu du.

Datu kuantitatiboak erakunde nagusienetatik jaso dituzte. "Batetik, Arrasateko haurren eta nerabeen datu demografiko orokorrak jaso ditugu, udal erroldako datuak oinarri izanda: biztanle kopurua, adina, jaioterria, bizilekua eta abar. Bestetik, Osakidetzak emandako datuak bildu ditugu, orokorrak zein halako patologiarekin bat izan duten kasuen zenbatekoa; baita psikofarmakoen preskripzioa eta bilakaera ere. Azkenik, Udalaren adikzioen prebentziorako programak emandako datuak, haurren eta nerabeen kontsumo-ohituren, kontsumitutako substantzien eta adikzioa sordezaketan praktiken inguruan".

Datu kualitatiboak dagokienez, elkarriketa edo galdetegi bidez eskuratu dituzte. Arrizabalagak azaldu duenez, ikastetxeetako gazteei galdetegi anonimo bat zabaldu diete, eta, era berean, haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalen elkarrizketak egin dizkiete. "Udaleko zerbitzuak eta programetako hezitzaileak, ikastetxeetako orientatzaileak, Osakidetzako profesionalak eta herriko eragile sozialetako ordezkariak elkarriketatuta ditugu", dio. Azkenik, herriko psikologoen hainbat galdera egin dizkiete.



Taxio Arrizabalaga eta Jasone Giraldo, atzoko aurkezpenean, Kulturaten. E.A.B.

JASONE GIRALDO: "HAUSNARKETA-SAIOTARA JOATEKO DEI EGITEN DIEGU HERRITARREI"

Ondorioak, hiru sailkapenetan Arrizabalagak nabarmendu duenez, diagnosiaren ondorioak hiru sailkapen nagusitan banatu dituzte. Batetik, testuinguru globalaren eta errealitate partikularren eragina: "Gizarte osoari eragiten dioten zapalkuntza egoerak haurrengan eta nerabeengan ere erreproduzitzen dira, eta haietako zenbait egoera bereziki zaurgarrian geratzen dira. Migrazioaren ondoriozko zapalkuntzak, emakume eta genero disidentziak, maila sozioekonomikoak, itxura fisiko ez-normatiboak eta familia desegituratuen kasuak dira horiek".

Bestetik, haurren eta nerabeen ondoeza dago: "Pantailen eta sare sozialen erabilerak kudeaketa emozional osasuntsua egiteko ezintasunak eragiten ditu, eta adikzioak eragin ditzaketen praktikek eta substantzien kon-

tsumoa orokortzeak ere bada-karte ondorez emozionalen arazoak. Halaber, herriko haur eta nerabe kopuruak azken hamar urteotan behera egin arren, osasun mentalaren eremuko gaixotasun edo patologien diagnostiko kopuruak etengabe gora egin du, ia bikoizteraino".

Azkenik, Arrasateren erantzuteko gaitasuna nabarmendu du teknikariak: "Ondorez horiei erantzuteko ekosistema sendoa du Arrasateko baina badaude hobetzeko eta indartzeko beharra duten alderdiak: gainezka dauden baliabideak, nahiko ez diren baliabide publikoak, osasun mentalean alor publikoan baliabide falta eta abar".

Bi hausnarketa-saio martxoan Lanketaren ostean, komunitatearekin hausnartu gura dute, "diagnosiaren esku-hartze ildoak garatzeko", Giraldoen esanetan. Hala, herritar, guraso eta profesionalen batera ekintza-plan bat garatuko dute, "arazo sistemikoari, irtenbide kolektiboak" ematen saiatzeko. Saioak Kulturateko areto nagusian izango dira, martxoaren 11n eta 25ean, 15:00etatik 17:00etara.

Bihar abiatuko dute Arrasate "berdezatzeko" prozesua

'Azpiegitura berdea, klima eta energiaren plana' osatu gura du Udal Gobernuak, herritarren ekarpenak jasota

E.A.B. ARRASATE

Azpiegitura berdeak definitzeko helburuarekin, lehenik, egungo egoeraren diagnostikoa egiteko faseari ekingo diote; bigarrenik, jarduketaren proposamen zehatzak egiteko fasea etorriko da; eta, azkenik, ekintza-plana idazteko fasea. "Herritarrek lehenengo bi faseetan egin ahal izango dituzte ekarpenak, eta hirugarren eta azken fasean aurreko bi faseetatik eratorritako proposamenak jaso, aztertu eta txertatu dira", dio Garazi Etxeberrriak, Hirigintza zinegotziak.

Lehen faseari dagokionez, galdetegi digital bat egongo da martxoaren 1etik 31ra udal webgunean, eta, era berean, auzoz auzoko saioak egingo dituzte. Erdialdeko bizilagunentzako bilera martxoaren 11n izango da, 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan; Musakolako eta Santa Marinako bizilagunentzako bilera martxoaren 17an izango dute aukera, 18:30ean, Musakolako erretiratuaren etxean; San Andresko bizilagunei zuzendutako saioa martxoaren 18an egingo dute, 18:30ean, Etxaluzeko Axerri gelan; Uribarri-Erguinego bilera martxoaren 24an izango da, 18:30ean, erretiratuaren etxean (Usaetxe); azkenik, landa-azuetako bizilagunei zuzendutako saioa martxoaren 25ean egingo dute, 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.

Halaber, bestelako eragileekin ere egingo dituzte bilerak. Haurren Kontseiluarekin egingo

dutena martxoaren 14an izango da, 11:00etan, eta Hirigintza Aholku Kontseiluarekin, berri, martxoaren 10ean, 18:30ean. Azkenik, udal langileekin saio berezia egingo dute, zeharkotasuna bermatzeko.

Bigarren fasea maiatzean hasiko dute, "proposamen zehatzak" jasotzeko helburuarekin, eta hor ere eredu bera erabiliko dute (Ikus *Goiena.eus*).

Bost aldagai aztertuko dituzte: zuhaitzak; parke, lorategi eta zelaiak; gune "grisak"; eraikinak; eta ibaiak edo errekek. Beraz, prozesua "funtsezkoa" da Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorra berritzeko.

EAJK, Arrasate Berdea plana

EAJ-PNVk, bestalde, Arrasate Berdea plana aurkeztu du, "Arrasate bizigarriago eta erresilienteago bilakatzeko konpromisoarekin". Hiriko basoberritze plana sortzea eta hainbat berdegune garatzea planteatu dute, belaunaldiarteko guneekin, kirol-eremuekin eta biodibertsitatea sustatuko duten lorategiekin. Horrekin batera, eraikin publikoen modernizazio plana ezartzea proposatzen dute, eguzki-plakekin eta geotermia sistemeekin, baita etxebizitzaren eta enpresen birgaitze energetikorako dirulaguntzak eskaintzea ere. Hori guztia herritarren parte-hartzearekin egin gura dute jeltzaleek ere, eta Udal Gobernuak aurkeztutako prozesuarekin bat egin dute.

OHARRAK

Mugikortasun Plana: azken bi saioak

Martxoaren 6an, herritar guztientzako saioa egingo dute, Kulturateko areto nagusian, 18:30ean. Hilaren 13an, berri, Hirigintza Aholku Kontseiluarekin batuko dira.

Sexologiari buruzko hitzaldia, astelehenean

Gure seme-alaben sexualitateari arreta ematen hitzaldia egingo du Miren Lopez de Arregi sexologoak, Kulturateko Loramendi gelan, 17:30etik 19:00etara.

Arrasateko txantxikuen bazkaria

Martxoaren 29an egingo dute, Erreka jatetxean. Izena emateko, bi telefono-zenbaki: 616 27 59 38 (Ibai) edo 696 77 73 97 (Pasku).



Arrasaten Txorimaloen eta Kukumarruen Konpartsako kideak, entsegu batean. ARRASATEKO TXORIMALO ETA KUKUMARRUEN KONPARTSA

Herri Inauterien esentzia kalera aterako dute gaur

Txorimaloak eta kukumarruak protagonista dituzten Herri Inauteriak sortu dituzte Arrasaten, eta gaur, egubakoitza, iluntzean egingo duten kalejira da horren adierazle nagusia; bihar, besteak beste, pregoia, desfilea eta mozorro lehiaketa egingo dituzte

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Herri Inauteriak egingo dituzte aurten, lehenengoz, Arrasaten, herriko kultura eragileen ekimenez, eta Euskal Herriko Aratusteetan oinarrituta. Euskal Aratustearen ezaugarri nagusiak, azaldu dutenez, honako hauek dira: natura eta emankortasuna, rolen iraulketa eta askapen soziala, kultur nortasuna, ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka eta komunitatearen jai.

Horri lotuta, Arrasaten Txorimaloen eta Kukumarruen Konpartsa sortu dute, bi helburuekin: batetik, funts eta estetika "jatorragoko" Aratusteak bultzatzea, "gaur egun Euskal Herrian bizirik dauden ereduak inspira-

zio iturri hartuta"; bestetik, dantza taldeentzat eta txistularientzat agertoki berria sortzea.

Gaur bertan egingo duten kalejira izango da konpartsaren lehen agerraldia. 19:00etan Maalako errebaletik abiatuko dira eta 21:00etan Herriko Plazan bukatuko dute, hainbat txokotan dantza egiteko geldialdiak egin da. "Printzipioz, urterik urte egingo dugun performancea izango da. Performance honen zati bat ikuskizuna izango da; hau da, herritarrek modu ez-zuzenean parte hartuko dute, dantza eta musika ikusiz eta entzunez, eta kukumarruen zirrikadak pairatuz. Beste zati bat, ordea, parte-hartze aktiboagoa izango

da eta nahi duenak parte hartuko du dantzan", azaldu dute.

Ezaugarri zehatzak dituzte

Konpartsaren baitan, txorimaloek eta kukumarruek ezaugarri zehatzak izango dituzte. Txorimaloak dantzariak eta musikariak izango dira. "Taldea honek osatzen du konpartsaren erdialdea eta zati serioa. Aratusteen bitasun horretan, txorimaloak dira konpartsaren alde sofistikatuak, ordenatua, gizatiarra, arautua eta zibilizatua".

Txorimaloen antagonistak dira, aldiz, kukumarruak. "Pertsonaia groteskoak dira, dantzarien inguruan dabilta jendea zirikatzen jokabide adeigabe eta lotsaga-

bearekin. Kukumarroak dira natura, basatasuna, legerik eza, transgresioa eta kaosa".

Konpartsa sortzearekin batera, *Txorimaloak eta kukumarruak* izeneko musika eta dantza berezia ere sortu dute gaurko egunerako. "Kalejira egiteko sortua da; hau da, herrian puntu bate-tik bestera joateko. Kalejirako musikak eta dantzak bi zati desberdin ditu. Bi zati kontrajarri horiekin, goian xehatutako bitasuna irudikatu nahi dugu".

Egun nagusia, bihar

Gaur, kalejiraz gain, Arrasate Musikaleko ikasleen Aratuste-kontzertua ere egongo da, Amaia antzokian, 18:30ean. Biharko egunari dagokionez, bete izango da. 12:00etako pregoiaren ostean, desfilea eta mozorro lehiaketa egingo dituzte, askotariko sariekin. Gero, 14:30ean mozorro paella egingo dute, Arrasateko Haur eta Guraso Asanbladak antolatuta, eta 200 bat herritar elkartuko dira Kulturoloako aterpean. Bazkalostea girotzeko ardura Arrasate Musikaleko txarangak izango du, 18:30ean hasita, eta Bide Batez taldeak dantzaldia egingo du plazan, 19:30ean eta 22:30ean.

Martitzena ere bete dator

Aratusteetako martitzenean ere askotariko ekintzak izango dira. Ikasleen emanaldiaz gain, Txatxilipurdik disko-festa egingo du, 17:00etan, Biterin eta, ordu berean, *Txanpon baten truke* pailazo emanaldia izango da Amaian. Arrasateko Erraldoien eta Kilikien Konpartsa ere kalean ariko da, baita Samasiku txaranga ere. 21:00etan, ohi moduan, sardina-ehorzketak egingo dute plazan, eta, jarraian, Nemux taldearen disko-festa egongo da.

NIRE USTEZ



ITSASO ERRETOLATZA

'Bixau'

Feijoo jaunari zera entzun nion behin: "Hemen ikasi dut zer den *tardeo*-a".

Hain fuste gutxiokoa iruditzen zait gizon hori, ezen hitz hori entzuten dudana aldiro tripako mina egiten zaidala.

Hitz berriak sortzen dira une oro, edo espresioak, ohitura berrien azalpenerako. "Afaldu, denbora galdu", esaterako, izugarri gustatzen zait, gure garaian "kafe torero" esaten geniona azaltzeko. Nago azken jaietan "bazkaldu, denbora galdu" ere egiten hasiak ote garen... Eta siesta ere, eguerdi osteko lo-kuluxka, bazkalaurreko bilakatzen ari ote den... "artzain loa", alegia.

Hargatik jarri gara lagunok arratsaldeko parranda adierazteko hitz baten bila, eta *bixaua* atera zaigu. Hau da, egin dezagun *bixau* edo atera gaitzen *bixau*-an, eta ez *tardeo*-an.

Guretzat "tipikoa" zena "mitikoa" bilakatu da... lehenago ere egiten zenari esaten genion guk "tipiko", eta gaur, betikoa balitz bezala, mitoarekin lotzen dute gazteek, are politago eta erakargarriago eginez.

Denborak azkartu diren heinean, orain dela gutxi gertatutakoa aspaldiko sentitzen dutelako, akaso. Mitoarora ote.

VITALDENT | 35^{URTEAK}
ZURE AHOA DENA DA

**%15eko deskontua*
eta ez ordaindu apirilera arte****

ARRASATE Otalora Lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

*Promoioa 2025/01/01etik 2025/03/31ra bitartean balio duen biak berriz. Aurrekontu orantzeren arabera osoan egiaztatzen da. Beste deskontu eta promozio batzuk ere egongo dira. Kontuak 2025/01/01etik 2025/03/31ra bitartean balio duen biak berriz. Aurrekontu orantzeren arabera osoan egiaztatzen da. **Promoioa 2025/01/01etik 2025/03/31ra bitartean balio duen biak berriz. Aurrekontu orantzeren arabera osoan egiaztatzen da. *Promoioa 2025/01/01etik 2025/03/31ra bitartean balio duen biak berriz. Aurrekontu orantzeren arabera osoan egiaztatzen da. **Promoioa 2025/01/01etik 2025/03/31ra bitartean balio duen biak berriz. Aurrekontu orantzeren arabera osoan egiaztatzen da.

Musakolatik edonora, Reala animatzeko asmoz

Musakola Txuri-Urdin lagunartea sortu dute, hain zuzen, hango realzaleak elkartzeko helburuarekin; "Garbi geneukan ez genuela jokalaria bati lotutako lagunartea izan gura, Musakolari lotutakoa baizik", adierazi du lagunarteko presidente Igor Egidonek

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Dagoeneko 80 bat kide ditu iaz sortu zuten Musakola Txuri-Urdin lagunartea. Hango realzaleak elkartzeko helburuarekin sortu zuten, nahiz eta musakolarrak ez diren batzuk ere badauden taldean.

Igor Egidon presidentea azaldu duenez, lagunarteko kide izateko, realzalea izatea eta lanerako borondatea izatea dira gutxienezko baldintzak. Hori dela eta, atek zabalik dituzten arren, "kide konprometituak" behar dituztela azpimarratu dute: "Gure lehen tasuna ez da kide kopuru handia izatea, baizik eta kide konprometituak eta lanerako gogoz daudenak edukitzea. Izan ere, badago jendea sarrerak eskuratzeko bakarrik egoten dena lagunartean; hori ez dugu nahi".

Lauzabost hilabete besterik ez du lagunartea. "Izapide burokratikoekin nahiko lan izan ostean, iazko urrian sortu genuen ofizialki", dio Egidonek. Behin ofizialtasuna lortuta, partiduetarako sarrerak eskuratzeko aukera daukatela aitortu du presidentea: "Izan ere, Realak sarrerak ematen ditu lagunarteendako. Egia da batzuetan oso gutxi izaten direla, baina horiekin konformatu behar izaten dugu".

Realaren atzetik, bidea egiten Hasiberriak badira ere, ez dira geldi egon orain arte, eta dagoeneko irteera batzuk egin dituzte Realaren atzetik. Hala, Vigon, Bilbon, Iruñean eta Txekiar Errepublikan egon dira, eta "esperientzia ederrak" bizi izan dituzte. Hain zuzen, talde txikietan joan izan dira; laukoak

edo seikoak, asko jota. "Lanagatik, askok ezin dute. Beste batzuk, auzotarrak izan arren, Arrasatetik kanpo bizi dira, eta horrek ere zaildu egiten du logistika. Hala ere, saiatzen gara halako bidaiak antolatzen", azpimarratu du Egidonek. "Beti bandera eramaten dugu eta gure lagunarteari ikusgarritasuna



Lagunarteko hainbat kide, Vigon, abenduan egindako bidaietan. M.T.

Vigora egin zuten bidai abenduan

Abenduan Vigon izan ziren, Celtaren aurkako partiduan. "Oso gustura egon ginen galiziarrekin eta asteburu bikaina pasa genuen". Lana dela eta, Egidonek dioenez, askok ezin izaten dute bidaietan parte hartu, baina ondo moldatzen dira talde txikietan.



Musakola Txuri-Urdin lagunarteko zuzendaritzako kideak. MUSAKOLA TXURI-URDIN

ematen saiatzen gara, jendeak ezagutu gaitzan", gaineratu du.

Irteera gehiago ere badituzte buruan. "Errege Kopan, Real Madrilen aurka jokatu du Anoetan asteen [0-1], eta, agian, itzulerako partidua ikustera joango gara Bernabeura, nahiz eta ez dakigun zenbat sarrera egongo diren. Horrez gain, Gasteizera joango gara, Alavesen aurkakoa ikustera, eta Vallecasera ere, agian, bai. Azkenik, Manchesterera joateko aukera ere hor dago, baina ikusiko dugu".

Aurkezpena, udaberrian

Materiala lortzen ere ari dira apurka-apurka. "Banderak baditugu dagoeneko eta zain gaudela kamisetak eta bufandak noiz iritsiko. Eskatuta ditugu", dio Egidonek. Guztia prest daukatenean, inaugurazio bat egitekotan dira, baina oraindik ez dute askorik aurreratu gura izan. "Seguruenik, udaberrian izango da, baina gauza asko ditugu lotzeko oraindik. Izan ere, gurako gure Realeko jokalariren bat ekitaldi horretan

izatea, eta badakigu hori ez dela erraza izango". Alde ekonomikoaz galdetuta, zera erantzun du: "Oraingoz, kutxa moduko bat jarri dugu, kide bakoitzak 15 euro, materiala erosteko. Aurrera begira, ikusiko dugu kuota bat ezarri edo ez; gehiengoak erabakitzen duena".

Aktiboak izatea da helburua

Aktiboak izan nahi dute: "Iru-ditzen zaigu lagunarte asko daudela, baina batzuk lokartuta moduan geratzen direla. Guk ez dugu hori nahi. Asmoa da gauzak egitea eta aktiboak izatea". Halaber, emakumeak eta gazteak erakarri gura dituzte. "Zuzendaritzan emakumezkoak izan gura ditugu, eta gazteak taldean izatea ere funtsezkoa da, etorkizuna haiena baita".

GAUR-GAURKOZ, 80 BAT KIDE DIRA, ETA DIOTE, TALDEKIDE "KONPROMETITUAK" BEHAR DITUZTELA

Kirol elkarteak Euskaraldiarekin

Hainbatek egin dute bat, oraingoz, ekimenarekin: Arrasateko Rugby Taldea, Mondra, Mondrate, Ointxe!, Leintz Eskola Kirola, Arizmendi Kirol Elkartea, Arrasateko Kirol Elkartea, Arrasate Atletiko taldea, Besaide Mendizale Elkartea, Mondraitz, Arrasate Eskubaloi, Desoreka judo kluba, Dorletako Ama Txirindularitza taldea eta Arrasate Dragoi Gimnasia taldea.



EUSKARALDIA ARRASATE

Erguin auzora lekualdatuko dute ludoteka ibiltaria

Martxoko lau zapatuetan Itxaropena plazan izango da ludoteka ibiltaria, 11:30etik 13:30era. "Bihar, Aratusteak izanik, egun berezia izango dugu, zirkua egingo baitugu. Aurpegiak margotzeaz gain, malabarak, *pedaloak*, hankapaluak, diabolok, uztaiak eta bestelako material ugari izango ditugu, eta ondo pasatzeko irrikaz izango gara",

azaldu dute Txatxilipurdikoeak. "Beraz, mozorrotuta etortzera animatzen zaituztegu!".

Gainontzeko zapatuetan, goizetan, askotariko txokoak jarri eta hainbat aukera izango dituzte parte-hartzaileek sormena lantzeko, harremanak egiteko, mahai-jolasak ikasteko, norbere gaitasun eta abileziak erakusteko eta gustuko dituzten ekintzak proposatzeko. 3 eta 12 urte artekoek eta haien guraso edo arduradunek izango dute aukera parte hartzeko.

Aratusteek ez dute lekurik talde morean

SASKIBALOIA Mondragon Unibertsitateko emakumezkoen eta gizonezkoen talde nagusiek etxean jokatu dute domekan. Biak datoz joan den astean irabaztetik, biak daude sailkapenaren erdian, eta biek izango dute etzi kontrario zuzen bat aurrean

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Oraingo asteburuan MUko ordezkariak, bai LF2ko neskek, baita Hirugarren FEB mailan dauden mutilek, ez dute Aratusteez gozatzeko tarte handirik izango, domeka arratsaldean hitzordu bana dute-eta Iturripen. Gainera, bi taldeek egoera nahiko antzerakoan egingo diote aurre jardunaldiari. Batetik, David Peñaren neskek izango dira Iturripen arratsaldea berotzen hasteko ardura izango dutenak, 16:00etan hartuko dute-eta Kataluniatik datozen Romakaruma Mataro taldekoak. Arrasatekoak, joan den astean Ibaizabali irabazita (52-64), 26 puntu batu dituz-



Naroa Zabala, Maristas Corufiaren kontra, uztai azpian. IMANOL SORIANO

te, eta bederatzigarren daude sailkapenean. Bada, puntu bat gutxiagorekin, hamargarren postuan dago domekako kontrario Mataro taldea –joanekoan 68-64 gailendu ziren katalanak–.

Gizonezkoak, antzera

Gizonezkoen talde nagusia ere garaipen batekin itzuli zen joan den astean Tabirako Baqueren kantxatik (76-81); sailkapeneko azken sailkatuari ez zioten ezustekorik emateko aukerarik eman, nahiz eta etxetik kanpora ez dagoen partidu errazik. Horrek azken bi jardunaldietako porrotei buelta emateko aukera eman die, eta domekan (18:30), bi puntu gehiago dituen Los Arcos Solaresen kontra jokatu du Julen Barrocalen taldeak –joandekoan 64-49 galdu zuten arrasatearrek–.

Bestalde, nahiz eta saskibaloian Euskadiko eta Gipuzkoako maila guztietan jardunaldia normaltasunez jokatu duten, badaude ordutegiak egokitu dituzten taldeak. Esaterako, Euskal Ligako juniorrek Iturripen hartuko dute Kram taldea, gaur, egubakoitza (20:30).



lazko jaialdiaren une bat. GOIENA

BOXEOA Bi arrasatear martxoaren 7ko jaialdian

Martxoaren 7an boxeoa itzuliko da Uarkapera, Soraboxekoek jaialdia antolatuta dute eta. Gainera, Arrasateko bi boxeolari izango dira ringean: Aitzol Ovejero eta Manex Bengoa. Egunean bertan leihatilan bertan jarriko dituzte sarrerak salgai (25 euro), baina aurrez ere eros daitezke, Rumba, Taupa, Osorik eta Iluntz tabernetan (20 euro). Hamabi borrokaldi izango dira guztira.

ETXERA

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE
Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatera!

IRATI · TAUPA · ILUNTZ · BASATI
MONTE · DAT · OSORIK · HOBA

Aratusteetako ajea pasatzeko planik onena

Kamikaz kolektiboak 'Renata' antzezlanaren taularatuko du Amaia antzokian, domekan, 19:30ean. "Muturreko proposamen" horretan, Renatak hil edo biziko misioa dauka: pantailen artean desitxuratzen ari den sistema aldrebes bateko gizartea esnatzea

Hasier Larrea Herrero ARRASATE

Asteburu ezin hobea izango da honako hau *Renata* antzezlan berria aurkezteko. Irudimenak, koloreek eta erokeriak domekara arte iraungo dute Arrasaten, aretxabaletarren baimenarekin. Kamikaz Kolektiboaren azken lanak mantenduko du Aratusteetako magia bizirik, Amaia antzoki barruan bada ere.

Renata obra aurkeztera etorriko dira Amancay Gaztañaga, Erika Olaizola, Iraia Elias eta Xanti Agirrezabala aktoreak. Gizarte distopiko batera eramaten duen trama bitxi bezain muturrekoa landu dute elkarrekin: "Jessica Dindon-ek agintzen duen munduan, jendarte osoa doa norabide berean. Pantailaz bestalde bizi dira, estimuluz beteta, ikusten ez den guztia – heriotza, dolua, mina, magia... – desagertzeko arriskura eramanda. Heriotzaren erreinua bera dago larrialdi egoeran, baina bertako izakiek Renata sortzen dute, haien esperantza bakarra".

Olaizolak aipatu du hasiera-puntua, eta nola jarraituko duen azaldu du segidan: "Renataren misioa jendarte esnatzea da, behin eta berriz hiltzeko eta berpizteko dohainak lagunduta".

Pertsonaiak eta istorioa sortzeko inprobisazioa hartzen dute



Aktoreak, kolorez betetako jantziak dituzten pertsonaien paperean. KAMIKAZ KOLEKTIBOA

KONTAKETA HERIOTZA BERA DESAGERTZEAR DAGOEN ESTIMULUZ BETETAKO MUNDUAN KOKATZEN DA

oinarri, eta "jolas" horretatik lortzen dute gai sakonak umorez, "ziri eta *zaska* askorekin", taularatzea. Funtsean, helduentzako areto ikuskizuna da *Renata*, "begitik eta erraz" sartzen den antzezlan estetiko eta bisuala.

Erronka handiaren fruituak

Kamikazek "azkar batean" ekotzi izan ditu sormen-lanak hamaika urteko ibilbidean, baina hori salbuespena izan da: "Donostia Saria irabaztetik gendozen *Hiru kortse*, *azukre asko eta brandy gehiegi* lanarekin, eta horrek bultzada ekonomikoa eman zigun hurrengo proiektua epe luzeagoan planteatzeko. Bi urtez ibili gara bulego-lanak eta lan artistikoa uztartzen, eta oso pozik gaude obra berriki estreinatzeagatik eta jada hogeitazortu lotuta izateagatik".



Abesbatza nagusiko kideak, kantuan. GOIKOBALU ABESBATZA

Goikobaluk kontzertu solidarioa egingo du gaur arratsaldean

Harreman GKeri laguntzeko izango da emanaldia, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, 20:00etan hasita

H.L.H. ARRASATE

Gaur, hilak 28, ostirala, Goikobalu Abesbatzak prestatutako errepertorio zabalaz gozatzeko aukera egongo da San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, 20:00etan hasita. Emanaldia Harreman gobernuz kanpoko erakundeak antolatu du, eta, haiek adierazi dutenez, helburua "premia larriko egoerak bizi dituzten planetako eremuetako pertsonak ezagutaraztea eta laguntzea" izango da.

Hala, Goikobaluk beste urte batez egingo du bat Harremanen misioarekin, talde nagusiko, txikiko eta gazte abesbatzako kideen ekarpenaren bitartez. Horregatik, oso eskertuta daude Harremaneko kideak abeslariarekin. "Arretaz prestatutako errepertorioa" plazaratuko dute, eta, era berean, aprobetxatuko dute Harremanek Indian eta Mozambiken martxan dituen proiektuen

berri emateko: "Pertsona askori etorkizun duinagoa izaten laguntzen dietenak". Bertaratu-takoak proiektu horietan bazkide edo laguntzaile parte hartzeko gonbidatuak izango dira.

Bi proiektu hauspotzeko

Hain justu, Mozambiken, Mundukideren eskutik, nekazarien ekoizpena hobetu eta areagotzeko proiektua dute martxan, eta lanean dabilta, hango herritarren bizi-kalitatea "pixka bat" hobetzeko. Indian, ostera, harrera-etxe batean jarduten dute, familia oso pobretako 200 haur baino gehiago artatzen, eta elikadura, heziketa eta osasun arreta ematen, haurrek "etorkizun duinagoa" izan dezaten.

Hauze gogorarazi du erakundeak: "Inork ezin die guztiei lagundu, baina guztiok lagun diezaiokegu norbaiti".

Zenbat buru, hainbat jantzi


Lau aktoreen artean 30 pertsonaia baino gehiago gorpuztuko dituzte oholtzan. Nahaspila horretan, Barbara Raso arropa-diseinatzaileak "ekarpen handia" egin duela nabarmendu du Olaizolak: "Ez bakarrik jantzien aukeraketa estetikoan, baita nola jantzi eta erantzi pentsatzerakoan ere. Izan ere, une oro gabilta arropak erantzen eta jartzen".



Renata antzezlanaren une bat. K.K.

Margo taldeko bi kideren erakusketak Zumaian eta Urretxun

Matilde Sainz eta Amaia Arantzabal AMTko margolariak banakako erakusketak irekiko dituzte herritik kanpo. Sainzek Urretxun, Juan de Lizarazu aretoan, jarriko ditu haren akuarelak martxoaren 7tik 23ra. Arantzabalen koadroak, berriz, dagoeneko ikusgai daude Zumaiaiko Oxford aretoan, martxoaren 16ra arte.



Matilde Sainzen akuarela bat. M.S.



lazo mozorro lehiaketan, txurro-saltzailez mozorrotutako bi emakume, eta atzean herritarrek. GOIENA

Aratusteak hasteko, kalejira eta dantzak

Lagun Artean dantza taldeak eta Trikiakalejira trikiti taldeak emango diete ongietorria Aratusteei, gaur arratsaldean. Egun handia, baina, bihar izango da, zapatua, eta mozorro lehiaketa egingo dute. Eskolan, berriz, martitzenean mozorroto dira

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Aratusteak ate-joka daude eta Aramaion guztia prest dute herriko kaleak kolorez jantzi eta jai giroan murgiltzeko. Gaur, egubakoitza, 19:00etan ekingo diote ospakizunari. Izan ere, kalejiran aterako dira Lagun Artean dantza taldekoak eta Trikiakalejira trikiti taldekoak.

Frontoian hasita, kalejira egingo dute Bizente Goikoetxea plazaraino. Dantza taldekoen esanetan, lehenengo dantza saioa kultura etxe parean egingo dute, eta ondorengo geldialdia, berriz, plazan bertan izango da. Mozorrotuta irtengo dira, egunari kolorea jartzeko asmoarekin.

Zapatua, egun handia

Kuadrillan, taldean, binaka, banaka... era askotara ari dira prestatzen mozorroak Aramaion, bihar, zapatua, jendaurrean erakusteko. 17:30ean hasiko da kalejira, frontoian, eta 18:00etan mozorro lehiaketa eta txokolate-jana egingo dituzte plazan –

eguraldi txarra bada, frontoian izango da dena-. Lehiaketako epaileak herriko elkarteetako ordezkariak edo norbanakoak izaten dira, eta hainbat sari daude: alde batetik, talde mozorrotoa saritzen da –bi pertsona gutxienez–, eta haurren bi sari eta 14 urtetik gorakoen beste bi sari banatuko dituzte –lehenengoak 150 eurokoak eta bigarrenak 90 eurokoak–; bestetik, originaltasuna ere sarituko da, banaka edo taldeka, eta hor ere, aurrekoetan bezala, kopuru bereko bi sari banatuko dituzte. Gaia librea da eta Udaleko Kultura zinegotzi Libe Ramilak mozorrotozera bultzatu ditu herritarrek: "Jendea animatu da dila, oso jai herrikoia izaten da,

**TALDE MOZORROTUA
ETA ORIGINALTASUNA
SARITUKO DITUZTE
ZAPATUKO
LEHIAKETAN**

eta, gutxienez, mozorroto daitzela. Gero, lehiaketan parte hartu nahi badute, oso ondo. Giro bikaina egoten da".

Eguna borobiltzeko, disko-festa izango da lehiaketaren ostean.

Martitzenean, eskolan

Aramaio Herri Eskolako Inauterriak martitzenean ospatuko dituzte. *Jokoak eta jolasak* gaia aukeratu dute aurten, eta horrekin lotutako mozorroak ikusi ahalko dira. Goizean, eskolan, Haur Hezkuntzakoekin ospatuko dute jaiak, eta arratsaldean, urtero moduan, Bizente Goikoetxea plazara jaitziko dira haurrak eta gazte-
txoak, eta han taldeka eskainiko dituzte azken asteetan entseatzin ibili diren ikuskizunak.

Aratusteak amaitzeko, Inauterietako tailerra izango da ludotekan, 17:00etan. Veneziako maskarak eta Lantzeko txanoak egingo dituzte. 5 urtetik beherakoek heldu batekin lagundu-
tu joan beharko dute.

Jaietako zapietarako logoa sortzea, erantzunik botatuena

Udalak San Martin jaietako buruzko inkesta egin berri du, herritarren proposamenak jasotzeko asmoarekin

A.T.G. ARAMAIO

San Martin jaietako egitarauari buruzko inkesta egin du Udalak, eta 32 erantzun jaso ditu.

Bertan ondorioztatu dute, besteak beste, kartel lehiaketari eutsi nahi diola gehiengoak, sariak gehitzeko proposamenarekin, parte-hartzea indartzeko. Orokorrean, erromeria eta kontzertuetarako talde-proposamen ugari dituztela gaineratu dute, eta aurrekontuen eta taldeen aukeren arabera kontratatuko dituztela. Jaietako zapietarako logoa sortzea eta urtez urte era-

biltzea izan da erantzunik botatuena inkestan.

Jaietako egubakoitzeko programazioari dagokionez, txupinazoa bere horretan mantentzearen alde daude gehienak, eta pregoia emateko proposamen batzuk jaso dituzte.

Zapatuan tortilla txapelketa goizez mantentzea botatu du gehiengoak, eta arratsalderako askotariko ekintzak proposatu dira; gehienak, umeentzako.

Domekako parrillada mantentzea eskatu du gehiengoak, eta dantza-plaza programatzea.



ROSA MONDRAGON

Aramaioko Lagunkoiaren irteera

Dagoeneko laugarren ibilaldia egin du Aramaioko Lagunkoia taldeak eta, gustura elkartu dira erretiratuak paseatzeko. Jubilatuen lokalaren aurretik irteten, eta oraingoan egin duten ibilbidea hau izan da: Ibarra, Basauti, Goiko Errota, Arane, Maskariano, Ametsu eta Ibarra. Hamarretakorako tartea ere izan dute, eta gustura ibili dira.

Oinarrizko interneti buruzko ikastaroa martxoan, KZgunean

KZgunearen zerbitzuaren eskutik, ikastaro bat emango dute martxoan: *Oinarrizko Internet: nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi* ikastaroa, hain justu. Martxoaren 17tik 28ra bitartean izango da, 16:00etatik 18:00etara –hogei ordu–. Eta izena eman behar da, martxoaren 12a baino lehen, itxasokultura@gorbeialdea.eus-en.

Mus txapelketa eta afaria Alaiak jubilatuena elkartean

Datorren egubakoitzerako, martxoak 7, Alaiak jubilatuena elkartean mus txapelketa eta afaria antolatu ditu. Egunean bertan eman beharko da izena, 16:00etatik 16:15ak bitartean, elkartean, eta 20 euro ordaindu beharko ditu bikoteak. 16:30ean hasiko da. Lau sari izango dira: urdaiazpikoa, bakailao gazitua, gazta eta botila bana ardo.

Mozorro festari ekiteko osagai guztiak gertu

Leizarra musika eskolako dantza erakustaldiarekin emango diete hasiera Aratusteei gaur, eta domekan, mozorrotutako kuadrillen desfilea izango da eguneko protagonista; martitzenengan, oster, ikasleek hartuko dute lekukoa

Mirari Altube ARETXABALETA

Txapel Txinek joan den zapatuan egindako deiari erantzunez, azken ukituak ematen ari zaizkie aretxabalarrek mozorroi, domekarako prest egon daitezten. Aratusteen bueltako ekitaldiei, baina, gaur emango diete hasiera Leizarra musika eskolako kideek, Egubakoitz Argal eguneko dantza erakustaldiarekin; 18:00etan izango da, Ibarra kiroldegian.

Domekako jai giroaren sortzailer eta protagonista herritarrak izango dira. Santa Ageda neska-mutilek ekingo diete eguneko ekitaldiei, Txino dantzarekin, 11:45ean, eta ondoren, kuadrillen



Txapel Txin, Aratusteen iragartzen. J.B.

desfilea abiatuko da Araba ibilbidetik. Bazkaltzeko etenaldia egingo dute herritarrek eguerdian; 600 lagun kiroldegira joango dira eta ia beste horrenbeste pilotalekura. 17:30ean, Gesaltza txarangaren kalejira izango da, eta 18:00etan, DJ Mikeltxirekin dantzaldia Herriko Plazan. Ondoren, 18:45ean, mozorro lehiaketaren sariak banatuko dituzte, eta gero, kintoek aurtengo azken dantza saioa egingo dute. Jaia, baina, ez da bukatuko orduan, eta askok goizaldera arte jarraituko dute.

Gune Morea

Indarkeria matxistatik gabeko Aratusteen aldeko aldarrikape-

na egin du Udalak, eta ez dela inolako erasorik onartuko adierazi du. Hori horrela, Gune Morea izango da domekan, Mitarte kalean, 18:00etatik 22:00etara bitartean. Eta hainbat telefono-zenbakiren berri eman dute, edozein kasu salatzeko: Satevi, 900 84 01 11 -etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktimentzat arreta zerbitzua-; Ortzadar, 028 -LGTBI+fobiaren biktima izan diren pertsonentzat informazioa eta arreta-zerbitzua-; Ertzaintza -943 53 47 20-; eta Udaltzaingoa -943 71 18 63-.

Martitzenengan, ikasleak

Aratuste-martitzena, oster, ikasle gaztetxoek girotuko dute. Goiz partean hainbat dantza erakustaldi egingo dituzte: 10:00etan, Kurtzebarri eskolako kantxan; 10:30ean, Herriko Plazan; eta 11:00etan, Arlutzeko kantxan. 18:00etan, buruhandien kalejira izango da, Irulitxa txarangarekin batera; eta 20:00etan, Txinen hileta antzestuko dute. Ohikoa den legez, Santa Ageda neska-mutilek eramango dute zerraldia Mitarte kaletik plazaraino, eta erre egingo dute han.

Jon Plazaolaren bakarrizketa saioa martxoaren 7an


Tu-Tum, Platz! umorezko bakarrizketa saioa egingo du Jon Plazaola aktoreak martxoaren 7an, 20:00etan, Arkupen. *Stand up* formatuko ikuskizunarekin hasierako bere sorlekura, bere sehaskara itzuli da Plazaola; taula gainean lehen agerraldia egin zuenetik 23 urtetik gora pasa dira. Sarrera 6 euro da eta online eros daiteke.

'El encaje roto' eta 'Horma' lanak hizpide literatura solasaldietan

Emilia Pardo Bazan (Coruña, 1851) idazlearen *El encaje roto* liburuaren bueltan jardungo dute kontu-kontari, Monica Leiva kazetariak gidatuta, martxoaren 5ean. Euskarazko taldeak, oster, Marlene Haushofer (Austria, 1920) idazlearen *Horma* izango du hizketarako gai, Mikel Antzarekin, hilaren 13an. Biak dira liburutegian, 18:30ean.

ondo pasau!!!

aratustea 2025



EGUZKIGRAF
inprimategia

Tel.: 943 79 18 44 - 688 619 661
info@eguzkigraf.com
Industrialdea F-O-4
ARETXABALETA

Denboraldia hasteko prest UDAko bolariak

Martxoaren 15ean ekingo diote 54. Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketari, eta lehiari heltzeko gogotsu daude UDA Hirutxirlo taldeko kideak; iazko emaitzak hobetzeko asmoa izanik, egunean hasiko dituzte entrenamendu-saioak bolatokian

Mirari Altube ARETXABAETA

Ate-joka dago 54.ez datorren Gipuzkoako bola-txapelketa, eta UDA Hirutxirlo taldeko bola-jokalariek ez dute hutsik egingo. Datorren egunean ekingo die te entrenamendu-saioei, denboraldia prestatzeko.

Lau talde Gipuzkoakoan

Bola-jokorako zaletasunaren bueltan elkartutako hainbat herritarrek orain dela sei urte sortu zuten taldea, eta 2023an UDAREN familiara batu zen. Aretxabaletako jokalariekin batera Eskoriatzakoak eta Aramaiokoak ere badaude, eta arrasatearren bat edo beste ere bai. "Iaz, asko indartu zen taldea, eta, aurten baja batzuk izan baditugu ere, indartsu dago, eta denboraldiari ekiteko gertu", adierazi du Gorka Madinabeitia kideak. Aurtengo txapelketara bost lagunez osatutako lau talde aurkeztuko dituzte.

Errokarrik ez dute ezarri, baina emaitza onak eskuratzea beti da pozgarria: "Taldekako sailkapenean hiru lehenen artean gutako bat izatea ona litzateke. Eta banakako sailkapenean lehenengo hamarren artean baten bat sartzea, pozgarria". Gazte eta infantil mailetan, ostera, samurragoa izango dela dio: "Parte-hartzea txikia izaten da. Guk bi kide ditugu, eta iaz, esaterako, Axel Sixto txapelduna izan zen infantil artean".

Gipuzkoako txapelketari martxoaren 15ean ekingo diote, Sorluzeko San Andres bolatokian, eta finala ekainaren 7an izango da, Azkoitiko Floreagan. Hamai-ka saioetatik lau jokatu dira Debagoienan: martxoaren 29an, Bergaran; eta maiatzean beste hirurak: 17an, Aretxabaletan; 24an, Elgetan; eta 31n, Leintz Gatzagan. Euskal Herriko 35. Txapelketa, ostera, udazkenean iritsiko da, eta urrian eta azaroan izango dira jaurtialdiak.



UDA Hirutxirlo taldeko kideak, denboraldi berrirako gertu. UDA HIRUTXIRLO

Aretxabaletako txapelketa

Aretxabaletan jokatu diren txapelketekin ere sailkapen bat osatuko dute. Zazpi-zortzi izango dira guztira, eta lehenengoa izan zen joan den zapatukoa. Horregatik, hango irabazle Haizea

Arrieta dago sailkapenaren buruan. Puntu gehien eskuratutakoa hautatuko dute bolari onena urte bukaeran, eta 200 euro eta txapela jasoko ditu. Hurrengo txapelketa martxoaren 8an izango da, Uratz Aldek antolatuta.



Txirlo gehien botatakoak: Arano, Zelaia, Arantzabal, Arrieta eta Martino. UDA

Haizea Arrieta nagusi zapatuan

Aratusteetako bola-txapelketa jokatu zuten eta 42 jokalariren artean irabazlea Haizea Arrieta izan zen. Antolatzaileak "pozik" ziren sortutako giroarekin. Haurrek ere jokatu zuten, eta irabazleak hauek izan ziren: gazteen artean, Unai Aguado; infantiletan, Anje Herrasti.

GORA ETA BEHERA



Bost edukiontzi erreta Andramari auzoko gunean



Domeka goizaldean, 02:00etan, su eman zieten Andramariko edukiontziei; bost erre ziren, suhiltzaileek sua itzali aurretik. 2025eko urtarrilaren 1ean beste bost erre zituzten gunee berean.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

'Aluzineskak' ipuin-kontaketa egingo du Maite Frankok

Maite Franko (Irun-Hondarribia, 1971) ipuin kontalari ezagunak *Aluzineskak* izeneko saioa egingo du 4 eta 8 urte bitarteko neska-mutikoentzat, martxoaren 5ean, eguaztena; Txiki Txokoan izango da, 17:30ean. Liburutegian jaso behar da gonbidapena alde aurretik edo egunean bertan, lekua bete arte.

Bestetik, hilaren 19an, *Leer para viajar* hitzaldia egingo du Josune Murgoitio (Arrasate, 1985) idazleak; emakumeek egingo dako bidaian eta idatzitako liburuen berri emango du. Arkupean izango da, 18:00etan.

Ekitaldi bi horiek Martxoaren 8ari keinu eginez antolatu ditu Udal Liburutegiak.

'Hetero' liburua aurkeztuko du Uxue Alberdik hilaren 12an

Uxue Alberdi Estibaritz (Elgoibar, 1984) idazleak azken liburua aurkeztuko du: *Hetero*. Jabetze Eskolak gonbidatuta izango da Arkupen martxoaren 12an, eguaztena, 18:00etan. Oihana Arana Cardenal bertsolari eta idazle eskoriatzarra izango du tertuliakide.

Iaz argitaratutako liburua zortzi ipuinez osatu du Alberdik, eta horietako protagonista gehienak emakumeak dira. Gizonen gainean dihardute horiek, batez ere; gizonengan jarritako itxaropenez eta dezepzioez; unean bertan egin eta esan ez ziren kontuek; eta haiek euren gorputzetan, memoria afektiboan eta egunerokoan utzitako arrastoez.

Mus txapelketa antolatu dute Orlyn martxoaren 8rako

Hainbat tabernaren eta dendaren laguntzarekin mus txapelketa antolatu dute martxoaren 8rako. Orly tabernan jokatu da, 16:00etan hasita. Izena aurretik eman daiteke -667 84 38 00-, baita egunean bertan ere. Bikoteak 30 euro ordainduko ditu eta sariak hauek dira: txapela eta jasotako diruaren %50 irabazleentzat eta %20 txapeldunordeentzat.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel: 943 79 08 07
ARETXABAETA

525 lagun batuko dira Aratuste-bazkarian

Manuel Muñoz kiroldogian egingo den zapatuko herri-bazkarirako inoiz baino txartel gehiago saldu dira aurten. Gainera, berrikuntza gisa, pilates gela egokituko dute haurrekin jolasteko, eta kanpoan, Partxis plazan, puzgarriak izango dira

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Atzo, Eguen Gizena, hasi zituzten Eskoriatzako Aratusteak, Urdelardero Eguena ospatuta. Herriko ikastetxeetako gazte-txoek ziria eskuan zutela kalera irten ziren *Urdelardero* abestera, eta trukean gozokiak jaso zituzten. Txistor-jana izan zuten Fernando Eskoriatza plazan eta musikaz girotu zuen arratsaldea DJ Mikeltzik. Gaur, egubakoitza, berriz, Aratuste-kontzertua izango da, Beheko Errota Musika Eskolakoen bandako eskutik, Zaldibar antzokian. Jesus Urrutia zuzendariak gidatuta, 20:00etan izango da *Munduan zehar* izenpean emango duten kontzertua.



Urdelardero Eguena ospatzen. IMANOL BELOKI

Mozorro-desfile lehiaketa

Zapatuan izango da egun handia Eskoriatzan, eta herriko kaleak musikaz girotu izango dira emango diote hasiera egunari Ad Libitum txarangako kideek. Ondoren, Eskoriatzan Aratuste-zapatuko mozorro-desfilea lehiaketa egingo da, eta parte hartzeko zenbait oinarri bete beharko dira –udal webgunean ikusgai–; izena emateko, berriz, Luis Ezeizako patioan egon beharko da 12:50ean.

Desfilean parte hartuko dutenek Luis Ezeizako patioan hasi, Fernando Eskoriatza plazatik pasa eta Santa Marina plazan bukatuko dute ibilbidea. Tarte horretan, Fernando Eskoriatza plazan izango dute aukera 3-4 minutuko dantza saioa edo bes-telako ikuskizuna emateko. Epaimahaia desfilea bukatuta koan elkartuko da erabakia hartzeko, eta 18:15ean Fernando Eskoriatza plazan jakinaraziko da irabazleak nortzuk diren, eta sariak ere orduan banatuko dituzte. Azken horri dagokionez, 1.100 euro banatuko ditu Eskoriatzako Udalak: 16 urtetik gorako sailekoen artean 840 euro eta 16 urtetik beherako sailekoen artean 260 euro.

MOZORRO-DESFILE LEHIAKETA 13:00ETAN HASIKO DA, LUIS EZEIZAN, ETA SANTA MARINAN AMAITU

Aratuste-zapatua

Egitaraua

- **12:30** Ad Libitum txarangaren saioa.
- **13:00** Mozorro lehiaketaren desfilea: Luis Ezeiza-Fernando Eskoriatza plaza-Santa Marina.
- **15:00** Herri bazkaria, kiroldogian.
- **15:30** Puzgarriak, Partxis plazan.
- **16:00** Ad Libitum txaranga, kiroldogian.
- **18:15** Mozorro lehiaketaren sari-banaketa.
- **18:30-21:30** Sukar taldearen dantzaldia.

Parte-hartzea, inoizko handiena Herri-bazkaria Manuel Muñoz kiroldogian egingo da, eta, guztira, 525 lagun batuko direla adierazi du Eskoriatzako Udalak; inoizko parte-hartze handiena izango duen bazkaria izango da. Gainera, bazkalostea Ad Libitum txarangak girotuko du, eta pilates gela egokitu egingo dute, koltxonetak eta margoak jarrita, 6 urte arteko ume txikiekin egon ahal izateko. Kanpoan, berriz, Partxis plazan, zezen mekanikoa, koltxonetak eta Santa Fe trenaren egongo dira 15:30etik 19:30era bitartean –eurria bada, Joseba Inurrategi pilotalekuan jarriko dituzte–.

Autobus zerbitzuan aldaketak

Zapatuan 13:00etan mozorro-desfilea egingo denez, Luis Ezeizako patioetik Santa Marina plaza artean 13:00etatik 13:30era bitartean autobusak ez dira geratuko Gorosarri plazako geltokian, ezta Akeita albokoan ere. Bitarte horretan, Arrasaterako noranzkoan nahiz Gasteizerako noranzkoan Aranburuzabalako eta Intxaurtxuetako geltokietan bakarrik geratuko dira autobusak.



JASONE ORBEGOZO

Huhezi unibertsitatean bisitan

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean izan dira Olazar Erretiratuen Elkartekoak bisitan, bi egunetan. 63 eta 83 urte arteko 21 parte-hartzaile izan dira herriko fakultateko instalazioak bisitatzen, eta, bide batez, sare sozialez gehiago ikasteko *Mundua ehuntzeko eta ulertzeko baliabide digitalak* saioa izan dute.

GORA ETA BEHERA




Ura beltz, AHTaren lanengatik

Mazmela elizateko Induspeko AHTaren larrialdietarako egiten ari diren tunel nagusiaren alboko ebakuazio-galerietako obrako lanetatik ur zikina irteten ari dela salatu dute Eskoriatza eta Aretxabaletako bizilagunek. Zenbait egunetan ikusi ahal izan da Deba ibaia beltz.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo [688 69 00 07](tel:688690007).




Komiki tailerra izango da Olaia Benitoren eskutik

Komiki tailerra emango du Olaia Benito ilustratzaile eskoriatzarrak, bibliotekan, martxoaren 22an, 11:00etan. Tailerrean, komikiak marrazteko teknikak probatuko dituzte partaideek, eta 10 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Iraupena bi ordukoa izango da eta prezioa, berriz, bost eurokoa.

Atxorrotx Kultura Elkarteko batzarra martxoaren 8an

Urteko batzar orokorra egiteko deialdia egin die Atxorrotx Kultura Elkarteko <uzendaritzako kideek elkarteko kidei. Martxoaren 8an izango da 11:30ean, kultura etxean, eta bertaratzeko deia egin diete interesdunei. Bertan, elkartearen eta Inkernu tabernaren kontuak izango dituzte berbagai, 2025eko kultura ekitaldien berri emango dute...



Euskaraz barra-barra egitasmoarekin bat egin duten Eskoriatzako zenbait merkatari. AZK

Herriko komertzioetan, euskaraz barra-barra

'Euskaraz barra-barra (e//)' markak establezimendu horretan euskaraz egin ahal izango duela adierazten dio bezeroari. Eskoriatzan hamazazpi establezimenduk egin dute bat egitasmoarekin, eta horren berri emateko bideoa egin dute guztiek elkarrekin

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Euskaraz barra-barra Euskal Herri osoan erabiltzen den zigilua da; herritarrei establezimenduetan euskaraz hitz egiteko aukera erraztea helburu duen egitasmoa da, eta Eskoriatzan ere integratu berri dute. Hamazazpi establezimenduk hartu dute parte, oraingoz, herrian, baina interesdunek aukera dute egitasmoarekin bat egiteko.

Zabalkunderako bideoa

"Euskal Herri mailako egitasmoa da, marka bat da, zigilu bat, ez da euskararen alde dagoen komertzioa identifikatzeko; hala ere, baldintza batzuk betetzen dituen komertzioetan jarriko da zigilua. 2024. urtean Euskara Saitetik eta Garapen arloko teknikaria aritu ginen herriko establezimenduetara joaten eta egitasmoa azaltzen, iritziak jaso genituen... Eta orain, zabalkunde-fasean gaude. Horretarako, Euskaraz barra-barra ekimenarekin bat egin duten guztiekin

bideo bat egin dugu", adierazi du Mari Carmen Arrietak, Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikariak.

Ezinbesteko baldintzak

Baldintza batzuk bete beharko dituzte Euskaraz barra-barra egitasmoarekin bat egiten duten komertzioek: une oro egongo da norbait establezimendu horretan euskaraz ulertuko duena, eta bezeroak euskaraz egin ahal izango du; iruditegiko errotuluak, kartelak, oharrak eta bestelakoak euskaraz ere egongo dira, eta lehen hitza euskaraz egingo dute. "Merkatariengandik harrera ona izan du. Beharbada, askotan joan gara merkatariengana txantxangorria dela, Euskaraldiaren

'EUSKARAZ BARRA-BARRA' EGITASMOAREKIN BAT EGIN DUTENEK BIDEOA GRABATU DUTE

logoa dela... Bada marka saltsa bat, eta oraingoan azaldu diegu ez dela euskararen alde egingo duen establezimendu bat, baizik eta euskaraz egiteko aukera emango duen establezimendua".

Honako hauek dira egitasmoarekin bat egin duten Eskoriatzako establezimenduak: Aloña fruta-denda, Altuna harategia, Arkupe hortz-klinika, Azkoaga estankoa, Coviran, Eguren arrandegia, Erai osteopata, Gahir fisioterapia, Iratzarri logopedia, Ixkur ile-apaindegia, Khalma ile-apaindegia, Kimu ile-apaindegia, Kiribil ile-apaindegia, Maulanda jatetxea, O'Dogherti taberna, Pagalday harategia eta Urrestilla taberna

Herritarren erantzuna

e// ikurrarekin identifikatuta dauden establezimenduek lehenengo urratsa eginda, herritarrek animatu nahi ditu Eskoriatzako Udalak lehen hitza euskaraz egitera eta hortik aurrera ere euskaraz aritzera.

LEINTZ GATZAGA | 17

Gatzagako arkeologia ikerketak, Mertxe Urteagaren eskutik

Gaur, 18:00etan, erabilera askotariko espazioan izango da hitzaldia; ostean, luntxa izango da Toki Eder elkartean

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Toki Eder jubilatutako elkarteak antolatuta, Mertxe Urteaga Arkeologian doktorea (1985-2025) 40 urte ez dira ezer... hitzaldia egingo du gaur, 18:00etan, erabilera askotariko espazioan. Ostean, luntxa egingo dute Toki Eder elkartean.

Aurkikuntzen jakin-minez

"Mertxe da orain 40 urte Gatz Museoko arkeologia indusketak hasi zituen neska gazte hura, eta 40 urte geroago dator hitzaldia egitera. Lan asko egin du gure museoaren zein beste batzuen gainean. Irungo Oiasso museoaren zuzendaria izan zen, hango indusketak ere hark zuzendu zituen... Gurean, Erromatarren garaiko hainbat aztarna topatu zituen, dorlen kokapena eta zortzi dorlak...", adierazi du Perico Orobengoak, Toki Eder jubilatutako elkarteko kideak.

Ibilbide luze eta oparoa

Mertxe Urteaga Artigas (Lazkao, 1960) Leintz Gatzagako gatz-historiaren inguruan duela 40 urte egin zituen ikerketak gogoratzen izango da gatzagarren aurrean. Erromatar garaiko aztarnen eta gatz ekoizpenaren zimenduen aztarnak aurkitu zituen bertan, baina beste hainbat aurkikuntzatan ere aritu izan da lanean.

Erdi Aroko herrien urbanismoa ikertzen hasi zen, baina ezaguna da, batez ere, erromatartzeari buruz egin dituen ikerketengatik; Oiartzungo Arditurriko meategiak ikertu eta haiei balioa eman zien, esaterako, eta Irun hiria induskatu du Erromatar garaiko Oiaso azalarazteko. Arkeologo gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzako Ondare Historiko-Artistikoaren eta Artxiboen Zerbitzuko talde tekniko kide da.



Mertxe Urteaga, Arkeologian doktorea. CANAL EUROPA

Jolasak bazkaria eta musika Aratustek ospatzeko

Aratuste-zapaturako egitaraua prest dute gatzagarrek, eta, eguna hasteko, Gurel Guraso Elkarteko kideek antolatuta haurerentzako jolasak izango dira, 11:30ean. Ondoren, bazkaria egingo dute Toki Eder elkartean; 21 pertsona izango dira bazkaltzeko, eta oilasko erreak jango dituzte. Ondoren Humerto DJa arituko da musikaz giroten.

Txirrindularien zaindariari lore eskaintza domekan

Domeka goizean zikloturistak Dorletako Ama txirrindularien zaindariari lore-eskaintza egitera joango dira. Hala, Dorletako Amako lagunak salda jarriko dute Arlaban mendatera joaten direnen zikloturistentzat, eta, 10:00etatik aurrera eguerdira arte han izango dira Dorletako Amako lagunak zikloturistei harrera egiten.

Inauterietan, biharkoa da ospakizunik handiena

Oinarin dantza taldeak antolatuta, dantza saioa izango da bihar goizean; ondoren, Udalaren eskutik, herri bazkaria eta Sutan txaranga. Jaia, ordea, gaur lehertuko da, pailazoan ikuskizunarekin; martitzenean, mozorro jaia egingo dute Landatxopen

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Festa giroan murgilduko da herria bihar, Inauterietako ospakizun handiena izango baita, goizean goizetik hasita. Oinarin dantza taldearen eskutik, dantzari helduenek kalejira egingo dute, goizeko hamarretan hasita, herriko kaleetan zehar, eta, horretarako, alboan izango dituzte Hartza, Tximinoa eta Hezitzailea, "egun horretan egiten dituzten dantzak bezain garrantzitsuak baitira hiru pertsonaiak herriarentzat", Ion Lizarazu Oinarineko kidearen hitzetan. 12:30ean, berriz, dantza saioa izango da Herriko Plazan; eguraldi txarra eginez gero, eskolako patiora lekualdatuko dute.

Dantza taldeko gazteenek ekingo diote bihar eguerdiko saioari, eta txantxo dantza, txankarankoa, nesken makil txikiak, bertzijana, brokel dantza eta Gipuzkoako arku dantza egingo dituzte. Horrez gain, beste herriar batzuek ere, helduagoek, egingo dute dantzan: lehendabizi, Burlatako jota, eta, tradizioari uko egin gabe, sorgin dantza, ondoren; saioa amaitzeko, berriz, txulalai eta Zazpi Jauzi dantzak egingo dituzte, herritar guztiak plazara gonbidatuta. "Guztira, dantzan ehun herritar baino gehiago izatea espero dugu".

Bazkarian 253 herritar

14:30ean egingo da herri bazkaria, Trikitxotx catering-zerbitzuaren eskutik, eta 253 herritar batuko direla jakinarazi du Jone Larragañak, Kultur teknikariak; aurrez, ordea, mahaiak jartzeko, bazkarira joango direnen laguntza behar dutela nabarmendu du, eta 11:00etarako zehaztu dutela horretarako hitzordua. "Herritarrei ardura puntu bat eskatu nahi diegu bazkarirako; denon artean errazago eta azkarrago jarriko ditugu mahaiak".



2023ko Inauterietako dantza saioa, artxiboko irudi batean. GOIENA

Egitaraua, gaurtik martitzenera

Inauterietako ospakizunak gaur lehertuko dira Antzuolan.

Gaur, egubakoitza:

- **17:00** *Miru, Inauteriak bizi* ikuskizuna, Torresoroan.

Bihar, zapatua:

- **10:00** Dantzarien kalejira, Oinarinen eskutik.
- **11:00** Herri bazkarirako mahaiak jartzea.
- **12:30** Dantza saioa, Herriko Plazan.
- **14:30** Herri bazkaria, pilotalekuan.
- **18:00** Sutan txaranga, herriko kaleetan.

Martitzena:

- **18:30** Merienda eta mozorro jaia, Landatxope elkartearen.

18:00etatik 21:00etara Sutan txarangaren kalejira izango da herriaren erdigunean.

Gaur, ikuskizuna

Antzuolako Herri Eskolan gaur arratsaldean ospatuko dituzte Inauteriak, baina hasierako festa ez da irekia izango. Eskolako patioan egingo dute ondoren txokolate-jana, eta, arratsaldeko bostetan, *Miru, Inauteriak bizi* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da Torresoroan, Udalak antolatuta; horretarako, Entradium plataforman [-labur.eus/miruinauteriak-](https://www.labur.eus/miruinauteriak) daude sarrerak salgai, 5 euroren truke.

Martitzenean, mozorro jaia

Landatxope jubilatuta eta pentsiodunen elkartearen ere Inauteriak ospatuko dituzte, mozorro jaia egingo baitute datorren martitzenean, martxoaren 4an, elkartearen bertan, 18:30ean hasita. Merienda izango dute lehendabizi, eta, ondoren, ohiturei hutsik egin gabe, mozorro onenak sarrituko dituzte; horrenbestez, lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, mozorrotuta joan beharko dela jakinarazi dute elkartekideek.



Balerdi, goian, ezkerretik bigarrena; Mendizabal, behean, eskuinetik lehena. EEPF

AEBetan izan dira Mendizabal eta Balerdi pilotan jokatzeko

San Frantzisko hiriko Euskal Etxea izan dute helmuga bi pilotarietarako, Euskal Jaia ospatzen aritu baitira han

A.R.K. ANTZUOLA

AEBetan izan dira Aitor Mendizabal eta Manex Balerdi antzuolarrak, pilotan jokatzeko, Euskadiko Euskal Pilota Federazioarekin. Hilaren 12an joan ziren, eta 21ean itzuli, San Frantzisko helmugatzat izanda. "Euskal Liga irabazten duen bikoteak eta beste bi pilotarik, rankinga gogoan, saritzat jasotzen dute; kasu honetan, gure kluba, Sorraluzekoa, gelditu zen txapeladun, [Ander] Muruak eta Balerdik irabazita, eta hala izan dugu AEBetara joateko aukera", azpimarratu du Mendizabalek.

Bidaia "sekulakoa" izan dela adierazi dute bi pilotarietarako: "San Frantzisko bisitatzen egon ginen lehen bi egunetan, Euskal Etxeko gidari batekin; pribilegiatuak izan gara, ohorea izan da horrela zainduta egotea. Pilota partiduak, berriz, asteburuan jokatu genituen, Euskal Jaian". Haien hitzetan, "denetik" zegoen festa hartan, hala nola txistulariak, dantzariak eta musika, eta euskal kulturak "bizirik" jarraitzen duela azaldu dute: "Eutsi egiten diote, baita euskarari ere". Las Vegasen igaro zituzten azkeneko bi egunak.

NIRE USTEZ

PILAR ETXANIZ

Txanponaren bi aldeak

Gerra, heriotza eta gosea dira eguneroko gordina milioika pertsonarentzat. Orain, migratzaileak daude dianaren erdian. Deshumanizatu egin nahi dituzte, kontrako neurriak errazago justifikatzeko: maskotak jaten omen dituzte, "zabor hori gure kaleetatik atera behar da", "ilegal guztiak kriminalak dira", zikinak, bortxatzaileak, terrorista arriskutsuak.

Mendebaldeko debekurik gabe gabiltza. Lehen Mundu Gerran Europako boteretsuenek Afrika banatu zuten euren artean. Ez dugu mugarik oinarritzko baliabideak dituzten herrialde pobretuak ustiatzeko, eta hemengo aberastasunaren zerbitzua jartzeko. *Gure* enpresek atea irekita dituzte han eta hemen eskulana merkatuz etekinak handitzeko.

Gu ere migratzaileak izan gara, eta orain ere milaka gazte doaz lan bila beste herrialde batzuetara. Migratzaile pobretuak dira molestia. Baina zer gertatuko litzateke gure herrietan egiten duten lana utziko balute? Ezin ditugu migratzaileen eskubideak gure beharren arabera aitortu: libre ibiltzeko eta bizi hobeago baterako eskubidea dute, guk dugun eran.

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA

Berrikuntzekin dator Kantari saioaren 9. aldia

Euskal musika ardatz duen ikuskizunak iruditegi eta logotipo berria du, eta eszenografia ere guztiz berritu dute, pantailak sartuta; halaber, haurren eta gazteen artean zozketatuko den kantutegiaren barruan, hainbat abesti berri gehitu dira

Debagoieneko euskarazko ikuskizun arrakastatsuen bueltan da. Bi urtean behin egiten da, eta dagoeneko Kantari saioaren bederatzigarren aldia da. Bailarako 7 eta 12 urte bitarteko ikasleek euskal abestiak kantatu eta dantzatu ahal izango dituzte Bergaran, Aretxabaletan, Oñatin eta Arrasaten, lau edo bost laguneko taldeetan.

Dagoeneko Bergarako, Antzuolako, Elgetako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikasleak igo dira Seminarixoko eta Arkupeko oholtzetara, eta datozen asteetan, Oñatikoen, Arrasatekoen eta Aramaiokoen txanda izango da. Dena ondo bidean, Oñatikoen emanaldiak martxoaren 22an grabatuko dituzte, gaztelekuan; Arrasateko eta

Aramaioko ikasleak, berriz, Arrasateko Amaia antzokian, maiatzaren 17an.

Abesti eta dekoratu berriak

Kantari saioaren bederatzigarren aldia berrikuntzaz beteta eta indarberrituta dator. Batetik, kantu berriak estreinatuko dituzte gazteek: Bulego, En Tol Sarmiento, Huntza, Nogen eta Kai Nakai taldeen abesti berriak abestu eta dantzatu ahal izango dituzte, besteak beste.

Horretaz gain, dekoratua eta iruditegia aldatu egin ditu Kantari. Musika eta dantza oinarri dituzten telebista saioetako formatura egokitu da dekoratua, eta pantailaz osatuta dago oholtza gaineko eszenografia berria. Are gehiago, haur eta nerabeentzat erreferente diren saioen

itxura eman dio ikuskizunari lantaldeak hobekuntza horrekin. Hala, bertako proiektioek mugimendua ematen diote oholtza gainari, partaideak eszenatoki gainean emanaldia egiten ari diren bitartean.

Halaber, iruditegia ere goitik behera aldatu du. Arrosa-laranja tonalitatea hartu du iruditegiak, eta izarrak gehitu zaizkio. "Halako saioetan izarrarekin asko jokatzeko da. Azkenerako, ikuskizun honetako izarrak parte-hartzaile guztiak dira, eta haiei keinu txiki bat egin nahi izan diegu", azaldu du Kantari koordinatzaile Aitor Agirianok.

Beñat Arizabaleta aurkezle

Eta, nola ez, ikuskizuna gidatzeko, Beñat Arizabaleta aretxa-



Domekan Aretxabaletan grabatu zuten 'Kantari'.

baletarra izango da aurkezlea. Haur eta gazteendako abeslari erreferentea da Aretxabaletakoa; izan ere, ETBko *Bago!az* eta *Ztanda* saioetako agertokian ikusi dute partaide moduan. Era berean, Kantarin ere hartu zuen parte ikasle garaian, eta aurreko edizioaren bateko gonbidatu berezia izan da.

Esperientzia errepikatuko du, beste urte batez. "Niretzako plazer hutsa da musikarekin eta emanaldi munduarekin zerikusia duen zerbaitetan lan egitea", adierazi du.

Entseguetan "sekulako maila" dagoela ikusi du: "Gogo handiz etortzen dira haurrak. Azkenean, haiendako sekulako esperientzia da telebistan agertzea kantuan eta dantzan, eurek prestatutako emanaldiak egitea. Hori ikusteak asko esan nahi

du euredako. Ilusio handiarekin etortzen dira, eta hori erakusten dute entseguetan".

Saioak sarean ikusgai

Grabatutako saioen atal berri bana estreinatuko dute zapatueko Goiena telebistan, 16:00etan eta 20:30ean; ondoren, *Goiena.eus* webgunean edozein momentutan ikusteko aukera egongo da. Dagoeneko Bergarako hainbat saio daude emisioan.

Halaber, seigarren ediziotik aurrerako saio eta emanaldi guztiak ikus daitezke *Goiena.eus* atarian. Bestalde, lehen ediziotik bosgarren ediziora arteko materiala digitalizatze lanean ari da Goiena, eta laster, eduki guztia sarean egongo da ikusgai; hala, debagoienarrekin euren emanaldiak gogora ekarriko dituzte.

Goienakideen abantailak

Kantari saioa ikustera joaten diren Goienakideek *Goienakide argimakila* eskuratu ahal izango dute, doan; Goienakide ez direnek ere izango dute aukera lortzeko.

Ikuskizunaren lehen edizioetan egin zuten moduan, taldearen posterra banatuko diete, doan, Goienakideei.

Era berean, ikuskizun bakoitzaren amaieran, Goienakide egiteko aukera izango dute standera joaten diren guztiek.



Aretxabaletako talde baten posterra.

Aratusteak bertatik bertara Goienan

Goiena telebistak Debagoieneko Aratusteen jarraipena egingo du, eta martitzenean, Aratusteetako saio berezia izango da ikusgai, 20:00etan; domekan, Aretxabaletako mozorro desfilea zuzenean emitituko da Goiena telebistan eta 'Goiena.eus' atarian

Urteko jairik koloretsuenak hastear dira, eta Goienak bertatik bertara jarraituko ditu Debagoieneko herri guztietan Aratusteen bueltan egiten dituzten ospakizunak, eta ondoren, saio bereziak eskainiko ditu telebistan.

Bergarako Aratusteetako ekin-tza nagusia Bergarako Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren kontzertua da. Gaur gauean egingo dute emanaldia, *Kabaret 2.0* izenburupean, Aritzeta abesbatzarekin, Kulunka dantza taldearekin eta hainbat antzezle nahiz abeslarirekin, eta Goienako lantalde berezi bat han izango da, debagoiendarrek ikuskizuna *Goiena.eus* atarian zuzenean, *streaming* bidez, Udal Pilotalekura joan gabe jarraitu dezaten, 22:30ean hasita. Halaber, Goiena telebistan ere emitituko da, martxoaren 6an, eguena, 22:00etan.

Aretxabaletatik zuzenean

Aratusteek indarra Debagoieneko herri batean badute, hori Aretxabaletan da. Domeka goizean, martxoaren 2an, kuadrillak mozorroto eta desfilerako elkartuko dira, eta Goiena telebistak eta *Goiena.eus*-ek zuzenean eman-goto dute Aretxabaletako desfilea, 12:10ean hasita. Behin saioa



lazko Aratusteetako saio bereziko une bat, Eskoriatzan.

amaituta ere, nonahi eta noiznahi ikusteko aukera egongo da.

Hango jai-giroa ikusleei eskaintzeko, Goienako lantalde berezi bat izango da. Ohiko kamerekin eta garabiarekin grabatuko dituzte irudiak, eta Aitor Agiriano kazetaria desfilean murgilduko da, aretxabaletarrak elkarriketatu eta protagonisten bizipenak jasotzeko.

Aratusteetako saio berezia

Aretxabaletako desfileaz gain, bailarako gainontzeko herrieta-ko ospakizunetan ere ibiliko da

lantaldea, hala nola Eskoriatzako eta Arrasateko desfileetan, Aramaioko mozorro lehiaketan, Bergarako kaleetan, Antzuolako dantzetan hartzarekin, tximinoarekin eta domadorearekin eta Oñatiko dantzetan Kondearekin, Kondesarekin eta Txokolateroekin.

Horrenbestez, Aratusteetako saio berezia asteburuak emandako unerik onenekin Goiena telebistan izango da ikusgai martxoaren 4an, martitzena, 20:00etan eta 22:00etan; baita *Goiena.eus* atarian ere.



Goiena telebistaren artxibo analogikoa.

Iragana orainera dakar 'Hala bazan'-en denboraldi berriak

Denboraren makinan sartu eta duela 25 urteko Goiena telebistako irudiak berreskuratuko ditu saioak

Goienak frogatu du iraganeko irudiak eta flashbackak gustuko dituztela debagoiendarrek, eta, horrenbestez, bueltan da *Hala bazan* saioaren laugarren denboraldia. Aurreko denboraldietan, Arrasate Telebistako artxibo analogikotik berreskuratutako irudi kuriosoenekin osatu da saioa, 1990etik aurrerakoekin. Oraingoan, baina, Goiena telebistako artxiboa miatu du saio-ko lantaldeak, eta, batik bat, 2000 eta 2004. urte bitarteko irudirik eta unerik onenak ekarriko ditugu gogora atal bakoitzak apirilean, Aste Santuko oporren ostean. Prest zaude 25 urte atzera egiteko?

Askotariko gaiak

2019an hasi zen Goiena telebista *Hala bazan* emititzen, eta dagoeneko 37 atalez gozatu ahal izan dute ikus-entzuleek, hiru denboralditan, eta datozen hi-

labeteetan ere, gutxienez, beste sei programa ikus ahal izango dituzte Goienaren euskarrietan.

Gaiak ere askotarikoak izango dira. Lehenak, esaterako, mi-lurteko aldaketa jasoko du. Mende aldaketa haren bueltan sortutako zurrumurrutako gertakizunak izango dira ikusgai, besteak beste. Adibidez, gogoan duzu 2000. urteko efektua?

Hurrengo saioak, oporrei, ikastetxera bueltari eta ohitura zaharrei buruzkoak izango dira, besteak beste.

25. urteurrena gogora

Goiena Komunikazio Taldeak 25 urte betetzen dituen honetan, Goiena telebistako artxiboa arakatu du, eta, horrekin batera, urteurrenari keinua eginez, saio bakoitzean Goienaren bueltako momenturik eta datarik gogoangarrienak eroango dira pantailara.

SASOI BERRIKO SAIOAK



Kantari

- Zapatua, 16:00 eta 20:30
- Domeka, 10:00, 14:30 eta 18:30



Jaiak

- Martitzena
- 20:00 eta 22:00



Hala bazan

- Apiriletik aurrera



Ezkaratzean

- Apiriletik aurrera



Galdegaste

- Martitzena
- 20:00 eta 22:00

Datuen analisi sakona 'Datuetatik tiraka' saioan

Datuak modu ulerterraz eta entretenigarrian ematen ditu Txomin Madina kazetariak gidatutako programak

Datuetatik tiraka saioak ikusleei datuen eta estatistiken bidez tokiko intereseko gaietan sakontzen jarraitzen du, hiru aske maiztasunarekin, eguenetan.

Txomin Madinak gidatutako saioan, informazioa eta datuak modu argi eta erakargarrian jasoko dituzte, denendako ulergarri egiteko asmoz. Horretarako, datuak aurkezteaz gainera, gaiaren bueltako erreportajea, aditu bati elkarrizketa eta debagoiendarrei egindako inkestak jasotzen dira.


Urrian hasi zuen ibilbidea *Datuetatik tiraka*-ren formatu berriak, eta, ordutik, gaurkotasunari lotutako hainbat gai landu dituzte; denera, sei, hain zuzen ere: *Hiri hondakinak: gaitako bilketa*, *Sexu-transmisiozko infekzioak*, *Erligio-aniztasuna*, *Komertzioak*, *Odol-emateak* eta *atzo emititutakoa*, *Nolakoak dira gure basoak?*

'Saretzen' elkarlana

Datu-kazetaritza oinarri du EITBk eta Tokikom tokiko komunikabideen sareak elkarlanean egiten duten *Saretzen* proiektuak, eta atal hori ere *Datuetatik tiraka* saioak hartzen du bere barnean. Denboraldi honetan, etxebizitzaren gaia landu dute, eta hurrengo elkarlanaren emaitza martxoaren 27ko atalean izango da ikusgai; oraingo honetan, garraioa eta mugikortasuna izango dituzte hizpide.

Hala, martxoan saioan maiztasunak aldaketa izango du, eta bi aste behin emango dute. Hortaz, zortzigarren atala martxoaren 13an izango da, eta landuko duten gaia izango da Debagoieneko udalbatzetan onartu dituzten 2025erako aurrekontuak.

Egunetan ikus daitezke Goiena telebistan atal berriak, hiru aste behin, 20:00etan eta 22:00etan.



Saretzen egitasmoaren baitan, martxoan mugikortasunaren gaineko saioa emango da.



Hemen Debagoiena saioaren hasierako irudia.

Gertuko informazioa, eguneroko erreferentziako saioan

Bailarako azken berriei buruzko informazioa emango du astelehenetik egubakoitzera 'Hemen Debagoiena'-k

Debagoieneko aktualitatearen berri ematen duen eguneroko saioa izaten jarraituko du *Hemen Debagoiena* saioak. Azken ordukoak, gertuko albisteak eta istorioak kontatzea da haren ardatza, albiste formatuan nahiz erreportaje eran.

Tarte finkoak

Euren ibilbidea egin duten *Debagoiendarrak mundutik* eta *Luzapena* tarteek jarraituko dute saioa osatzen. *Debagoiendarrak mundutik* saioan, mundu zabalean dauden debagoiendarrak elkarrizketatuko ditu Eneko Azurmendi kazetariak; *Luzapena*-k, berriz, bailarako kirolariak izango ditu protagonista, eguenetan, Mireia Bikuñarekin. Datorren astera begira, Txileko Valparaiso hirian dauden Lexeia Rocher bergararraren eta Izaro Saiz oñatiarraren bizipenak jasoko ditu Azurmendik. Bikuñaren

kasuan, Paulo Azpiazu harri-jasotzaile bergararrarekin egongo da, haren ibilbideaz eta herri kirolei buruz berba egiteko.

Saio bakoitzaren amaieran honako pieza hauek ikusi ahal izango dira: batetik, asteburuan Debagoienean izandako emanaldi baten zati bat; bestetik, *Goitik begira*: bailarako txokoetara helduko gara drone batekin, eta beste ikuspegi batetik gozatu ahal izango dute ikusleek Debagoiena; eta, azkenik, ibarrean martxan dauden erakusketak eta asteburura begirako agenda.

Emisio ordua

Hemen Debagoiena saioa astelehenetik egubakoitzera emititzen da Goiena telebistan. Lehen emanaldia 14:30ean hasiko da. Gaurkotasunak hala eskatuta berritzen joango den saioa izango da, eta 16:30ean, 19:30ean eta 21:30ean izango da ikusgai.

Gaurkotasunari lotutako elkarrizketak 'Berbagai'-n

Besteak beste, politikariak, kulturgileak eta herri ordezkariak elkarrizketatuko ditu Goiatz Aranak

Goiatz Arana kazetariak aurkeztutako gaurkotasunari lotutako elkarrizketa saioa da *Berbagai*, eta, Goiena telebistaren udazkeneko programazioko sasoiari jarraipena emanez, udaberrikoan ere, unean uneko gai buruzko solasaldiak izango ditu gonbidatuekin Goiena telebistako platoon.

Hemen Debagoiena saioa ikusle bisten edo erreportajeen tarteetatik harago, bailarako bertako edo bailaraz kanpoko protagonistei eskainiko zaie ordu erdiko espazio tarte astero. Gaiaren arabera, elkarrizketatu bakarra edo bi izango dira platoon, eta, egunaren arabera, bi elkarrizketa ezberdin egiteko aukera ere izango du Goiatz Arana aurkezleak.

Herri ordezkariak, erakunde zein enpresetako arduradunak, politikariak, kulturgileak, ekonomialariak, irakasleak... pasako dira, astero, platotik. Datorren asteko saioan, martxoaren 5ean, *Trikitixa*, *musikako goi-mailako eskolatan espezialitate berria* gaia landuko du Goiatz Aranak Maixa Lizarribar eta Aritz Alustiza, trikitixa irakasleekin.

Eguaztenetan emango da *Berbagai*, Goiena telebistan, 20:00etan eta 22:00etan.



Hemen Debagoiena

- Astelehenetik egubakoitzera
- 14:30, 16:30, 19:30 eta 21:30



Harmailatik

- Astelehena
- 20:00 eta 22:00



Berbagai

- Eguaztena
- 20:00 eta 22:00



Datuetatik tiraka

- Eguena
- 20:00 eta 22:00



Elkarrizkettap

- Egubakoitza
- 20:00 eta 22:00

Anne Otegik gidatutako sukaldaritza-saio berria

Goiena telebistak eta Bergarako Elikaeneak sinatutako akordioari esker, 'Ezkaratzean' sukaldaritza-saioa izango da ikusgai apiriletik aurrera; Elikaeneako sukaldari Anne Otegik atal bakoitzean errezeta bat kordinatuko du, gonbidatu batekin elkarriketa egin bitartean

Goiena telebista, bere programazioaren sasoi berrian, sukaldaria sartuko da, *Ezkaratzean* saioarekin, Goiena Komunikazio Taldearen eta Bergarako Elikaenearen arteko hitzarmenari esker. Elikaenea Bergarako Oxirondo azoka gaurkotzeko egitasmoa da, eta, kalitatezko produktua erdigunean jarrita, haren helburua da kontsumitzaileen eta ekoizleen artean zubiak eraikitzea. Hala, bi eragileen norabideak batu eta elkarlanaren emaitza da proiektua. *Ezkaratzean* hitza ezezaguna suerta dakiokoe ikus-entzuleari, baina *ezkaratz* terminoaren esanahia *sukaldea* da. Hortaz, ikus-entzunezkoaren muina jasotzen du, Elikaeneako sukaldean egosiko baitira errezetak nahiz elkarriketak.

Kozinatzen elkarriketatuekin

Elikaeneako sukaldea bilakatu da grabazio-set, eta saioaren gidaria izango da Elikaeneako sukaldari Anne Otegi. Bertako eta sasoioko produktuekin egingako errezetak prestatuko ditu atal bakoitzean Otegik. Horrela, ikus-entzuleek garaiko elikagaiak zeintzuk diren ezagutuko dute, eta plater berriak prestatzen ikasteko jarraibideak izango dituzte. Alabaina, ez da bakarrik egongo, saio bakoitzean gonbi-



Anne Otegi, Bergarako Elikaenean.

datu ezberdin bat izango baitu alboan, kozinatzen laguntzeko, tertulian.

Solaskide horiek, modu batera edo bestera, elikadurarekin lotura duten profila izango dute, eta debagoiendarrak izango dira: ekoizleak, artzainak, okinak, nutrizionistak, kirolariak eta sukaldariak, besteak beste.

Hala, kozinatzen duten bitartean, Elikaeneako sukaldariak gonbidatuak elkarriketatuko ditu, esku artean duten proiektua gertuagotik ezagutzeko; baita bestelako gaiak lantzeko

ere. Errezetaren osagai nagusi diren elikagaien xehetasunak emango dituzte, horiekin lotutako osasun-arazoei buruzko informazioa eman, baita landaketari buruzko xehetasunak ere.

Apirilean emisiora

Datozen asteetan egingo dituzte lehen grabaketak, eta programazioa apirilean batuko da. Denera hamar saio izango ditu lehen denboraldiak, eta, behin Goiena telebistan emitituta, *Goiena.eus* webgunean egongo dira ikusgai.



Beloki, Aranguren eta Oñatiko Institutuko ikasleak, Oxel Arriaran abeslariarekin.

Ikasleak kazetari lanetan bideo-podcast ganberroenean

Martxoaren 11n estreinatuko da denboraldi berria, Oxel Arriaran abeslari arrasatearraren elkarriketarekin

Bideo-podcasta izaten jarraituko du *Galdegazte* denboraldi berrian. Imanol Beloki da aurkezlea, eta ordu erdiko hamar saio ekoiztuko dituzte, Debagoieneko DBH-3ko eta DBH4-ko ikasleen parte-hartzearekin. Debagoieneko Mankomunitatearekin eta eskualdeko eskolekin elkarlanean landutako proiektua da.

Hamar gonbidatu pasako dira Goiena telebistatik. Asteon hasi dira grabaketak; besteak beste, Ane Rot aktore arrasatearra, Oxel Arriaran abeslaria, Aritz Zubia *El Conquistador del Caribe* saioko finalista, Izar Bedia Ointxe!-ko saskibaloi jokalaria eta Ander Murillo *Go!azen*-eko aktorea elkarriketatuko dituzte.

Dekoratu berritzailea

Eszenografian eraldaketa apurtzailea, modernoa eta bizia izan zuen saioak, eta bide beretik jarraituko du. Gaur egungo

streamer-en estetika oinarri hartuta, led argi koloretsuek, antzina irratian erabiltzen ziren tankerako mikrofonoek eta gonbidatua, elkarriketatzaileak eta aurkezlea jasoko dituen mahaiak izango dute presentzia nagusia eszenografian.

Hala, jolasean ere arituko dira ikasleak gonbidatuekin, eta hori guztia martxan jarriko duena Maider Aranguren izango da. Hura arduratuko da joko prestatu, platoon dauden lagunei egin beharrezkoa azaldu eta partaideak xaxatuta elkarrekin jolasteaz. Kamera aurrean egongo dira Beloki eta Aranguren, baina saioaren produkzioan dabil lanean Aitor Agiriano, eta Luken Ugarteburuk errealizatuko du. Martxoaren 11n estreinatuko da *Galdegazte*-ren denboraldia: Oxel Arriaran abeslari arrasatearra elkarriketatuko dute.

Zelan ikusi
Goiena
telebista

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
943 25 05 05



Antenaz eta streaming-ez
Euskaltel eta Onaro telekomunikazio operadoreen bidez; antena bidez seinalea ere jaso daiteke Debagoienean 25. kanalean.



Nahieran 'Goiena.eus' atarian
Goiena.eus atarian ikusi ahal izango dituzu telebistako ikus-entzunezko edukiak; zuzenekoa zein norberak aukeratutako saioa nahieran.



'Goiena' aplikazioa
Goiena telebistako edukiak nahieran ikusteko aukera erraza eta eroso, klik bakarrean. Zure eskuko telefonoan edo tabletan deskargatu aplikazioa.



'Goiena' Youtuben
Ikus-entzunezkoen munduko plataformazabalduenean ere ikusi daitezke Goienako edukiak, nahieran. Saio osoak, erreportajeak, elkarriketak...

Ixotzen: lanak eginda, azken baimenaren zain

Frontoiko teilatuko lanak amaituta daude eta instalazio fotovoltaikoa martxan jartzeko lberdrolaren azken oniritzia eta haren ondotik egin beharreko azken doikuntza falta dira. 48 kontagailu konektatuko dira autokontsumo partekatuko instalaziora

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA


Konexioa egiteko prest dago Ixotzen kooperatibak 99 eguzki-plakarekin frontoiko teilatuan osatu duen instalazio fotovoltaikoa. Udalak teilatuan geruza iragazgaitz bat gehitzeko lanak egin ostean jarri dute, eta Udalarena den instalazio fotovoltaikoaren alboan dago. Ixotzen kooperatibak 46 kWp-ko instalazioa egin du eta aurreikusita dago 48 kontagailu konektatzea hara. "Bazkideek egin dituzte diru-ekarpenak eta sinatu dute autokontsumo partekatuko kontratua", azaldu du Ixotzen kooperatibako Enaitz Ezpeletak. "Iberdrolaren azken oniritziaren zain gaude. Instalazioan azken doikuntza bat egin behar da, baina haiek eguna zehazten dutenean. Eskatu diguten dokumentazio guztia bidalita dago".

Ixotzen kooperatiban ez dakite azken baimen hori noiz helduko den. Inguruko energia-komunitateekin harremanetan daude, eta esperientziak askotarikoak izan dira. Argi dutena da azken urratsetan daudela: "Dakiguna da baimen hori heltzen denean urrats gehiago egin beharko ditugula. Lehenengoa izango da kontratuak aldatzea, kontsumo partekatua onar diezaguten. Bazkide bakoitzak egin beharko du, baina modu koordinatuan egin ahaleginduko gara".

250 Wp-ko paketeak eskaini dituzte, eta guztiak daude banatuta. Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) onartutako dirulaguntza bati esker, hasiera batean aurreikusitako inbertsioaren erdia egin behar izan dute bazkideek. "Itxarotea tokatzen da orain", esan du Ezpeletak.

Teilatu berriak aztertzen

Ixotzen kooperatiban, ordea, ez daude geldirik: "Balizko beste teilatuko batzuen azterketa egiten ari gara. Nahiko genuke bigarren



Frontoiko teilatuan ipinita dauden plaka fotovoltaikoak. ANDONI GOITI

KONTRATUAK ALDATZEA ETA INSTALAZIOA ABIAN JARTZEA IZANGO DIRA HURRENGO URRATSAK

proiektu bat erdi garatuta eduki, dirulaguntza publiko berririk sortuz gero prest egoteko". Dena den, etorkizuna lotuta egongo da Udala lantzen ari den Energia Planari. "Elkarlanean ari gara, Udalaren Energia Plana lantzearekin batera landu daitekeelako Herriko Energia Plana ere. Lagunduko digu argitzen ea komeni den instalazio fotovoltaikoak egiten jarraitzea edo hobeto den beste mota bateko proiektuak bultzatzea... Aztertzeko dago".

Bi urteko ibilbidea

Bi urte pasatxo dira Ixotzen sortzeko lehen batzarrak egin zirela Elgetan. "Prozesu honetan asko ikasi dugu; bai kooperatiba baten kudeaketari buruz, bai energia kontsumoarekin lotutako gaiei buruz", azaldu du Ezpeletak. Berriki izan dira,

esaterako, Aramaion egindako hitzaldi batean. "Energia-komunitatea sortu nahi dute, eta gure esperientziaren berri ematera joateko eskatu ziguten. Egia esan, harreman estua dugu inguruko proiektuekin, eta horretan pisu handia du D2030ek sortutako Energia Puntuak".

Bestelako proiektuak

Urteko azken batzar orokorrean, Ixotzeneko kideek minieolikoen azterketa, mugikortasunarekin lotutako azterketa eta propano-arekiko dependenzia murrizteko proiektua nabarmendu zituzten. "Minieolikoen azterketaren emaitzak jaso ditugu, eta ondorioa da ez dela ekonomikoki bideragarria. Mugikortasunarekin lotutako azterketari dagokionez, D2030 egitasmoak egingo du, eta ez dugu, azkenean, parte-hartze zuzenik izango".

Propano-arekiko dependenzia jaisteko proiektuan dihardute Ixotzenen: "Bi bizikidetzakomunitatetako azterketak egin genituen hasieran, baina hirugarren batena egitea ere erabaki dugu. Aste honetan jasoko ditugu emaitzak. Ikusiko dugu zein datu ematen dizkiguten".



Pac-man jolasaz mozorrotutako gazte talde bat, iaz. GOIENA

Kokoen ostean, bestelako mozorroen txanda da orain

Eskolako umeen kalejirarekin hasiko da festa, eta txokolate-jana eta disko-festa ere izango dira ondotik

L.Z.L. ELGETA

Kokoen konpartsak iragarri zuten Aratustea aurreko zapatuan. Baserriz baserri ibili ziren eta herriko periferian dauden etxetara eta baserrietara eraman zuten festa giroa. Gaur, barikua, bestelako mozorroek hartuko dute protagonismoa, eta eskolako umeen kalejirak emango dio hasiera Aratusteari.

Eskolako zuzendaritzak jakinarazi du 15:00etan abiatuko dela kalez kaleko desfilea, eskolatik. Mozorrotuta egingo dute ibilbidea neska-mutikoei, eta plazan amaituko dute. Behin

plazan, aurreko egunetan presatutako dantzak egingo dituzte, taldeka, senitartekoan eta lagunaren aurrean.

Txokolate-jana eta disko-festa

Maala guraso elkarteak eta Udalak bat egin dute ospakizunarekin. Guraso elkarteak txokolate-jana iragarri du 16:30erako eta Udalak *Ttiki Ttaka irratia* disko-festa 17:00etarako. Biak egingo dira plazan –eguraldi txarra bada, frontoian–. Eta adi; izan ere, mozorro txikiek hasiko dute festa, baina ilundutakoan handiagoak joango dira agertzen.



ZIABOGA

'Saiatu' kantuaren bideoklipa

Unai Cantabranak atzo argitaratu zuen *Saiatu* kantu berriaren bideoklipa. Ziabogako Danel Ezpeletarekin eta Aner Olaizolarekin ekoiztua, Brainfall Studios-eko Oier Palomarekin egin ditu kantuaren masterizazioa eta nahasketa. Lehen bideoklipa da elgetarrarendako, eta pozik dago emaitzarekin. Haren sare sozial guztietan dago ikusgai.

Kolore eta mozorro festa, lehertzeko puntuan

Gaurtik martitzenera bitartean askotariko ekintzak egingo dituzte Aratusteak ospatzeko, eta gaur, esaterako, Bergarako Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako kontzertua emango dute; 'Goiena.eus' webgunean izango da ikusgai

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Aratusteak usaindu daitezke dagoeneko Bergaran, martitzenean torraden eta pellen gaineko ikastaroa egin baitzuten; eta atzo, sorgin dantzaren txanda izan zen. Bergarako Musika Eskolako 50 dantzari aritu ziren dantzan San Martin plazan, Udal Pilotalekuan eta Irala kalean, trikitilarien eta fanfarrearen laguntzarekin; guztira 80 partaide.

Halaber, gaur gauean, 22:30ean hasita, Aratusteetako kontzertua emango dute Bergarako Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak, *Kabaret 2.0* izenburupean. Bergarako Musika Bandako zuzendari Enrike Txurrukak aurreratu du emanaldirako ideiak lantzen hasi zirenean, eta proposamena atera zenean, denei gustatu zitzaizela duela urte batzuk egindako istorioa berreskuratzeko. Hala, Aritzeta Abesbatza, Debako Kulunka Dantza Taldea eta beste hainbat antzezle eta abeslari izango dituzte bidelagun; 150 lagun inguru. Lehen zatian Bergarako Musika Bandak joko du eta bigarren gainontzekoak batuko dira antzerki musikatura.

Hamabost pieza interpretatuko dituzte, hainbat estilota-

koak: klasikoak, soinu bandak, kabaret girokoak eta gaur egungoak.

Emanaldirik "ezberdinena" izan ohi da, Txurrukaren ustez, lan musikalaz gain beste hainbat lan mota eskatzen baititu. Alabaina, dio kideengan ere sortzen duela kuriositate pixka bat istorioaren, mozorroaren eta abestien bueltan.

Frontoiko lanak amaitu osteko lehen kontzertua izango da gaurkoa, eta itzultzeko irrikan daude: "Eskerrak eman nahi dizkiegu frontoitik kanpora egon garen denboran erraztasunak eman dizkigutenei; batez ere, Udalarri eta San Pedro parrokiari. Baita baldintza erosoetan ez izan arren entzutera etortzen jarraitu dutenei ere. Orain, fron-



Torraden eta pellen ikastaroa Gure Ametsan, Gorka Lobatorekin. P.U.

Ikusmina sortu du ohiko ikastaroak

Torradak eta pellak egiteko martitzeneko ikastaroan 21 lagun elkartu ziren, Gure Ametsa elkartearen, Gorka Lobato sukaldariaren gidaritzapean. Beste saio bat egingo dute, martxoaren 10ean, ikastarotik kanpo geratu diren 22 pertsonendako.



Aratusteetako kontzertuko talde-argazkia, iaz. IMANOL SORIANO

toian, teilatu berrituarekin, erosoagoak izango dira emanaldiak. Ea hurrengo pauso batean akustika hobetu daitekeen".

Ikuskizunerako azken sarrerak salgai daude, www.seminarixoa.eus webgunean, zortzi eurotan.

Pailazoak eta kalejira

Aratusteetako beste bi hitzordu garrantzitsu izango dira Porrotx, Marimotots, Lore eta Pupuren *Ostirala iritsi da!* ikuskizuna (Ikus. 27. orria), bihar, eta Bergarako Erraldoi eta Txistulari Bandaren kalejira, domekan, 18:30ean hasita.

Ikastetxeen desfileak

Herriko ikastetxeek ere ospatuko dituzte Aratusteak. Mariaren Lagundia Ikastolako eta Aranzadi Ikastolako ikasleak gaur arratsaldean aterako dira kalera; San Martin Herri Eskolakoak, berriz, martitzenean.

Hala, Mariaren Lagundia Ikastolak *Euskal mitologia* gaia aukeratu du, eta gaur arratsaldean 14:45etik 16:00etara bitartean kaleetan barrena ibiliko dira

desfilean, eta herriko hainbat puntutan dantza egingo dute: Ramon Maria Lili eta Irala kaleetan eta San Martin plazan.

Aranzadi Ikastola, berriz, urtero bezala, euskal Inauterien bueltan irtengo da kalera, 15:20an. Ikastolako jolastokian hasita, frontoia nahiz Irala kalea zeharkatuko dituzte, eta jolastokira bueltatuko dira. Bidean, hainbat dantza egingo dituzte: *Eutsi goiari ijito*, txulalai, *Akelarrean*, sorgin dantza, bolant dantza eta polonesa, besteak beste.

San Martin Herri Eskolakoek 15:00etik 16:30era bitartean ospatuko dituzte Aratusteak martitzenean, eta eskolatik irten eta herriko plazarainoko ibilbidea egingo dute, Matxiategiko ziburuetan, Iralan eta plazan geldialdiak eginda, prestatutako dantzak egiteko. Ostean, 17:30ean, erromeria izango da plazan, Gauargi taldearekin.



Egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonotik.

Tokiko entitate txiki izendapena lortzeko bidean, beste pauso bat

Angiozar Bailarako Batzarrak Demarkazio Foru Araua moldatzeko eskatu du Gipuzkoako Batzar Nagusietan

I.A.A. BERGARA

Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi politiko guztiekin bildu ziren Angiozarko Mila Elorza alkatea, Jose Angel Mikeo eta Unai Asurmendi, martitzen goizean, Demarkazio Foru Arauaren

moldaketak eskatzeko, beste behin. Azaldu dute EAJk eta PSE-EEK adierazi dietela saiatuko direla Angiozar mapan ezartzen tokiko entitatetik harago: "Eta behar diren baliabideak guri pasatzen. Gero, EH Bildu, Elkarrekin eta

PPrekin elkartu ginen, eta hirurek aurkeztu ziguten interesa gaiari heltzeko".

Hala, azpimarratu dute mahai gainean jarri zituztela baita ere Angiozarren beharrezkoak diren baliabideak: "Egun gure apustua tokiko entitatearena da, baina dekontzentrazioa izan edo bestelako baliabideak bermatuko balituzkete, gu pozik. Kontua da herriko gauza publikoak izan arren, guk guretik egiten ditugula, eta Bergarako udalak, ez oraingoa, baizik eta aurrekoak,

beti berandu edo epez kanpo ibili direla; edo ez dira iritsi".

Foru arauak Tokiko Entitate Txikiak (TET) arautzen ditu. "Indarrean dagoen Foru Arauak TETei gutxieneko 500 biztanleko kopurua eskatzen die. Angiozarrek, 2022an kopurua 250era jaisteko baldintzarekin batera, oinarritzko eta gutxieneko barne antolaketa historikoa izateko proposamena jasotzen duen foru arau moldaketa aurkeztu zuen", azaldu du Angiozar Bailarako Batzarrak; horixe da beste behin

aurkeztu dutena: "2022 hartan, alderdi politikoekin izandako elkarrizketan, alegia, informalki, EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos gure aldetaren alde agertu ziren. EAJk eta PSE-EEK, berriz, ez zutela onartuko adierazi zuten. PPK gehiago aztertu behar zuela adierazi zigun. Ea bigarren aukerak zer ematen duen".

Gehitu dute laster arauaren moldaketa egingo dutela, eta Itsaso-Ezkio TET bilakatuko dela, "150 biztanlerekin soilik" –Angiozarren 300 lagun bizi dira–.

M-8ko adierazpena onartu du udalbatzak

EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEK aurkeztu dute M-8ko adierazpen bateratua; horrekin batera, 2024ko abenduko osoko bilkuran baiezkoa eman zioten Berener-ekin lankidetzaz-hitzarmena sinatzeari, eta, horri jarraipena emanez, lau akordio onartu ditu

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Bergarako udalbatzako hiru alderdiek Martxoaren 8ko adierazpen bateratua onartu zuten, aho batez, asteleheneko osoko bilkuran. Han izan ziren EH Bilduko hamar zinegotziak eta EAJko bost ordezkari, baina alderdi sozialistako Alberto Alonso ez zen bilkuran izan.

Adierazpenean bat egin zuten Bejingo Adierazpena eta Ekin-tza Plataforma adopzioaren 30. urteurreneko ospakizunarekin. Jaso dute azken hiru hamarkadetan aurrerapauso garrantzitsuak eman direla, baina oraindik ez dela lortu genero-berdintasunik munduko herrialde bakar batean ere. Berdintasunerako bide horretan, Bergarako udalbatzak hamaika konpromiso hartu ditu.

Maite Usabiaga EH Bilduko bozeramaileak adierazi zuen "governantza feminista baten ikuspegitik" arreta handiagoa jarri behar zaiela egiteko moduei, zeharkakotasunean lanketa gehiago eginez.

EAJko bozeramaile Mikel Leteren esanetan, berdintasuna lortzeko pauso asko eman badira ere lan handia dagoela egiteko oraindik: "Guk nahi genuena da berdintasun arloan, alderdi bezala, feminismoarekiko eta ber-



Asteleheneko osoko bilkura. I.A.A.

dintasunarekiko gure konpromiso indartzea eta adieraztea".

Berener-ekin hitzarmena

2024ko abenduko osoko bilkuran onartutako Berenerrekiko lankidetzaz-hitzarmenari jarraipena emanez, lau akordio onartu zituzten astelehenean; horiek ere, aho batez. Batetik, Bergarako Udalak bazkide-laguntzaile gisa parte hartzeko kontratua; bestetik, lankidetzarako akordio-markoa; ondoren, 2025-2027ko elkarlan-hitzarmena; eta, azkenik, San Martin ikastetxeko

teilatuen lagapena autokontsumo partekaturako energia sortzeko plaka fotovoltaikoak jartzeko. Bi alderdiak pozik agertu ziren lortutako akordioarekin, hilabeteetako elkarlanak fruituak eman dituelako eta abenduan onartutako konpromisoak berretsi dituztelako.

"Berenerrekin lortu dugu elkarlanerako oinarriak zehaztea, ahalbideratuko dutenak epe luzean trantsizio sozioekologikoak dakartzan erronkei modu publiko-komunitarioan erantzutea", azaldu zuen Usabiagak.



Prozesu herritarren aurkezpenean parte hartu zuten eragileak.

Mahai-ingurua eta gogoeta-saioak

Bergarako mugimendu feministaren aldarri historiko bati erantzunez, bidean da Bergarako Emakumeen Txokoaren irekitzea. Arrizuriaga jauregiaren bigarren solairuan egokituko den txokoari forma ematen hasteko herritarrekin partekatuko duen prozesua aurkeztu du Udalak: mahai-inguru bat eta bost gogoeta-saio egingo dituzte. Alde batetik, Emakumeen Txokoak duen garrantzia eta funtzioa herritarrei helarazteko mahai-ingurua egingo dute martxoaren 13an, 18:00etan, Seminarixuan. Euskal Herriko emakumeen etxeetako hainbat esperientzia partekatuko dituzte, protagonisten esperientziatik abiatuta.

Ostean egingo dituzte bost gogoeta-saioak, irailera bitartean. Bergarako emakumeekin eta mugimendu feministarekin lanketa egingo dute, espazioaren funtzioak eta zerbitzuak definitzeko. Emakumeen ahalduzko sustatzeko eta kolektiboen beharrei erantzuteko gunea izatea da helburua. Lanketa-saio horietan Elhuyar Kooperatibako kideak izango dituzte bidelagun. "Emakumeen Etxearen proiektua Bergarako errealitatera egokitzen saiatzea eta Bergarako emakumeen eta feministen beharretara ahalik eta ondoen doitzea izango da gure betebeharra", esan du Elhuyarko kide Joxepa Bornaetxeak.

2026rako irekitzea aurreikusten dute

Hasierako bi fase horien ostean etorriko dira beste biak. Hirugarrena proba fasea izango da, zeinetan emakumeek eta mugimendu feministako kideek aukera izango duten espazioak benetan nola funtzionatu behar duen ikusteko. Era berean, beharrezko egokitzapenak egiteko tartea izango da. Azken fasea irekiera izango da; 2026rako aurreikusten dute. "Emakumeen Txokoa mugimendu feministaren indartzea eta berdintasunaren aldeko politikak garatzeko ezinbesteko tresna izango da", azpimarratu du Ainhoa Lete zinegotziak.



IMANOL SORIANO

Euskaraldiko hamaikakoa

Otsailaren 21ean aurkeztu zuten Bergarako Euskaraldiko hamaikakoa, eta herritar hauek osatuko dute: Naiara Alonso, Andere Larrañaga, Arantza Gardoki, Eñaut Uriarte, Oier Garitano, Rose Marie Ledesma eta Nekane Muñoz izango dira *ahobizi*; Javier Casanellas, Luis Salazar *Chicho*, Paloma Carrillo eta Yves Roos, berriz, *belarriprest*.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurritan
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarteuroztegia.com



Lokatza Ziklismo Eskolaren denboraldi berriko talde-argazkia. AMAIA TXINTXURRETA

55 txirrindulari prest denboraldia hasteko

Lokatza Ziklismo Eskolak denboraldi honetan lehiatuko diren txirrindulariak aurkeztu ditu, eta iazkoa baino kopuru handiagoa da, 55 izango baitira; orain arte, denboraldiaurrea prestatzen aritu dira, eta martxoan ekingo diete lehen lasterketei

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
55 txirrindularik osatuko dute Lokatza Ziklismo Eskolaren denboraldi berria, eta joan den egubakoitzean aurkeztu zituzten taldeak, San Martin Herri Eskolako patioan. Eskolarteko mailan –benjamin, alebin eta infantiletan– 28 txirrindulari lehiatuko dira; kadete mutiletan, hamar gazte mailako taldea Elgoibarko klubak lagunduko du, eta bertan izango dira bost txirrindulari; nesken taldean, berriz, hamar izango dira, eta afizionatu mailan bi arituko dira.

Denboraldiaurrea prestatzen jardun dute, eta Lokatzako presidente Ion Unamunok aurkezpenean adierazi zuen orain artekoa "gogorra" izan bada ere gogotsu daudela lasterketak hasteko. Denboraldiari hasiera mar-

txoaren 8an emango diote eskolartekoek, Aretxabaletan.

Eskola da helburua

Lokatza Ziklismo Eskolaren helburu nagusiari buruz galdetuta, Unamunok azpimarratu zuen ziklismo eskola direla, eta, horregatik, eskola moduan nahi dutela umeek eta gazteek jakitea zer den txirrindularitza, hainbat alderditatik; aintzat hartuz elkartasuna izatea, taldekideei laguntzea, esfortzua, ondo pasatzea, jende eta leku berriak ezagutzea eta entrenatzaileak esandakoari kasu egitea.

Bergarako lasterketak

Lokatzak dagoeneko antolatuta ditu etxean egingo dituzten txapelketak. Martxoan egingo direnak dira San Martzialeko

Igoera emakumeendako, bi aste barru, martxoaren 14an, eta martxoaren 15ean, berriz, eskolartekoen lasterketa Labegaraletan.

Hala, martxoaren 30ean izango da Gorlako Igoeraren 50. edizioa, eta ibilbideak aldaketa izango du, Asentzioko igoera gehitu baitute Gorlako azken igoeraren aurretik. Gainera, iaz bezala, zuzenean jarraitu ahal izango da lasterketa.

Lokatzaren 50. urteurrena

Datorren urtean Lokatzak 50 urte beteko ditu, eta Unamunok eskerrak eman dizkie urte hauetan alboan izan dituzten guztiei. Halaber, gogoan izan zuen duela gutxi zendutako Juan Mari Arantzabal, eta urteetan "kolaboratzaile fina" izan dela esan.

NIRE USTEZ



MAMADOU SARR

Ongi etorri

Otsailaren 15ean Bergarako Udalak pertsona iritsi berriei egindako ongietorria ekimen baliotsua da, inklusioa eta elkar ulertzea sustatzeko lehen pausoa izan daitekeelako. Herri honetan 17 urte daramatzen gizon migratzailea naizen aldetik, esan dezaket horrelako ekintzak funtsezkoak direla elkar-ezagutza eta loturak sustatzeko. Ekitaldian etorri berrien integrazioaren alde borondatea erakusten duten erakunde desberdinek hartu genuen parte.

Hala ere, faltan igartzen dut beste herrialde batzuetatik Bergarara iristen direnen errealitateari buruzko hausnarketa. Kultura- eta hizkuntza-integrazioa funtsezkoa den arren, askotan, migratzaileei egokitzeko eskatzen zaie, beraien testuinguruak, zailtasunak eta beharrak ulertzeko ahalegin bera eskaini gabe. Horregatik, ongietorri-ekintzez gain, funtsezkoa da herritar guztiak migratzaileek dituzten erronkez jabetzea, eta kolektiboki borrokatzea aukera-berdintasunaren alde eta gizarte bidezkoago eta inklusiboago baten alde. Horrela bakarrik lortuko dugu benetako integrazioa.

GORA ETA BEHERA



Hondakinak edukiontzietatik kanpo eta lurtean utzita



Herritar batek salatu du hainbat gunetan gertatzen dela domekan Irizar kalean topatu zuen egoera: "Zaborra noiz eta zelan jasotzen da? Herritarrek arduraz jokatzen dute? Agintariek ze ardura dute?".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

OHARRAK

Amatasunari buruzko hitzaldia


Amatasunaren emozio eta bizipenak hitzaldia egingo dute Unai Serrano psikologoak eta Saray Cano pedagogoak gaur, 18:00etan, Irizar jauregian.

Ana Goitiaren bakarrizketa

Jabekuntza Eskolako egitarauari hasiera emango dio Goitiaren *Katana* bakarrizketak, eguenean, 20:00etan, Seminarixuan.


Sukaldaritza lehiaketa DBHko ikasleendako

Jardunek *Gaztetxef* taldekako lehiaketa antolatu du, eta izena eman daiteke martxoaren 16ra arte. Informazio gehiago: labur.eus/oYKHb webgunean.




LIER ARANGUREN KADETE MAILAKO TXIRRINDULARIA

"Denboraldi hasieran zer moduz nabilen ikusi nahi dut: lortzen ditudan postuak, egiten ditudan hobekuntzak... Hori ikusita joango nahiz helburuak jartzen".



ITSASO ASKASIBAR KADETE MAILAKO TXIRRINDULARIA

"Aurtengo erronkak dira iazko zenbakiak hobetzea, hobeto sentitzea tropelean eta ahal den guztian gehiago jolastea tropelarekin".



ARATZ LARRAÑAGA KADETE MAILAKO TXIRRINDULARIA

"Helburuak dira lasterketak bukatzea eta ahalik eta eroriko gutxien edukitzea. Ondoren, taldearekin ondo konpontzea eta talde ona sortzea".

Aroztegi artelanez bete dute, gaia zehaztu barik

Martxoaren 8aren bueltan herriko artista talde batek antolatu ohi duen erakusketa irekiko dute gaur Aroztegin, eta martxoaren 9ra arte bisitatu ahalko da. Bederatzigarrena da aurtengoa, gai zehatz barik datorrena eta 26 emakumeren lanak erakutsiko dituen

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Martxoaren 8aren bueltan antolatzen diren ekitaldien barruan, dagoeneko ohiko bihurtu da herriko emakume artisten erakusketa. Bederatzigarrena izango da aurtengoa; gaur irekiko dute eta martxoaren 9ra arte egongo da ikusgai, Aroztegin.

Aurtengo erakusketaren bereizgarrietako bat da ez dutela gai baten bueltan antolatu. "Bederatzi urtez jarraian gai baten bueltan mugitu dira gure arte-lanak, baina aurren erabaki dugu gairik ez zehaztea, nor bere artelana libre erakustea. 2026koa, gainera, hamargarren erakusketa izango da, eta suposatzen dut zerbait berezia egingo dugula", adierazi du erakusketako artisten artean dagoen Justina Elexpuruk.

26 artistaren lanak aurren

Aurren, herriko 26 artista animatu dira euren lanak Aroztegin erakustera; honako hauek: Ainhoa Martin, Alicia Garcia, Ana Abajo, Arantzazu Arregi, Cecilia Dulanto, Idoia Azkarate, Idoia Etxarri, Itziar Murgizu, Jone Telleria, Julia Otaegi, Justina Elexpuru, Kontxi Idigoras, Lierni Narbaiza, Maialen Lopez, Maite Azkargorta, Maitena Arana, Mari Karmen Laskurain, Mari Paz Alustiza, Mari San Vicente, Marikruz Andueza, Mariñe Jauregi, Mireia Gonzalez, Marilu Unzurrunzaga, Mayra Jimenez, Nerea Kerejeta, Selena Lizarzaburu eta Usoa Mendikute.

Antolaketa, "oso naturala"

Erakusketa nola antolatu ohi duten galdetuta, Elexpuruk dio "oso modu naturalean" funtzionatzen dutela: "Ateak erabat zabalik ditugu, baina ez dugu deialdi publikorik egiten. Ez gara kolektibo edo elkarte bat, ez dugu egoitzarrik. Bere garaian, Whatsappeko talde bat sortu genuen,



Taldeko artistetako batzuk Aroztegin, iazko erakusketaren irekieran. GOIENA

eta, kuriozoso izan daiteke, baina talde horretatik antolatzen dugu guztia. Egongo dira emakume artista gehiago herrian; hurrengo urtean ea saiakera bat egiten dugun ahalik eta artista gehien erakartzeko". Erakusketan pintura da nagusi, eta, margolanen artean, akrilikoak, olioak eta akuarelak ikusi ahalko ditu bisitariak. Horrez gain, besteak beste, zeramika-lanek eta argazkilaritzak ere izango dute tokia erakusketan.

Irekiera-aurrezpen xumea gaur

Gaur irekiko dute erakusketa, 19:00 aldera egingo duten aurrezpen txiki batekin. "Irekiera-ekitaldia xumea izango da. Sarrera txiki bat egingo dugu, eta, ondoren, luntxa egongo da. Beraz, ez dago aitzakiarik etortzeko. Duela bederatzi urte erabaki genuen herriko emakumeak bakarrik elkartzea erakusketa bat antolatzeko, Beart-ez edo beste elkarteek harago, eta orduan harritu gintuen ikusteak zenbat emakume ari ziren margotzen edo beste diziplina batzuetan. Gonbidapena egiten diegu herrikideei datozen bi asteotan Aroztegitik pasatu daitezen".

Hurrengo kontzertuak iragarri ditu Oztoporik Ez kolektiboak

Kartzela zaharraren bueltan jaio zen, 2024ko uztailean, Oztoporik Ez kolektiboa, eskaintza komertzialek kanpoko kultura ekintzak *Zuk zeuk egizu* filosofia oinarri hartuta sortzeko. Orain, martxorako, apirilera eta maiatzerako kontzertuen berri eman dute, mezu hau dakarren kartelarekin: "Politika ez da diskurtsoetan egiten, baizik eta

egunero hartzen ditugun erabaki txiki eta ez hain txikietan. Kulturarekin merkataritza egiten dutenei bizkarra eman... *Do it yourself*".

Atzo, Calzados Deportivo eta Manual de Combate taldeek joutzen, eta hurrengo kontzertuen berri eman dute: martxoaren 5ean, Maraudeur eta Meison taldeak izango dira; martxoaren 22an, Metralleta eta Uther; apirilaren 11n, Wotr It eta Stigma; eta maiatzaren 23an, Sal Del Coche eta Los Sara Fontan.

Sarrerak salgai La Furia Seminarixoa aretoan ikusteko

Nerea Loron *La Furia*-k kontzertua emango du martxoaren 7an Seminarixoa (21:30); sarrerak salgai daude, zortzi eurotan, *seminarixoa.eus*-en. Bere bosgarren diskoa den *Ultra*-rekin izango da La Furia, identitatez, ez-lekuez, bisexualitateaz, Euskal Herriaz, musikaren industriaz, desiraz, beldurrez eta desioez berba egiteko, besteak beste.

'Ostirala iritsi da!' ikuskizunerako azken sarrerak salgai

Umeek Aratuste giroan are gehiago murgiltzeko moduko plana izango dute bihar, martxoak 1 (Ikus 24. orria). Izan ere, Porrotx, Marimotots, Lore eta Pupuren *Ostirala iritsi da!* ikuskizunaz gozatu ahalko dute udal pilotalekuan (18:00). Sarrerak salgai daude oraindik, sei eurotan, *seminarixoa.eus*-en. Ikuskizunak 70 minutu iraungo du.



DEBAGOIENKO PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABAETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Kale Zaharretik Kasablankarainoko tartea aztertu zuen herritar taldea. NAGUSIEN MAHAIA

Arrapala falta eta koskak, irismenerako oztopo

Nagusien Mahaiak deituta, beste ibilaldi bat egin dute, herrian irisgarritasunean dauden gabeziak identifikatzeko. Jasotako informazioarekin txostena egingo dute orain, argazkiekin osatuta, eta Udalarari eman, kontuan hartu eta konpondu ditzan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Nagusien Mahaiak beste ibilaldi bat egin du aste honetan, herrian irisgarriak ez diren puntuak identifikatu eta txostena Udalarari bidaltzeko, gabezia horiek konpondu ditzan. San Lorentzo eta Olakua auzoak eta Kale Zaharretik Kasablankarainoko tartea aztertu dituzte oraingoan; espaloi estuak, arrapala faltak eta konpondu beharreko koskak dira apuntatu dituzten eginbeharreko gehienak.

Argazkiekin eta datuekin

Goizean plazan elkartu eta bi taldetan banatu ziren Nagusien Mahaiak egindako deialdiari erantzun zioten herritarrek. San Lorentzo eta Olakua aldera joan ziren batzuk eta plazan behara beste batzuk. "Txosten batean jaso ditugu ikusitako gabeziak, argazki eta guzti. Adibidez, Kale Zaharrean, Mauka jatetxea dagoen alde horretan, espaloi horrek ez du arrapalarik amaieran, koska baizik, eta alde ho-

rretan errepidetik joan behar izaten dugu aulki gurgildunean gaudenok. Besteendako ere, hala ere, espaloi batzuk oso estuak direla ikusi dugu. Gainera, toki askotan koskak ere badaude, pertsona nagusiak batez ere estropezu egiteko moduan, eta horiek ere identifikatu ditugu. Baita denda eta tabernetarako sarrera ez-egokituak ere", dio Nagusien Mahaiko kide Isabel Rebollok.

Joan den urtean herrigunea aztertu zuten. Orduan jasotakoak ere Udalarari pasa zizkioten, baina oraindik ez dutela ezer konpondu gaineratu du Rebollok: "Oso astiro doaz kontu hauek. San Lorentzon eta Olakuan, esaterako, ari dira lanak egiten

JASOTAKO GABEZIA-PUNTUEN JARRAIPENA EGINGO DU ORAIN NAGUSIEN MAHAIK

azken urteetan, zatika, baina horrelako proiektu bat egiteak denbora eskatzen du, eta, bitartean, nekez konpontzen dira. Hilerrira joatea eta barruan ibiltzea ere zaila da; aspaldiko eskaera da horri irtenbidea jartzeari. Orain, azken bi irteeretan identifikatutako puntu horiei egingo diegu jarraipena".

Kasuan kasu

Udal ordezkariekin bilera egin da, eskura ematen diete txostena. "Aurrekoan, adibidez, banku batzuen falta eta beste batzuen altuera desegokia zeuden kexen artean, eta horiek ere jaso ditugu dagokion sailean. Irisgarritasunari begira, hirigintzatik, ikusten dugu ea beste plan baten barruan dauden edo ez, eta, izatekotan, zein aurreikuspen dagoen lan horiek egiteko. Beste kasu batzuetan, Udaleko brigadako langileek egiteko modukoak izaten dira, eta horrela bideratzen ditugu", azaldu du Hirigintzako batzordeburu Iñigo Ruizek.

Merkaturatzailearen proiektuan "gardentasuna" eskatu du EAJk

Energia-merkaturatzaile proiektua egoki ikusten du alderdi jeltzaleak, baina "parte-hartze handiagoa" eskatu du

O.E.G. OÑATI

Alderdi jeltzaleak adierazi du "begi onez" ikusten duela "udalerrian sortutako energia oñatiarrak zuzenean kontsumitu ahal izatea helburu duen tokiko energiaren merkaturatze-proiektua". Hala ere, uste du proiektuak ez duela "behar besteko parte-hartzerik eta gardentasunik" izan.

Puntuak argitzeko eskaera

Proiektua "1989an jeltzaleek bultzatutako bidearen bilakaera logikoa" dela esan dute jeltzaleek, eta aurrerapauso moduan uleratu. Baina, "arrakasta izan dezan", puntu hauek argitzea "funtsezkoa" dela uste dute: nola bermatuko den energia hornidura egonkor eta lehiakorra, merkaturatutako energia %100 berriztagarria izango dela ziurtatzea eta Oñatiko Udalak urtero dibienduetan jasoko duen diru

kopuruak nola eragingo dien Udalaren diru-sarrerei. Jeltzaleek gaineratu dute proiektuak "gardena" izan behar duela ondo funtziona dezan. "Udal taldeak ekimenaren berri behin erabakiak hartuta zeudenean eta beste eragileek diseinu erabakietan parte hartzeko aukerarik izan gabe ematea" kritikatu du. "Proiektuak babes eta arrakasta handiena izan dezan, funtsezkoa da prozesu ireki eta parte-hartzailea izatea".

Jeltzaleen udal bozeramaile Amaia Erostarbek alderdiak bidalitako prentsa-oharrean dio bertako energiaren onurak bertako izatea gura dutela: "Oñatin sortutako energiak oñatiarrei eta bertako enpresei onura ekartzeari nahi dugu. Eredu iraunkor, eraginkor eta ondo planifikatua nahi dugu, etorkizunerako bermeekin".

Euskaraldia Hika egitasmoarekin bat egin du Oñatik

Euskaraldia Hika bultzatzen ari da ZirHika taldea, Tauparekin batera, eta egitasmo horretara batzeko dei egin diete bertako kideek herriei. Oñatik baietz erantzun dio, egitasmoarekin bat egin du, eta egitasmoa kide izanda txapan *H-a* eramatea aukeratu ahal izango dute Euskaraldian izena ematen duten herritarrek.

ZirHika taldea hitanoa -berezi, noka- biziberritzeko sortutako taldea da, euskararen normalizaziorako. 2023ko azaroan Oñatin egin zuten Euskal Herriko I. Hika Topaketan sortu zen, eta hainbat erroka jarri ditu hitanoa zabaltzeko saiakerak aurrera eramateko. Hika Euskaraldian txertatzea izan da bat. Hala, izena ematerakoan, oñatiarrek aukeratu dute *H-a* eraman edo ez. *Nahi baduzu, nirekin hika egin dezakezu.* Hori adieraziko du *H-a* k.

Geopolitikaz egingo dute berba martitzenean

Liluraren kontra. Trantsizio geopolitikoaren argi-ilunak liburua aurkeztuko dute datorren astean, Oñatiko EH Bilduk antolatuta. Martin Arbeo da liburuaren egilea, eta hura egongo da ekitaldian; solasaldia egingo dute liburuaren aurkezpenaren ostean. Martitzenean izango da, martxoak 5, 18:30ean, kultura etxean.

Zapatu goizean egingo dute aurtengo zuhaitz azoka

Bihar, zapatua, izango da zuhaitz azoka. Natur Eskolak antolatuta, zuhaitz-landareen eta beste-lako landareen postuak eta mintegiak egingo dira plazan, 09:30etik 13:30era. Bestalde, kultura etxean dagoen eta Ingurumen Jardunaldien barruan sartzen den *Txoriak txori* erakusketa ikusteko azken eguna domeka izango da, hilak 2.



Atzo, eguna, egin zen Oñatiko Inauteri Txikiko ospakizuna. GOIENA

300 bat lagun biharko Inauterietako konpartsan

Martitzenera arte iraungo dute Inauteriek, ospakizunak kalean, frontoian, ikastetxeetan zein erretiratuen elkarteetan eginda. Berritasuna gaur Santa Anan egingo den hitzaldia izango da: Kantabriako maskaradako partaideak egongo dira, 19:00etan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Eguen Gizen egunean izan ohi da Oñatiko Inauteri Txikia, eta zapatuan handia. Eta aurten ere horrelaxe jaso dute Inauterietako egitarauan. Horrela, bihar, zapatua, egun osoko festa izango da Oñatin, Oñatiko Inauterietako taldeko kideek antolatutako ospakizunarekin.

300 bat lagun konpartsan

Urtarrilean hasi zituzten entseguak, Eltzian, eta bihar, 300 bat lagun irtengo dira kalera Inauterietako konpartsan: 28 musikari, 51 pertsonaia eta 220 bat dantzari. Goizean zein arratsaldean ibiliko dira kalez kale dantzari, bazkaltzeko atsedean hartuta, eta iluntzean, 20:00etan, emango diote amaiera egunari, plazan. Oñatz dantza taldeko dantzariak, bestalde, bolant dantzak egingo dituzte, ohitura duten moduan, Aratusteetako domekan. Aurten, gainera, hitzaldi bat ere antolatu dute; bihar, egubakoitza, izango da hori, eta

Kantabriako Silio herriko hiruzpalau lagun etorriko dira *La Vinajera* izena duen euren maskaradei buruz berba egitera; Santa Anan izango da hitzaldia, 19:00etan.

Txokolate solidarioa plazan

Astelehenean atsedean hartuta, martitzenean izango dute jarraipena Aratusteek. *Marietak zirkus* antzerki-zirkua ikuskizuna egongo da, esaterako, Zubikoa pilotalekuan, txikiendako, 17:00etan. Bi iloba eta euren izeba ikusiko dituzte umek taula gainean, ilobak txikiak zirenean zaintzen zituen izeba, eta planik eroenak asmatzen zituena. Familian ikusteko moduko ikuskizuna izango da. Sa-

**MARTITZEN
ARRATSALDEAN
TXIKIENDA
ANTZERKI-ZIRKUA
EGONGO DA ZUBIKOAN**

rrera hiru euro da, eta urtebete baino gutxiagoko haurrek gonbidapena beharko dute. Ordu bete geroago, 18:00etan, txokolate solidarioa banatuko du parrokiako misio taldeak. Biltutako dirua Dhagguel (Ginea-Konakry) herrian dagoen Onati ikastetxearen alde izango da. Gainera, erraldoiak eta buruhandiak ibiliko dira erdiguneko kaleetan zehar, eta gaztelekuan mozzorro lehiaketa egingo dute arratsaldean.

Erretiratu elkarteetan ere bai

Ikastetxeetan ere ospatuko dituzte Inauterietako, eta erretiratuen elkarteetan ere prestatu dituzte egitarauak jai horiek ospatzeko. Pake Leku elkartearen txistorra jan eta bingoan aritzekoak ziren atzo, Eguen Gizen egunean. Lagun Lekun, berriz, sasoi honetako jakiak jango dituzte martitzenean: pellak, torradak eta txorizoa. Denetarik jateko eta edateko aukera egongo da, bost euroren truke, 19:00etan.

NIRE USTEZ

MIKEL ABERASTURI

Baskenland

Alemaniarren eta Euskadiren arteko alderaketak ez dira gutxi. Gure izaera industrialak, ongizate-estatuaren defentsak, bizi-kalitateak, egonkortasun politikoak eta abarrek Euskadi *Alemania txiki* moduko bat bezala ikustea eragin dute askotan.

Azken igande honetan izan dira Alemaniako Bundestagerako hauteskundeak, eta, azken hamarkadetan eskuin muturraren indar hutsalaren eta gainerako alderdiek gogor borrokatu ostean, azken horrek botoen %20 baino gehiago lortu ditu. Bost boto-emailetik bat, %80tik gorako parte-hartze errekorrekin.

Moderazio politikoa ez da betierekoa. Zaindu egin behar da, hezkuntzaren, kontzientziazioaren eta datuen erabilera zintzoaren bidez. Alemaniako adibidearekin ikusi den bezala, ez da ezinezkoa itxuraz moderatua den herrialde bat dinamika populistetan berriz erortzea. Adibidea eman dezagun nazioarteko –eta ez hain nazioarteko– politikaren marea urdurien aurrean.



PAGO USO

Urzelai, Filosofia Olinpiadetara

Elkar Hezi ikastetxeko Eider Urzelai Arietaleanizbeaskoa ikasle oñatiarrak ordezkatzeko du Euskal Autonomia Erkidegoa martxoaren amaieran Mallorcan (Balear uharteak) egingo duten Filosofia Olinpiadetan. Zaintza izan da aurtengo gaia, eta, hain zuzen ere, *Eta nik, txoria nuen zaintzen?* argazki filosofikoarekin lehiatuko da finalean.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganese Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

Kirol egokitua gertutik ezagutzeko aukera

Bizi Hadi proiektuak ostiral honetan taldekide berria aurkeztuko du Oñatiko plazan, inklusioaren eta kirol egokituaren aldeko ekitaldi berezi batean. Gainera, herritarrek aukera izango dute kirol egokituaren inguruko tresnak ezagutzeko eta erabiltzeko

Sara Lanz Azpiazu OÑATI

Oñatiko plaza inklusioaren eta kirol egokituaren erdigune bilakatuko da gaur, arratsaldeko seietan. Bizi Hadi proiektuak antolatutako jardunaldi horretan, herritarrek aukera izango dute taldearen bilakaera bertatik bertara ezagutzeko, taldekide berri bat ezagutzeko eta kirol egokitua egiteko erabiltzen diren tresnak probatzeko. Azaroan egin zuten aurkezpenetik hona, taldeak hainbat ekintza aurrera eramanez, eta ekitaldiak bide horretan beste urrats garrantzitsu bat markatuko du.

Ekimenaren helburuen artean, taldea kalean ezagutaraztea, taldekide berriaren aurkezpena eta tresnak probatzeko aukera eskaintzea daude. Izan ere, kide berriaren aurkezpena berezia izango dela esan du Aitor Rementeriak, Bizi Hadi taldeko presidentea: "Bailara mailan horrelako kide gutxi daude, eta irrikaz gaude izena aditzera emateko".

Parte-hartzaileek kirol egokitua egiteko erabiltzen diren bizikletak, aulki gurgildunak eta beste tresna batzuk ikusi eta probatu ahal izango dituzte. Gainera, gaztetxoek marrazkiak egiteko txoko bat izango dute, eta, giroa are gehiago goxatzeko, pintxoak banatuko dituzte.

Bizi Hadi proiektuak inklusioaren aldeko apustua egiten du, kirol egokitua gizarteratze tresna gisa sustatuz. Jardunaldi hoti aukera paregabea da adin eta gaitasun guztietako pertsonentzat, kirolaren bitartez elkarbizitza eta integrazioa sustatzeko.

Ekitaldian parte hartzen dutenek ez ezik, taldeko kideek ere ilusio handiz hartu dute hitzordua. "Horrelako jardunaldiak aukera paregabea dira gure komunitatea indartzeko", gaineratu du Rementeriak. Taldeko presidentea herritarrei



Bizi Hadi kirol talde inklusiboaren aurkezpen eguneko talde-argazkia. GOIENA

"BAILARA MAILAN HORRELAKO KIDE GUTXI DAUDE, ETA IRRIKAZ GAUDE IZENA ADITZERA EMATEKO"

plazara joateko gonbidapena egin nahi izan die: "Jendea animatu nahiko genuke Oñatiko plazara joatera, mereziko du eta bi ordu polit pasako ditugu bertan".

Hasitako bidea sendotu

Azaroaren 16an Oñatiko gaztelekuan egin zuten aurkezpenetik, Bizi Hadik hainbat lasterketetan parte hartu du, hala nola Benidormeko, Aretxabaletako, Azpeitiko eta Altsasuko San Silvestre probetan, eta Oñatiko Urgain eskolan proiektua aurkeztu dute, kirolak osasunean dituen onurak eta integrazio-balioak sustatzeko. Beti helburu berari eusten diotela adierazi du Rementeriak: "Gure helburua da kirol inklusiboaren aldeko kontzientzia zabaltzea eta behar dutenentzat tresna egokituak eskuragarri jartzea".

Erronka berriak

Datozen hilabeteetarako, Bizi Hadik, iaz parte hartutako lasterketetan parte hartzeaz gain, helburu berriak ditu. Aurreko urtean bezala, Euskal Herriko duatloietan eta triatloietan parte hartzea, baita Santanderko lehiaketa batzuetan eta Behobian ere, eta taldeko kideetako batek Titan Desert erronka handian parte hartuko du.

Ikastetxeetara bisitak egiten jarraituko dutela azaldu du Rementeriak: "Hainbat dei jaso ditugu bailarako zein kanpoko ikastetxeetatik". Rementeriak dio bisita horiek bi helburu garrantzitsurekin egiten dituztela: "Desgaitasuna duten haurrentzat oso ondo etortzen da azalpena"; aldi berean, gainontzeko haurrentzat ere egokia izaten da, eurekin jolastea posible dela ikus dezaketelako.

Rementeriak argi azaldu du kirol guztiek B alde bat dutela, eta gehienetan modu konbentzionalen jartzen dela arreta. Dena dela, hark dio posible dela ia-ia kirol guztiak egitea, era batean edo bestean, baliabide batekin edo beste batekin, eta horri oihartzuna ematea dute helburu.



Gesaltza-Arrikruz kobako galerietako bat. OÑATIKO UDALA

AMETek inguruko haitzulo handien datuak eguneratu ditu

Garapenik handiena duena Gesaltza-Arrikruz klasikoa da, Galarra eta Ubaoko kobekin batera

Sara Lanz Azpiazu OÑATI

Aloña Mendiko Espeleologia Taldeak (AMET) Aizkorrri-Aratz-Udalatzeko haitzuloen datuak berriro ditu, 1.121 katalogatu, eta 1.000 metroko garapena eta 100 metroko desnibela gainditzen dituztenak berezitu.

Santi Ugartek, Aloña Mendiko Espeleologia Taldeko kideak, adierazi du eguneraketa ezinbestekoa dela datu zaharkituak gaurkotzeko: "Urteetako lanari esker galeria berriak aurkitu dira, eta neurketak eguneratu dira". Adibide gisa, Gesaltza-Arrikruz kobazuloak 15 kilometro

zituela azaldu du, baina orain 17 dituela. Lizartzako leizea txikia zela uste zela, baina gaur egun sakonera eta luzera handiak dituela.

Garapen handiena Lizartza eta Ubaoko kobekin izan dutela azaldu du Ugartek, eta Gesaltza-Arrikruz eta Galarra haitzuloak nabarmendu ditu. Ez dira koba berriak, baina galeria berriak eta zirrikitu berriak aurkitu dituzte.

Espeleologia taldeak esplorazio-lanetan dihardu, haitzulo sarearen ezagutza zabaltzen jarraitzeko asmoarekin.

Pou anaiak hitzaldia egingo dute, eta liburua aurkeztu

Astelehenean, martxoak 3, Santa Ana antzokian izango dira Pou anaiak, arratsaldeko zazpitan

Goiena komunitatea

Oñatiko Mendi Martxa / OÑATI

Aurten, Oñatiko Mendi Martxaren hamargarren edizioa izango da irailaren 13an. Urteurren borobila ospatzeko, hilero hainbat ekitaldi antolatu ditugu. Ekitaldi horiei martxoaren 3an emango diegu hasiera, Pou anaien saioarekin.

Oñatiko Mendi Martxaren X. edizioaren ospakizunen baitan, martxoaren 3an, astelehena, Pou anaien hitzaldia eta *Lau elementuen erronka* liburuaren aurkezpena izango dugu Santa Ana

antzokian. Sarrera doan izango da, baina aurrez eskuratu behar da, Txokolateixan.

Hurrengo hitzordua

Urteurrenaren ospakizunen hurrengo hitzordua apirilaren 9an izango da. Felipe Uriartek, gipuzkoar mendigoizalea eta goi mendietako gidariak, *Euskarra-Xerpera motxilan eramateko hiztegia*-ren inguruan hitz egingo digu, eta, horrekin batera, bideo emanaldia egongo da. Oñatiko kultur etxean izango da, 19:00etan.

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA



'KABARET 2.0' BERGARAKO ARATUSTE-KONTZERTUA
OTSAILAREN 28AN, EGUBAKOITZA, 22:30EAN
ZUZENEAN 'GOIENA.EUS' ATARIAN



ARATUSTEAK ARETXABALETATIK
MARTXOAREN 2AN, DOMEKA, 12:10EAN
ZUZENEAN 'GOIENA.EUS' ATARIAN ETA GOIENA TELEBISTAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena

Zu hemen zaude.

Pista estaliko hirugarren urrea Maialen Axpek

ATLETISMOA Iazko neguan Arrasateko atletak ezin izan zuen pista estaliko Espainiako Txapelketan esku hartu, baina aurreko asteburuan itzuli da gorenera, urrea irabazita (4,30). Eneko Carrascalek, berriz, iaz irabazitako zilarra defendatzea lortu du

Xabier Urtzelai ARRASATE

Joan den asteburuan pista estaliko denboraldiko hitzordu nagusia jokatu zuten, Madrilen, eta Maialen Axpe eta Eneko Carrascal arrasatearrak lanera itzuliko dira asteburuan, Madrigo *meeting*-ean esku hartuko dute eta. Urteko lan erdiak, baina, nota onarekin bete dituzte, eta domina ekarri dute Espainiako txapelketatik. Axpe, 2019an eta 2023an pista estalian egin moduan, 2025 honetan ere podiumeko koska gorenera igo da –bera zen garaipenerako faboritoa– eta Carrascalek iazko zilarra defendatzea lortu du salto hirukoitzean, gainera, marka pertsonala eginda (16,20).

Maialen Axperen kasuan Bedoñakoak nagusitasun handiz irabazi du txapelketa; beste edizio batzuetan Malen Ruiz de Azuarekin lehia politik izan ditu, baina oraingoan urrerako hautagai nagusia zen, 4,31ko marka eginda iritsi zen-eta txapelketara. Eta Bedoñakoak ez zuen kalerik egin: bigarren saikeran lortu zuen 4,30eko saltoa egitea, eta 4,40koarekin ere saiatu zen hirutan, nahiz eta lortu ez. Haren atzetik sailkatu ziren Clara Fernandez kataluniarra (4,25) eta Castelloko Naia Perez (4,25).

Carrascalek, marka pertsonala

Eneko Carrascal arrasatearrak ere txapelketa serioa egin zuen; gutxi gorabehera, negu osoan egiten dabilen denboraldiaren pareko. "Egia esan, hilabete hauetan nahiko erregular ibili naiz, ez dut gorabehera handirik izan, eta pozik itzuli naiz Madrildik. Egia da saltoa egin nuen momentuan ez nuela halako markarik egiterik espero; segituan konturatu nintzen akatsen bat egin nuela, desorekatu egin nintzen apur bat, eta, hala ere, marka pertsonala egin nuen".

Arrasatekoaren aurretik urrea jantzi zuen Valentziako Marcos Ruiz ikusgarri egon zen (16,78), eta lehenengoz jantzi zuen urrea. Eta haren atzetik Carrascalena izan zen markarik onena, 16 metroko saltoa aparteko zailtasun barik egiten diharduela berretsita.

Calbano, bikain, baina...

Zapatuko ezuste handietako bat Andoni Calbanok eman zuen. Bergararra sasoi onean iritsi zen 200 metroko lasterketara, eta finalerdietako proban Espainia-

ko urteko marka onena egin zuen (20,95). Noski, marka horrekin domekako finalerako txartela lortu zuen, baina korrikaldian ziztada igarri zuen orpoan, eta, zoritxarrez, domekako finaleko lasterketan parte hartzeari muzin egin behar izan zion, minduta zeukan-eta hanka. Domekan Adria Alfonso (20,65) soilik izan zen gai Bergarakoak bezperan egindako marka ontzeko, eta harendako izan zen urrea.

Larrea, kanpoan

Laugarren ordezkari debagoien-darra, Ekain Larrea, ezin izan zen 1.500 metroko lasterketako finalerako sailkatu. Antzuolarrarendako debuta zen maila absolutuan, eta, egindako lasterketarekin gustura geratu bazen ere, garbi zeukan aukera txikiak izan zituela. "Oso motel hasi genuen lasterketa, 4.20ko erritmora. Niri hasieratik lasterketa azkarra egitea komeni zitzaidan, amaierako erritmo aldaketa handiak ekiditeko, inguruan jende azkarra neukalako. Baina segituan konturatu nintzen poliki hasi genuela lasterketa eta jendea ez zihoala marka bila, eta bai postu bila. Burutik pasatu zitzaidan erritmoa jartzen hastea, aurrera pasatzea. Baina halakoetan zailtzak sortzen dira, momentuan hartu behar dira erabakiak, izan ere, banekien lehenengoa jarrita ere besteei mesede egingo niela. Hala, besteen erritmoan joatea erabaki nuen. Korrikalarietako batzuk 800 metroko espezialistak ziren eta lasterketaren bigarren zatia oso azkar egin genuen. Lau onenak sailkatzen ziren finalerako; bosgarrena izan nintzen, baina alde handiarekin geratu nintzen helmuga-argazkitik kanpo".

Manu Diazek jarraitzeko hautagaitza aurkeztu du

FUTBOLA Federaziorako taldean ditu Jabi Ibarra, Iosu Elorza, Oneida Zubia eta Itxaso Egaña

X.U.A BERGARA

Astehenean hasi zuten 2028ra arte Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea eta zuzendaritza batzordea aukeratzeko hauteskunde-prozesua. Eta 2020an nagusitu ziren Garai Berriak taldeko ordezkariak ostera ere aurkeztea erabaki dute, orain arte presidente izan den Manu Diaz buru dutela. "Taldea ia bera izango da, estamentu guztien ordezkariarekin eta gure lurraldeko klub presentzia zabalarekin", adierazi dute taldekoek. Oraingoan, talde bakarra aurkeztu da.

Egoera oso berezian hasi zen talde hori lanean: 2020an; pandemiak bete-betean harrapatu zituen eta garai haiek kudeatu behar izan zituzten. "Modu huribilean eta pertsonalean kudeatzen saiatu gara, lehiaketak aldatuz, orekatuak eta erakargarriak izan daitezten, emakumeek jokatutako futbolarekiko sentsibilitate berezia izanez, orain arte ez zegoen futbol inklusibo proiektu bat garatuz, Gipuzkoako selekzioak berreskuratzuz, epaileen kopurua handituz, asteburuetan erantzuteko telefonoa martxan jarritz, hainbat arlo profesionalizatuz eta gestioak sinplifikatuz".



Maialen Axpe, erdian, Clara Fernandezekin eta Naia Perezekin, podiumean. RFEA



Realaren eta Sevillaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Sevilla norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik. Partidua martxoaren 7ko asteburuan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 2a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena[™]
kide

Okm:
batzen gaituen distantzia

Ipuinekin gozatzeko askotariko emanaldiak

Hamazortzigarren Ahoz Aho Ahoz kotasunaren Nazioarteko Jaialdia egingo dute martxoaren 5etik apirilaren 5era bitartean, eta Debagoiengan bederati saio egingo dituzte, Arrasaten, Oñatin eta Eskoriatzan banatuta; sarrera dohainik da

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

Orain dela hamazortzi urte abiatu zuen Intujai Teatro taldeak Ahoz Aho Ahoz kotasunaren Nazioarteko Jaialdia, Tolosaldean eta Goierrin, eta harrezkero haziz joan da, gonbidatutako kontalarien eta emanaldien kopuruari begiratuta. Horren erakusle da martxoaren 5ean Arrasaten hasi eta apirilaren 5ean Tolosan borobilduko duten jaialdira 32 kontalari gonbidatu dituztela, Gipuzkoako hamazortzi herritan banatuta, 50 kontaketa saio egiteko. Intujai Teatrotroko kide May Gorostiagak azkeneko urteetan Debagoienak jaialdian hartu duen presentzia azpimarratu du: "Alde batetik, eskualde horretan hazten ari den kontalari kopurua aintzat hartu behar da, eta txalotzekoa da, era berean, jaialdiak irauten duen bitartean eta baita beste-lako egitarauetan ere ipuin kontaketa asko antolatzen direla; bada, Debagoiengan kontalaritza presente dago urteetan zehar, eta eskertzekoa da hori".

Aurtengo berrikuntzak

Urtero moduan, aurten ere euskal kontalari bat gorai patuko dute, eta Yolanda Arrietak jasoko du Urrezko Kalabaza. "Izu-



Aurtengo Ahoz Aho jaialdiko aurkezpeneko protagonistak. INTUJAI TEATRO

garri maite dugun maistra da. Idazlanak haren kontalari grinarekin maisuki uztartzen jakin duelako, istorio ederrak oparituz, bada, merezita du saria".

Egitarau zabala prestatu dute aurten ere, eta horien artean daude Ordizian eta Arrasaten egingo dituzten *Kamishi-jai* izeneko ekitaldiak. "Azokaren mendeurrena ospatzen ari dira Ordizian, eta kalera aterako gara bizikletekin eta ipuinekin, eta azokarekin lotutako istorioak kontatuko ditugu. Arrasatera ere eroango dugu ekimena,

martxoaren 20an ospatzen den Ahoz kotasunaren Nazioarteko Egunean. Pello Añorga kontalariak euskal kontalarien izenean aldarriz mezua idatziko digu, eta Maider Alzelai arrasatearrak irakurriko du. Publiko familiarrarentzako ekitaldiak dira horiek".

Azken aldietan moduan, nazioarteko kontalariek istorioak euskaraz kontatzeko ahaleginarekin jarraituz, Azerbaijango, Nikaraguako eta Galiziako hiru kontalari gonbidatu dituzte erroka horretara. "Hernialdean bizi

Debagoieneko emanaldiak

ARRASATE

- **Celeste Abba (Argentina)** Martxoaren 5ean, 19:00etan, Kulturaten. Helduentzako. Gazteleraz.
- **Tarana Karim (Azerbaijan) eta Nerea Ariznabarreta (Euskal Herria)** Martxoaren 7an, 18:00etan, Kulturaten. Haurrentzako. Euskaraz.
- **Nicolas Lubo (Kolonbia) eta Amaia Elizagoien (Euskal Herria)** Martxoaren 12an, 18:00etan, Santa Marina bibliotekan. Haurrentzako. Euskaraz eta gazteleraz.
- **Pello Añorga (Euskal Herria) eta Intujai Teatro (Euskal Herria)** Martxoaren 20an, 18:00etan, Kulturaten eta kaleetan zehar. Familientzat. Euskaraz.

OÑATI

- **Quico Cadaval (Galizia)** Martxoaren 12an, 19:00etan, liburategian. Helduentzako. Gazteleraz.
- **Larritz Urruzola (Euskal Herria/Galizia)** Martxoaren 27an, 18:00etan, liburategian. Haurrentzako. Euskaraz.

ESKORIATZA

- **Carles Garcia Domingo (Errioxa)** Martxoaren 14an, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Helduentzako. Gazteleraz.
- **Patricia McGill (Uruguai)** Martxoaren 21ean, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Helduentzako. Gazteleraz.
- **Eva Andujar (Valentzia)** Martxoaren 28an, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Helduentzako. Gazteleraz.

da Tamara Karim azerbaijandarra; Irunen du bizitokia Zoa Tamara Cuellarrek; eta azken urteetan Galizian bizi da Larritz Urruzola. Euskaratik gertu dauden kontalariak gurera ekartzea lortu dugu oraingoan ere".

Alzelai eta Kortazar

Eskoriatzako Dorleta Kortazar eta Arrasateko Maider Alzelai kontalariak "pozarren" daude euren saioak egin eta antolaketan lanetan laguntzeko ere. Valentziako Eva Andujarrekin partekatuko ditu bi saio Esko-

riatzakoak: "Orain dela urte batzuk ezagutu genuen elkar, eta harreman berezia sortu zen gure artean. Lehenengo aldiz kontatuko dugu elkarrekin, eta sekulako ilusioa dut. Eta jaialdiko azkeneko egunean Tolosan egingo dugun mahai-ingurua gidatuko dut". Arrasateko *Kamishi-jai* ekimenaz gain, Abaltzisketako emanaldian izango dela kontatu du Alzelai: "Ahoz kotasun tailerra gidatzen dut hango eskola txikian, eta ikasleekin batera prestatu dugu, mimo handiz, emanaldia".

Capsula taldea, martxoko Kooltur Ostegunak abiatzeko

Capsula, Sukena, Small Jackets eta Kaskezur taldeak dira Kooltur Ekintzak-en martxorako gonbidatuak

A. Aranburuzabala ARRASATE

Arrasateko gaztetxean izandakoa da 25 urte bete dituen Argentinako Capsula taldea. "Primitivo Astral" lan luzea aurkezten ari dira rock bizia zentzu zabalenean lantzen duten musikari betera-

noak. Martxoaren 6an gurera etorriko dira, baita orain dela urte asko gonbidatu genuen Italiako Small Jackets taldea ere. 2000. urtean sortutako taldeak geldiezinako ibilbidea darama, eta martxoaren 20an izango dira

Arrasateko gaztetxean", dio antolatzaile taldeko Iker Barandiaranek.

Euskal taldeak

Nazioarteko musikariez gain, azkeneko hilabeteetan zuzenkorik egin ez duen Oñatiko Sukena taldea gonbidatu dute martxoaren 13rako, eta Baztango Kaskezur taldeak borobilduko du hileko egitaraua, martxoaren 27an. Kontzertu guztiak 22:00etan izaten dira; sarrera zazpi euro da.



Argentina eta Bilboko Capsula taldeak estreinatuko du martxoko egitaraua. CAPSULA



KANTARI



Aretxabaleta eta Eskoriatza 2025-02-22

Aretxabaletako eta Eskoriatzako 7 eta 12 urte arteko ikasleek bost saio berri grabatu zituzten Aretxabaletako Arkupe kultura etxeko Zaraia antzokian, domekan. Laster izango dira Goiena telebistan saio horiek ikusgai. ARGAZKIAK: GARAZI BIZENTE LAZKANO



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Mekolalden baserria salgai. 12 hektarea, pinu eta fruitu arbola ezberdinez inguratuta. 943 76 49 61 edo 644 40 93 67.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Alokairu bila nabil Bergaran. 2 edo 3 logela izatea eskertuko nuke. Bergarako Udaltaldean ari naiz lanean. 645 72 92 87.

Debagoiena. Alokatzeko logela bila dabilen emakume arduratsua eta langilea naiz. Alokairuaren kontratua eta etxebizitzaren erroldatzeko aukera izatea beharrezkoak ditut. Deitu 602 53 38 42 zenbakira.

Debagoiena. Hiru logela duen etxebizitza bila dabilen familia gara. Telefonoa: 682 54 49 16.

Oñati. Oñatin, bi logela dituen pisu bila nabil. 663 11 75 10.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Deitu 603 30 73 94 zenbakira.

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95.

Arrasate. Zaintzan zein garbiketarako egiten lan egingo nuke. Atarien, etxeen zein fabriken garbiketa egingo nuke. Interesatuok deitu 688 29 97 05 zenbakira.

Bergara eta Antzuola. Emakume euskalduna gertu Bergaran eta Antzuolan zaintza lanak egiteko, egunez edo gauzez. Esperientzia eta soziosanitario ikasketak ditut. 637 52 89 83.

Bergara. Zuzenbidea ikastena duen neska euskalduna eta arduratsua umeak zaintzeko prest. 688 62 90 09.

Bergara. Bergarara iritsi berria den neska gazte bat naiz eta lan bila nabil. Esperientzia daukat garbiketa alorrean, sukaldari laguntzaile gisa eta nagusiak zaintzen. Etxea zein atariak garbitzeko, nagusien laguntzeko eta bestelako lanak egiteko gertu nago. 631 87 56 29 edo 684 14 95 54.

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Esperientzia dut zaintza lanetan. Deitu 625 25 57 78 zenbakira.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 600 41 80 86.

Debagoiena. Emakumea pertsonak zaindu, garbiketa lanak egin edo zerbizari lanak egiteko prest. Malgutasuna dut. Telefonoa: 651 49 05 35.

Debagoiena. Eraikuntza-laguntzaile, soldatzaile, edo pintore gisa lan egingo nuke. 624 63 00 90.

Debagoiena. Erizaintzako laguntzailea naiz eta Soziosanitario ikasketak ditut. Pertsona nagusien edo haurren zaintzan edota garbiketarako lan egingo nuke. Berehalako prestasuna. Pertsona arduratsua eta errespetuzkoa. 673 64 41 99.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. 633 84 07 08.

Debagoiena. Etxeko lanetan eta zaintzan arituko nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario titulua daukat. 632 89 09 25.

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Etxetik kanpo bizi izatean. Asteazken zehar zein asteburuetan lan egiteko gertu. Telefonoa: 632 63 77 38.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. 626 44 46 49.

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest dagoen emakumea. Etxetik kanpo bizi izatean. Asteazken zehar zein asteburuetan lan egiteko gertu. Telefonoa: 612 56 12 39.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Garbiketa lanak egiteko edo pertsonak zaintzeko prest. 633 17 32 15.

Debagoiena. Gizonezkoa pertsonak zaintzeko prest. Soziosanitario titulua daukat. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke. 643 65 28 27.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Telefonoa: 631 90 15 92.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsonen zaintzan. Esperientzia daukat. Deitu: 611 75 39 92.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo asteburuetan lan egiteko gertu. Pertsonen zaintzan lan egingo nuke. Telefonoa: 633 17 32 15.

Debagoiena. Etxeko lanak egiten edota pertsona nagusien edo umeen zaintzan lan egiteko prest. Orduka lan egiteko gertu. 624 70 02 37.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua ditut. 625 25 57 78.

Debagoiena. Etxez etxeko laguntzaile gisa edo garbiketa-lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Soziosanitario eta garbiketa titulua ditut. Deitu 695 09 24 23 zenbakira.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Neska gazte arduratsua naiz. 613 59 26 39.

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko, pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo konpainia egiteko prest. Orduka lan egingo nuke. Asteazken zehar zein asteburuetan lan egiteko gertu. 653 59 45 60 edo 612 27 67 87.

Debagoiena. Garbiketarako edo eraikuntzan lan egiteko prest dagoen gizona. Malgutasun osoa. 671 25 12 09.

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusien zaintzan lan egiteko prest. Astegunetan zein asteburuetan. 672 55 67 35.

Debagoiena. Larunbatetan, orduka, garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Telefonoa: 611 38 94 37

Debagoiena. Neska esperientziarekin, zintzoa eta arduratsua, adinekoak zaindu eta paseatzeko edo tabernak eta atariak garbitzeko lan bila. Berehalako prestutasuna. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 624 83 95 19.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Telefonoa: 613 58 95 70.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen gizona. Soziosanitario titulua daukat. 624 72 97 80.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Telefonoa: 624 72 97 80.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan lan egiteko gertu dagoen pertsona. 635 87 82 18.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu, paseatzera ateratzeko edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Esperientzia handia dut zaintza lanetan. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke etxe zein ospitalean. 654 71 55 99.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. 603 26 66 18.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Telefonoa: 620 23 58 15.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. Beste lan mota batzuetara molda naiteke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Berehalako prestutasuna. Deitu 605 33 90 92 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Deitu 603 30 03 77 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketa lanak egiten lan egiteko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario titulua daukat. Deitu 624 09 66 51 (Cintia) telefono zenbakira.

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. Deitu 644 05 98 53 telefono zenbakira.

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. Deitu 623 53 82 88 telefono zenbakira.

Eskoriatza, Arexabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñati. Pertsona nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. 4 urteko esperientzia daukat. 603 30 03 77.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Suhar eta Miren Ulezia Vitoria
Marxoaren 5an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, pitxitxos! Ondo ondo pasa eguna, eta dakizuen moduan ospatu! Gozatu!




OÑATI
Paule Bikuña Urkia
Marxoaren 4an, 4 urte. Zorionak! Egun polita pasa laguntxo eta etxekoekin. Patxo haundi bat familia guztian partetik, Bereziki June txikitxoaren partetik.



ARETXABALETA
Iker Isasmendi Zubizarreta
Marxoaren 3an, 48 urte. Zorionak, aitatxo! Oso ondo pasau zure urtebetetzean! Karnabaletan oso ondo pasatuko dugu! Asko maite zaitugu!



BERGARA
Magali Azula Padilla
Marxoaren 3an, 10 urte. Zorionak, bihotza! Ondo ondo pasa zure urtebetetze eguna. Muxu haundi bat etxekoekin partetik!



OÑATI
Aine Martinez Lopez
Marxoaren 3an, 11 urte. Zorionak, pitxin! Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean eta ez galdu inoiz irribarre hori. Infinito maite zaitugu. Muxu haundi bat!




ARRASATE
Izadi Ramos
Marxoaren 1an, 8 urte. Zorionak, Izadi! Jarraitu holako alai izaten! Patxo handi bat familia guztian partetik!



BERGARA
Ander eta Jon Basauri Davila
Marxoaren 1an, 13 urte. Zorionak, Jon eta Ander! 13 urte! Ondo ondo pasatu zuen eguna eta muxu haundi bat etxekoekin partetik!



OÑATI
Julen Odriozola Larrañaga
Marxoaren 1an, 11 urte. Zorionak, Julen! Ondo pasau zure egunian! Patxo pila bat etxeko danon partetik.



ARRASATE/ONDARROA
Aran Balerdi Zeberio
Marxoaren 1an, 10 urte. Zorionak, maitte! Ederto pasau deizula urtebetetze eguna. Patxo potolo bat etxekoekin partetik!



BERGARA
Eki Markina Urizarbarrena
Otsailaren 28an, 6 urte. Zorionak, txapeldu! Segi horrelako alai izaten. Muxu handi bat denon partetik eta ondo ospatu eguna!



BERGARA
Julen Mendiaraz Osinalde
Otsailaren 28an, 7 urte. Zorionak, txapeldu! Ondo pasau zure urtebetetzea! Muxu handi bat familia guztian partetik.



ARRASATE
Unax Heriz Aramburu
Otsailaren 27an, urtebete. Zorionak zure lehen urtebetetzean familia guztian partetik. Patxo asko!



ARETXABALETA
Markel Carbajo
Otsailaren 25an, 7 urte. Zorionak, Markel! Primeran pasa zure eguna. Asko maite zaitugu.



BERGARA
Illargi Jauregi Setien
Otsailaren 25an, 11 urte. Zorionak! Asko disfrutatu eguna!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagor argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Korosti

Inmobiliaria

Bergara:
Basalgo auzoan
baserri ederra,
23 hektareako
lursailarekin
315.000€

Bergara:
Goenkale,
100m², familiabakarra,
3 solairu, 3 logela,
egongelan tximinia.
270.000€

Bergara:
Irizar ibilbidea,
78m² erabilgarri,
3 logela, igogailua,
baikoa, trastelekua.
290.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:

HILDAKOAK

- **Mikel Uribesalgo Mujika.** Elgoibarren, otsailaren 20an. 59 urte.
- **Begoña Eguren Odrizola.** Arrasaten, otsailaren 23an. 88 urte.
- **Paula Hernandez Lopez.** Arrasaten, otsailaren 25ean. 85 urte.
- **Pilar Zabala Barberan.** Arrasaten, otsailaren 25ean. 88 urte.
- **Ketxus Gallastegi De Blas.** Arrasaten, otsailaren 24an. 60 urte.
- **Miren Osa Alberdi.** Bergaran, otsailaren 20an. 90 urte.
- **Martin Aranzabal Ascasisbar.** Bergaran, otsailaren 24an. 75 urte.
- **Juan Mari Aranzabal Palacios.** Bergaran, hilaren 21ean. 76 urte.
- **Pilar Ciarsolo Alberdi.** Bergaran, otsailaren 26an. 88 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 28 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

Zapatua, 1 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

Domeka, 2 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Astelehena, 3 ESPAÑOL: Leintzibar 2 / 943 79 18 65

Martitzena, 4 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Eguaztena, 5 JAI: Zarugalde 38 / 943 76 16 30

Eguena, 6 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 28 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Zapatua, 1 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Domeka, 2 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Astelehena, 3 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Martitzena, 4 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Eguaztena, 5 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Eguena, 6 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 28 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Zapatua, 1 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Domeka, 2 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Astelehena, 3 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Martitzena, 4 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Eguaztena, 5 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguena, 6 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2025: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2025: ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 943 79 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA

Mikel
Uribesalgo Mujika

2025eko otsailaren 20an hil zen, Elgoibarren, 59 urte zituela.

*Zaila da maite duzuna agurtzea.
Zein maitatua izan zaren jakiteak
gure mina lausotzen du.
Denborak gure tristura sosegatuko du,
ez zure hutsunea.
Geurea, beti.
Maitasuna eternitatea da.*

Bihotz-bihotzez, etxeak.
Arrasaten, 2025eko otsailaren 28an.

OROIGARRIA

Martin
Aranzabal Askasibar

2025eko otsailaren 24an hil zen.

*Mundu honek gehien behar zintuenean utzi gaituzu.
Aurrera beti gure bidetari argi eginez.*

Hasta siempre, Comandante!



Sorkunde eta Felix.
Bergaran, 2025eko otsailaren 28an.

OROIGARRIA

Miren
Izurrategi
Azkarretazabal

2025eko otsailaren 27an hil zen, 88 urte zituela.

*Beste izer bat zeruen.
Eskerrik asko emundeko maittasun danagaittik.
Askio maitte zaittugu, ama-amama.*

Aretxabaletan, 2025eko otsailaren 28an.

OROIGARRIA

Ketxus
Gallastegi De Blas

2025eko otsailaren 24an hil zen, 60 urte zituela.

Beti gure bihotzetan.

Kornerreko zure lagunak. Pruden, Txu, Mikel eta Maite.
Arrasaten, 2025eko otsailaren 28an.

ESKER ONA

Juan Mari
Aranzabal Palacios

2025eko otsailaren 21ean hil zen, 76 urte zituela.

Ta Kantauritik harago
zerbait balego,
besarkatuko gara berriro
batzen gaituenean herioi.

Eskerrik asko egun hauetan
babesa eta gertutasuna
adierazi eta gurekin egon
zaretzen guztioi.

Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.
Bergaran, 2025eko otsailaren 28an.

ESKELA

Ketxus
Gallastegi De Blas

2025eko otsailaren 24an hil zen, 60 urte zituela.

Haren emaztea: Maite; seme-alabak; Garazi eta Hodei; arrebak eta koinatua: Elisabeth eta Tomas, Irene; ezkon anai-arrebek, osaba-izebek, ilobek, lehengusu-lehengusinek eta gainerako ahaideek jasotako dolumin eta maitasun keinuak guztiak eskertu nahi dizkizute.

Arrasaten, 2025eko otsailaren 28an.

URTEURRENA

Martina
Ugarte Aiaustui

2024ko otsailaren 27an hil zen, 100 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 1ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokia-elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2025eko otsailaren 28an.

Oroilore
Hileta zerbitzuak

**Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu**

*Gure artean agurtutako guztiak
ezin bidera aurkitzen lagundu
diegi, orain arte bezala, eta guztiak
zango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronenak gogor
izan dituzten laguntzagatik eta
maitasunagatik.*

Mario, Iban, eta Maribi

617 44 21 55
BERGARA • ANIZTOLA • MIRENA OÑATI

BABESLEA



ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**KANTARI**

Bergarako, Elgetako eta Antzuolako neska-mutikoak kantuan eta dantzan ikusteko aukera.

'Kantari' Zapatua, 16:00 eta 20:30, eta domeka, 10:00, 14:30 eta 18:30

**ARATUSTEAK ARETXABALETATIK**

Aratuste-domekak Aretxabaletan ematen duena zuzenean ikusteko aukera egongo da, Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian.

'Bereziak' Domeka, 12:10

**ARATUSTEAK, HERRIRIK HERRI**

Barikutik domekara ospatuko dituzte Aratusteak Debagoieneko herrietan. Horietan jasotakoei buruzko saio berezia egingo dute.

'Jaiak' Martitzena, 20:00 eta 22:00

**TRIKITIARI BURUZ BERBETAN**

Goi-mailako eskoletan espezialitate berria sortzeaz onartu berri den legeari buruz egingo dute berba.

'Berbagai' Eguaztena, 20:00 eta 22:00

**'KABARET 2.0' KONTZERTUA**

Begarako Aratuste-kontzertua osorik ikusteko aukera egongo da: musikariak, dantzariak eta abeslariak egongo dira.

'Bereziak' Eguena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 28

ELGETA Aratuste-barikua
Informazioa osoa 25. orrian.
Elgetan, 15:00etan.

ANTZUOLA 'Miru, Inauteriak bizi' ikuskizuna
Umeendako, Kilikon taldearen eskutik.
Torresoroan, 17:00etan.

ARETXABALETA Dantza erakustaldia
Leizarra musika eskolaren eskutik.
Ibarra kiroldegian, 18:00etan.

LEINTZ GATZAGA 'Leintz Gatzagako arkeologia ikerketak' hitzaldia
Arkeologian doktore Mertxe Urteagak egingo du berba. Ostein, luntxa.
Erabilera askotariko espazioan, 18:00etan.

BERGARA Amatasunari buruzko ikastaroa
Unai Serrano psikologoaren eta Saray Cano pedagogoaren eskutik.
Irizar jauregian, 18:00etan.

OÑATI Bizi Hadi gertutik ezagutzeko aukera
Kirol egokitua egiteko erabiltzen dituzten tresnak, bizikletak, aulkia-eta ikusteko eta probatzeko aukera.
Foruen plazan, 18:00etan.

BERGARA Bergarako Emakume Artisten IX. erakusketa
Askotariko lanak egongo dira ikusgai, gaurtik martxoaren 9ra arte.
Aroztegin, 18:00etan.

ARRASATE Arrasate Musikalekoen Aratuste-kontzertua
Debalde. 400 sarrera banatuko dira leihatilan, emanaldi egunean, 17:30etik aurrera.
Amaia antzokian, 18:30ean.

ARAMAIO 'Inauteriak dantzan' kalejira
Lagun Artean dantza taldekoen eta Trikiakalejiraren eskutik.
Frontoian, 19:00etan.

OÑATI Silioko (Kantabria) maskaradak berbagai
Gaztelaniaz, Oñatiko Inauteriak lantaldeak antolatuta.
Santa Anan, 19:00etan.

ESKORITATZA 'Munduari buelta' kontzertua
Beheko Errota musika eskolako bandaren eskutik.
Zaldibar antzokian, 20:00etan.

ARRASATE Elkartasun kontzertua
Goikobaluren, Goikobalu Txikiren eta Arrasate Gazte abesbatzaren emanaldia, Harreman-en alde.
Parrokian, 20:00etan.

BERGARA 'Kabaret 2.0' kontzertua
Musika Bandak, Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak eta Kulunka dantza taldeak parte hartuko dute.
Pilotalekuan, 22:30ean.

ZAPATUA 1

OÑATI Zuhaitz azoka
Natur Eskolaren eskutik, Ingurumen Jardunaldien baitan.
Foruen plazan, 09:00etan

ANTZUOLA Inauterietako ospakizuna
Informazioa osoa 18. orrian.
Antzuolan, 10:00etan.

OÑATI Oñatiko Inauteriak kalez kale
Informazio osoa 30. orrian.
Oñatin, 11:00etan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria
3 eta 12 urte arteko zuzendutako aisialdia, Txatxilipurdiren eskutik.
Orduetgia: 11:30-13:30.
Erguingo gazte txokoan.

ESKORITATZA Inauteri-zapatua
Informazio osoa 16. orrian.
Fernando Eskoriatza plazan, 12:30ean.

ARRASATE Mozorro paella herrikoia
Arrasateko Haur eta Guraso Asanbladaren eskutik.
Kulturolako aterpean, 14:30ean.

BERGARA Aratusteak Bergaran
Informazioa osoa 24. orrian.
Bergaran, 16:00etan.

BERGARA 'Ostirala iritsi da!' emanaldia
Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria.
Udal pilotalekuan, 18:00etan.

ARRASATE Erronkarnabal
Aratusteekin lotutako erronka jolasak eta merienda, gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

DOMEKA 2

ARETXABALETA Aratuste-domeka
Informazio osoa 14. orrian.
Herriko kaleetan, 10:00etan.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara
Izena ematea beharrezkoa da: 943 79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.
Mendizaleen plazan, 10:00etan.

LEINTZ GATZAGA Dorletako Amari lore-eskaintza
Dorletako Ama Txirindularien zaindariari bisita egingo diote zikloturistek. Salda egongo da han.
Arlabanen, 12:00etan.

ARRASATE 'Familia jolasean'
0-8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolasteko aukera.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

OÑATI Bolant dantzak
Oñatz dantza taldekoen kalejira, Aita Madina txistulari taldeak lagunduta. Gaztelekuan karaokea egongo da.
Oñatiko kaleetan, 18:00etan.

ARRASATE Pelikula emanaldia
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Erraldoien eta txistulari bandaren kalejira
Aratusteak.
Bergaran, 18:30ean.



KAMIKAZ KOLEKTIBOA

ARRASATE 'Renata' antzezlana

Kamikaz Kolektiboaren azken lana: Renata berriro berpiztu da. 133 aldiz hil eta berpiztu da. Erika Olaizola, Amancay Gaztañaga, Iraia Elias eta Xanti Agirrezabala aktoreekin. Sarrerak, hamar euro. *Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.*

ARETXABALETA Kintoen dantza saioa

2006an jaiotako kintoen saioa. *Herriko Plazan, 19:00etan.*

ARRASATE 'Renata' antzezlana

Kamikaz Kolektiboaren lana, Erika Olaizola, Amancay Gaztañaga, Iraia Elias eta Xanti Agirrezabala aktoreekin. Sarrerak, hamar euro. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

ASTELEHENA 3**OÑATI Pou anaiekin solasaldia**

Lau elementuen erronka liburua aurkeztuko dute, Oñatiko Mendi Martxak gonbidatuta. Sarrerak, debalde, Txokolateixan. *Santa Ana antzokian, 18:30ean.*

MARTITZENA 4**ARETXABALETA Aratuste-martitzena**

Informazio osoa 14. orrian. *Herriko kaleak.*

ESKORIATZA Aratuste-martitzena

Informazio osoa 16. orrian. *Herriko kaleak.*

BERGARA Aratuste-martitzena

Informazio osoa 24. orrian. *Herriko kaleak.*

OÑATI Aratuste-martitzena

Informazio osoa 30. orrian. *Herriko kaleak.*

ARAMAIO Aratuste-tailerrak

Veneziako maskarak eta Lantzeko txanoak egingo dituzte. *Ludotekan, 17:00etan.*

ANTZUOLA Mozorro jai

Erretiratuendako. *Landatxopen, 18:30ean.*

EGUAZTENA 5**ARRASATE Haziera eta haur masaje tailerra**

Itziar Rosadoren eta Jon Urdinetaren eskutik, 0-2 urte arteko seme-alabak dituztenendako. *Txiki txokoan, 10:00etan.*

ARRASATE Bizipen tailerra

Itziar Rosadoren eskutik, 2-6 urte arteko seme-alabak dituztenendako. *Olarte gunean, 17:00etan.*

ARETXABALETA 'Aluzineskak' ipuin kontaketa

Maite Frankoren eskutik, 4-8 urte artekoendako. Gonbidapenarekin. *Liburutegian, 17:30ean.*

ARRASATE 'Nerabezaroa, erronka bat norentzat?' tailerra

Agipad-en eskutik, 12-16 urte arteko seme-alabak dituztenendako. *Kulturaten, 18:00etan.*

BERGARA Eguaztenak Oxirondon

Azoka eta sukaldaritza zuzenean. *Oxirondon, 18:00etan.*

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Emilia Pardo Bazanen *El encaje roto* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Liburutegian, 18:30ean.*

OÑATI Martin Arbeorekin solasaldia

Liluraren kontra. Trantsizio geopolitikoaren argi-ilunak liburua aurkeztuko du. *Kultura etxean, 18:30ean.*

ARRASATE Ipuin kontaketa helduendako

Celeste Abba argentinarraren saioa, 18 urtetik gorakoendako. *Kulturaten, 19:00etan.*

EGUENA 6**ARRASATE '24 emakume-Mujeres-Femmes' erakusketa**

Jakiundek sortutako proposamen horren erronka da emakumeek zientzian, artean eta letretan egiten duten lana ikusaraztea. Ikusgai egongo da 27ra arte. *Seber Altube plazan.*

BERGARA 'Katana' bakarriketa

Sold out fenomeno, matxismoa, lodifobia eta beste hainbat gai izango ditu hizpide Ana Goitiak. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Capsula taldea

Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 7**ARRASATE Ahoz Aho 2025 jaialdia**

Azerbaijango Tarana Karimek eta Euskal Herriko Nerea Ariznabarretak kontatuko dituzte ipuinak. Aurrez eman behar da izena, bibliotekan. *Kulturaten, 18:00etan.*

BERGARA La Furiaren kontzertua

Ultra izeneko bosgarren diskoa aurkeztuko du Arrasaten bizi den musikariak. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 21:30ean.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****Maria Callas**

Zapatua eta astelehena: 19:30.

Basatiak (euskaraz)

Zapatua: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****The brutalist**

Egubakoitzetik astelehenera: 19:30.

Basatiak (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****A complete unknown**

Egubakoitza eta zapatua:

16:35, 19:25, 22:05.

Domeka: 17:00, 20:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45.

Aun estoy aqui

Egubakoitza eta zapatua:

16.30, 19.15, 22.00.

Domeka: 17:00, 19:30.

Astelehenetik eguaztena: 17:00, 19:35.

Eguena: 17:00.

Bridget Jones: loca por el

Egubakoitzetik domekara: 16.45, 19:20.

Astelehenetik eguenera: 19:00.

Captain America: brave new world

Egubakoitza eta zapatua: 17:00.

Domeka: 12:00, 17:00.

Astelehena eta eguaztena: 19:30.

El secreto del orbe

Egubakoitza eta zapatua:

17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

La tutoria

Egubakoitza eta zapatua: 21:00.

Domeka: 12:00, 20:30.

Astelehenetik eguenera: 19:30.

La ultima reina

Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

Mi unica familia

Egubakoitza eta zapatua:

16:30, 20:30, 22:30.

Domeka: 16:30, 20:30.

Astelehenetik eguenera: 17:10, 19:20.

Mufasa: el rey leon

Egubakoitza eta zapatua:

16.30, 20.30, 22.30.

Domeka: 16:30, 20:30.

Astelehenetik eguenera: 17:10, 19:20.

Nosotros

Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:00.

Domeka: 12:00, 18:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

The brutalist

Egubakoitza eta zapatua: 17:00.

Domeka: 16:30, 18.45.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Vaiana 2

Domeka: 12:00.

Vermiglio

Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka: 19:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

Paddington in Peru

Egubakoitza eta zapatua: 17:00.

Domeka: 12:00, 16.30.

Sonic the hedgehog 3

Domeka: 12:00.

CFG

Martitzena: 19:30.

KRIKA**Mi única familia**

Zuz.: Mike Leigh. **Herr.:**

Erresuma Batua (2024).

Aktoreak: Marianne Jean-Baptiste, Michele Austin.

★★★★★

Laguntza oihu bat**Antonio Zabala**

Mike Leigh zuzendari britainiarrak garrantzi handia ematen dio aktoreen lanari. Haren gidoiak ez daude itxita eta entseguetan eta filmatzen ari den bitartean istorioak sortzen eta garatzen joaten da. Haren zinema soziala da eta gizakiaz asko arduratzen da. Film askotan, familian izaten diren gatazkak eta familia berean dauden desberdintasunak erakusten ditu. Horrela zen *Secretos y mentiras* film zoragarrian, eta horrela da *Mi única familia*-n ere.

Kasu honetan, bi familia daude: bi ahizpak euren familiak osatu dituzte. Bati, Chantelli, hobeto joan zaio bizitzan eta familia zorientzua osatzea lortu du. Pansyri, alderantziz; ez zaio hain ondo joan eta sentitzen duen frustrazioa eta amorruta ozenki adierazten ditu. Familiakoekin, kaleko jendearekin, supermerkatuko langilearekin... sartzen da. Indarrez eta ironiarekin. Hala, ikusleak barre egiteko aukerak ditu. Dena den, pertsona jasanezina izanik, filma aurrera doan heinean ezagutzen joango gara Pansyren barneko sufrimendua eta hondamendia. Haren portaera laguntza-oihu bat da. Bizitzan gauza askori uko egin behar izan die, sakrifizio asko egin, eta horrek min izugarria sorrarazi dio. Mike Leigh ondo hartzen dio neurria istorioari, eta lortzen du pertsonaiaren gizadasuna ikus-entzuleari helaraztea. Benetan bikaina eta ederra da Marianne Jean-Baptisteren interpretazioa.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Filtorik gabe. Aberria helburu

Ostegunean, Jordi Turull, Junts per Catalunyaeko presidentea, entzun nuen hitzaldi batean Bilbon. Protagonistek bere larrutan bizitako prozesua entzutean nola aldatzen diren gauzak! "Filtorik gabe" hitz egin zuen.

Orain, adibidez, erkidego autonomo guztiei zorra barkatuko omen die Espainiako Gobernuak -foru lurraldeei izan ezik, noski-. Baina zergatik barkatu behar diote Kataluniari %20 eta Andaluziari %50? Euskal kupoan izango ote du kontrako eraginik? Gauza hauek oso garrantzitsuak dira herri batentzat, herriaren zerbitzuak eta konpetentziak aurrera eramateko, lana sortzeko, osasungintza edo hezkuntza hobea izateko.

Turull jaunak argi utzi zuen beraiek ez daudela Madrilen lagunak egiteko. Espainiako Etxebizitza Legeak Kataluniako konpetentziak urratzen baditu, beraiek aurka bozkatuko dute, eta hala egin dute. Baita EAJK ere, arrazoi beragatik. Beste edozein ekimenek eskumenetan atzera egitea suposatzen badu, ez dute konplexurik izango ezezkia emateko. Beraien herria defendatuko dute gauza guztien ginetik, eta ez dira PSOEn eta beste alderdi batzuen mehatxuen aurrean makurtuko.

Argi eta garbi. Filtorik gabe.

GAZTE GARA GAZTE

"Gymbro"-a ez, mihia lantzen duen horietakoa naiz"

MIKEL ARAMENDIA ITURRALDE
ATHLONEKO LANGILEA ETA PILOTAKO ENTRENATZAILEA

Julen Murua Mesonero OÑATI

Gorputz- eta Kirol-jardueren Animazioko Teknikari (TAFYD) gradua ikasi ostean, Mikel Aramendia Iturralde (Oñati, 1998) Huescara joan zen, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua ikastera. Kiro-lari lotuta egon da betidanik; futbolearen eta pilotaren ibilitakoa da. Egun, Athlonen dihardu lanean. Eibarko futbol taldearen eta Unai Laso pilotariaren zalea ere bada, baina bien artean bakarria aukeratu beharko balu, talde armagina aukeratu luke.

Zergatik joan zinen Huescaraino? Areto futboleko txapelketa batean belauneko lesioa izan nuen; *triada* delakoa, hain justu. Horrek eraginda, ezin izan nituen Gasteizen Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduko proba fisikoak egin. Huescan ez nituen proba horiek egin behar, eta horregatik joan nintzen hara. Esperientzia polita izan zen; ez bereziki mendia gustuko dudalako, hango giroagatik baizik.

Gimnasioan diharduzu, monitore; gymbro asko dago [bizitzako zati handi bat gimnasioan igarotzen duen pertsona]?

Batzuk badaude, bai; gero eta gehiago. Interneten sarritan

ageri dira gorputz mota horren alde egiten dutenak, eta batzuek erreferente moduan hartzen dituzte. Ni ez naiz gorputz mota horien aldekoa, nahiago dut denetik gehiago egin eta beste atal batzuk ere lantzea. Hala ere, errespetatu egin behar da jendeak ikuspuntu hori defendatzea.

Zu ere horietakoa zara ala mihia lantzen duenetakoa?

Askok badakite berriketa egitea gustuko dudala; horrenbestez, esango nuke giharrak baino gehiago, mihia lantzen dudala gimnasioan; kar-kar. Hala ere, badut astean hiru aldiz gimnasioa joan eta indar ariketak egiteko ohitura. Lehen ez nintzen oso zalea, baina errutina bat hartu nuenetik gustura joaten naiz kirola egitera eta jendearekin egotera.

Jon Bautista eta Unai Laso: baduzu euren ezaugarriren bat?

Zoritxarrez, ez daukat euren ezaugarririk. Laso nahiko geldigorra iruditzen zait, eta uste dut ni ere halakoa naizela, oso nerbiozoso, akaso hiperaktiboa ere bai; hori izango litzateke antzekotasun bakarra.

Eibarzale amorratua ere bazara; Alcorconen negar egin zenuen [az-



Mikel Aramendia Iturralde, Oñatiko kiroldegiko gimnasioan. JULEN MURUA

MOTZEAN

Pilotari gustukoena. Unai Laso eta Aimar Olaizola.
Modalitate bat. Buruz burukoa.
Gantxoala ala dejada? Dejada.
Eibar Lehen Mailara ala Unai Lasok Lau eta Erdikoa? Eibar Lehen Mailara.
Bidaiatzeko toki bat. Hego Amerikara joan nahi dut.
Mendia ala hondartza? Hondartza.

ken minutuko gol batek igoera zapuztu zion Eibarri 2022an]?

Duela hamar bat urtetik jarraitzen dut Eibar, eta Alcorconeko egunean ere han izan nintzen. Negarrik ez nuen egin, baina kolpe handia izan zen. Esan daiteke ahaztuta ez dagoela, baina gaindituta bai; kar-kar. Harrezkero, futbola lasaigo bizi dudala uste dut. Halere, ahal dudan guztietan Ipuruara joaten naiz partiduak ikustera, eta, batzuetan, taupadak behar baino gehiago igotzen zaizkidala ere igartzen dut; kar-kar.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

**KANTARI
DEBAGOIENEAN**

ZAPATUAN, OTSAILAK 15, 16:00ETAN ETA 20:30EAN
DOMEKAN, OTSAILAK 16, 10:00ETAN,
14:30EAN ETA 18:30EAN
BERGARAKO, ELGETAKO ETA ANTZUOLAKO
GAZTETXOAK KANTUAN ETA DANTZAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

